



"Argi izan behar da AED edo Goiena ez datozela aukera politiko bat elikatzerara"

Julen Arexolaleiba | EKT graduondoa | 7

ENEKO AZKARATE

Donostiako Orfeoia Arrasaten
Goikobaluren urteurrena dela-eta | 15



Debagoiendarrak alfonbra
gorrian izango dira gaurtik | 31



Aramaioko ordezkariak Oñatiko
artzain-txakurren txapelketan | 4



Maleta beteta, etxera

Urtetan ikasitako guztia herrira dakar
Barkerok Aretxabaletako alebinei erakusteko | 28

Jose Javier Barkero, Aretxabaletako Ibarra zelaian, lehen entrenamenduan.

JAGOBA DOMINGO

Elkartasuna bizipoz bilakatuko dute Irrien Lagunek Arrasaten domekan

Primeran pasatzeko aukera emateaz gainera, solidarioak izatekoa ere eskaintzen du Irrien Lagunen Gizartegintza Elkartek Arrasaten egingo duen Bizipozaren Jaia. Bestelako artean, Arrasateko Txatxilipurdi elkarte eta Ziburuko ikastola sarituko dituzte; egun osoko jaia izango da. | 2

SINADURAK

Tunel ilunean argi izpiak | 8
JASONEZABALA

8 | Jauntxoan lorategiak
MONIKA BELASTEGI

Danborrak eta dronak | 40
IDOIA ETXEBERRIA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 |
ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 |
KIROLA 28 | KULTURA 31 |
TELEBISTA-IRRATIA 34 | ZURE IRAGARKIAK 35
ESKELAK 36 | EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38

Markel Irizar Munduko Txapelketan lehiatuko da

Domekan Trek-eko taldekideekin lehiatuko da eta eguaztenean, berriz, selekzioarekin | 29

Aramaion eta Elgetan, herritarrak protagonista

Txirritola eguna izango da Aramaion domekan; Elgetan, berriz, egun osoko festa | Ikus 'Herriak' saila

Passat Alltrack



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Das Auto.

Bizipoza elkartasun, elkartasuna bizipoz

21 talde dira Irrien Lagunak Gizartegintza Elkartearen Domekan egingo dute Arrasaten Bizipozaren Jaiak



Irrien Lagunak Gizartegintza Elkartearen kide diren taldeetako ordezkariak, pailazoekin. | IRRIEN LAGUNAK

JULEN IRIONDO | ARRASATE
Aspanogi -Gipuzkoako Haur Minbizidunen Guraso Elkarte-, Beroa -Gipuzkoako Harrera Familien Elkarte-, Chernobil Lagunak, Euskal Gorra eta Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa; horiek dira Irrien Lagunak Gizartegintza Elkartearen (ILGE) kide diren taldeak -21 elkarte dira denak-.

Hainbat kasutan ordurako izan bazen elkarlan bat egitura-tzeko asmoz, duela lau urte sortutako ekimena da ILGE, "askotariko euskal haurrek eta familiek elkar lagundu eta auzolan sare

euskaldun eta alai osatu dezaten": "Dagoeneko 27 urte daramatzagu pailazogintzan. Euskara eta alaitasuna ziren gure lehenengo bi zutabeak; baina, poliki-poliki, geu ere eredu ginela-eta, balioak txertatzen hasi ginen gure ikuskizunetan gaiak lantze-

rakoan". *Familiak mila kolore, Patata-Patata...* Hainbat adibide jartzen ditu Joxe Mari Agirretxe *Porrotx*-ek, "eta hor hasi zen elkar-

teekiko harremana": "Adibidez, ospitalera joanda, hasieran mentalitatea da ematearena; zu zoaz zerbait eskaintzera. Baina eskai-

Ziburuko ikastola eta Txatxilipurdi

Bizipozaren Jaiak banatuko dute, ohi bezala, Irrizale saria, eta oraingoan jasoko duenetako bat izango da Txatxilipurdi: "20 urte daramatzatela lanean, lan ereduak iruditzen zaigulako, elkarlanerako beti prest daudelako, aitzindari izan direlako...", dio Joxe Mari Agirretxe *Porrotx*-ek; eta Ziburuko ikastola bestea: "Diru bilketa ere egingo dugu, ahal denik eta egun gehien oparitu ahal izateko Ziburuko haurrei, euren ametsa bizi dezaten".

ESANAK

"Irrien Lagunei ekarpen handia egiten diete elkarteek"

JOXE MARI AGIRRETXE | PORROTX

"Proiektu berriak seguru etorriko direla; beti daude laguntzeko prest"

ITZIAR BALTZATEGI | ASPANOGI

EZAGUTU **MONDRAGONLINGUA**ren

hitz egiteko era berriak

Era berriak garai berrietarako, behar berrietarako, teknologia berrietarako, lan merkatu berrietarako...

Informa zaitetz zure **MondragonLingua** zentron:

Araba etorbidea 4, **Arrasate**. Tel. 943 71 20 55
Motxon kalea 7, **Oñati**. Tel. 943 71 60 00



MATRIKULA ZAITEZ ORAIN!

eta munduko denbora guztia izango duzu, ml PLUS edo ml ADAPTA ikastaroan matrikulatzen diren ikasleek SMARTWATCH bikaina jasoko dutelako.



*Urriaren 11 arte edo dauden guztiak agortu arte balio du promozio honek. Bezero PARTIKULARRENTZAT.



Etengabeko berrikuntza eta hobekuntza txertatzen ditugu. "Kalitatearen Urrezko Q" duen Europako hizkuntza-zentro bakarra gara.



Europako zigilua atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan eta ikaskuntzan berritzeagatik.

%85

Ikasleen emaitzak dira gure bermerik onena, % 85ek baino gehiagok Cambridgeko azterketa ofizialak gainditzen ditu.



Cambridge Exam Preparation Centre



MONDRAGON UNIBERTSITATEAK MondragonLinguaren hizkuntza-ikastaroak gomendatzen ditu.



MONDRAGON taldeko kooperatiba bat gara, eta eskaintzen dugun zerbitzuarekin % 100eko konpromisoa daukagu.



ENEKO BARBERENA TXATXILIPURDI

"Eurekin lan egitea oso erraza da"

"Sorpresaz" eta "pozik" hartu dute Txatxilipurdin Irrien Lagunek emango dieten sariaren berria.

Ze harreman duzue Irrien Lagunekin?

Saltsa askotan gaude elkarrekin; adibidez, Irrien Lagunen aldizkarian parte hartzen dugu, eskulanak eginez ale bakoitzean. Horrez gain, urtero hartzen dugu parte Irrien Lagunen Bizipozaren Jaian: tailerrak eta egiten ditugu. Herri hezitzailea, eskola herritarra izeneko mahaian ere elkarrekin gaude, haurren parte-hartzeari eta beste hainbat gairi buruz hausnartzen...

Hainbat gauza konpartitzen dituzue.

Bai. Konpartitzen dugu hizkuntzarekiko errespetua, dena euskaraz egiten dugula; horrez gain, balioak: elkartasuna, kulturartekotasuna, hezkidetzeta... eta guretzako oso erraza izaten da eurekin lan egitea, zentzu horretan.

Diote eredu zaretela.

Euren ibilbidea bai dela txalotzekoa. Beti prest egon dira kausa pila bati laguntzeko. Gizartegintza ekimenarekin lortu dute euskal munduarentzat bigarren mailan egon diren elkarte eta lan pila bat lehenengo mailara ekartzea, eta euskaratik eta euskaraz.



GOIENA

rri eta bizipozez betea –gaixotasunarekin bizi izan zen artean inguruko haurrei eta familiei bere energia transmititu ziena– ispilu hartuta; pailazoentzat mugarri izan zen Ane ebakuntza-gelan sartzeaz zela nolako harrera egin zien gelako ohe gainean kantuan eta dantzari: "Gelatik atera ginen une berean erabaki genuen Marimototsek eta biok Marimototsi mototsak eroriko zitzaizkiola hurrengo urtean, eta hortik jaio zen *Eske-rrrik asko* ikuskizuna, haur minbizidunen gaia lantzen duena".

Eta elkarteekin batera ILGE sortu zutenetik, ekarpena norabide bikoia dela dio Agirretzek; ipuinekin –*Irria* aldizkariako ale bakoitzerako sortzen dute bat, elkarte baten errealitatea azalduz–, abestiek –elkarte bakoitzarentzat abesti bat ari dira egiten– eta ikuskizunekin –elkarte bakoitzarentzat, espresuki, urtero bat egin nahi dute–, elkartei eman nahi diete, "euskaratik, bozgorailu bat eta zabalpen bat": "Baina elkarteek eurek sekulako ekarpena egiten diote Irrien Lagunen proiektuari eta proiektuaren parte diren haur, guraso, familia eta inguruko guztiei". Horrela, hainbat festatan batera jarduten dute pailazoek eta elkarteek, domekako Arrasateko Bizipozaren Jaian bezala –herriko beste hainbat eragilek ere hartuko dute parte festan–.

Aspanogi, kideetako bat

Itziar Baltzategi bergararrak dienez –3 urterekin minbizia izan zuen ume baten ama; 2000 urtetik Aspanogin–, euren elkarte "aho batez" erabaki zuten ILGEko kide izatea. Gaur egun, adibidez, haur minbizia eta Aspanogi ezagutzera emateko bideo bat ari dira grabatzen Irrien Lagunen laguntzarekin, "eta proiektu berriak

Irrien Lagunak eta Goiena

1. ESKAINTZA: 60 EURO

- Goiena Klubeko harpidetza eta *Irria* aldizkariaren harpidetza.
- Irrien Lagunak motxila.
- Bizipozaren Jaiko kamiseta.
- Bizipozaren Jairako familiarentzako sarrera.

2. ESKAINTZA: 30 EURO

- *Irria* aldizkariaren harpidetza.
- Bizipozaren Jaiko kamiseta.
- Bizipozaren Jairako familiarentzako sarrera.

*Oharra: bigarren eskaintza Goiena Klubeko bazkideentzat da.

ESKAINTZA BEREZIAK

Domekako Bizipozaren Jaia harira, Irrien Lagunak eta Goiena Komunikazio Taldeak elkarlanean bi eskaintzak dituzte. Bizipozaren Jaia pasatu ondoren ere egongo da eskaintzak hartzeko aukera, irailaren 30era arte. Informazio gehiago, Goienaren Arrasateko egoitzan.

seguru etorriko direla", Baltzategiren arabera: "Ze beti hor daude, laguntzeko prest".

Aspanogiko kideak dio Porrotxek eta lagunak lortzen dutena dela gaixotasunotaz edo errealtate desberdinotaz "modu naturalean" hitz egitea. Gizartearentzat oraindik tabu diren gaien aurrean, umeentzako eta "helduentzako ere" lan egiten dutela dio: "Eurek ematen dutena asko eta asko da".

BIZIPOZAREN JAIA: EGITARAUA

BITERI PLAZA

- 10:00 Gunearen irekiera.
- 10:30 Harrera instituzionala.
- 11:00 Abesbatza.
- 12:15 Sari banaketa: Irrizale sariak eta marrazki lehiaketakoak.
- 12:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots.
- 15:00 Karaokea.
- 16:00 Apar festa.
- 17:00 Ane eta piratak.

ELKARTEEN EKINTZAK

- 10:00-12:00 Kirol egokituak eta txakur erakustaldia (Kirol Egokituen Federazioa eta Aurrera Atera elkarte).
- 15:00-16:00 Kaxoi tailerra (Kale dor Kayiko elkarte).
- 16:00-17:00 Txakur erakustaldia (Bocalan Biak Bat elkarte).
- Goizean: Erraldoi eta kilikiak, gaiteroekin; eta dantzariak, herrian zehar.
- Egun osoan: serigrafia, hazi landaketa, ludoteka, eskulanak, aurpegi margotzea, Berramosten tailerra eta puzgarriak.
- Herri bazkaria: 13:00etatik 15:00etara, Udal Azokan.
- Sarrerak: Gazte Bulegoan eta Elkar dendetan (5 euro). Bazkarirako, egunean, Biterin eta azokan.

ni baino gehiago jaso egiten duzu. Eta joan ginen ikusten aberastasan handia eta balio aldetik garrantzia handia zuten elkarteak zirela horiek, nahiz eta txikiak izan eta egunerokotasunean ikusezinak, askotan, arazoren bat gertutik bizi izatea tokatu ezean".

Horrela, Pirritx, Porrotx, Marimotots eta kuadrillak Irrien Lagunak martxan jarri zutenean, osasuna, natura, zientzia eta kulturarekin batera elkartasuna ere hartu zuten ardatz, eta Ane Pirata pertsonaia sortu, ospitalean 16 urterekin ezagutu eta 19rekin hil zen "neska alai, bihu-

Ikus itzazu argazkiak, inon baino lehenago Astelehenero Goienan!

UDAKO ARGAZKIEN X. GOIENA LEHIAKETA*

Irailak 21, argazkiak jasotzeko azken eguna!

* Oinarri guztiak: ttiki.com/70956

Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.eus/argazkiak



Baita hemen ere: [f udakoargazkiak](https://www.facebook.com/udakoargazkiak) [t udakoargazkiak](https://www.instagram.com/udakoargazkiak)



XABIER ATXA ZUGASTI. 2013ko Sari Nagusiaren irabazlea.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

kb
photoestudio
www.kbphotoestudio.com

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA
JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua

EROSKI
zurekin

karibu
munduko zapareak
karibumundukosapareak.com



Fernando Etxebarria aramaioarra Argi txakurrarekin.. | IMANOL GALLEGU

Artzain-txakur onenek Oñatin jokatu dute txapelketarik zailena

Domekan nazioarteko artzain-txakurren 55. ediziorako hitzordua egin dute Santa Lutzia zelaian, 10:30ean hasiko den txapelketan

UBANE MADERA | OÑATI

"Domekan txakur onak daude, oso onak, oso onak". Halaxe dio Arabako artzain-txakur lehiaketako txapeldun Fernando Etxebarriak etzi Oñatin jokatu den nazioarteko 55. artzain-txakur txapelketan aurrez aurre izango dituen lehiakideen gainean.

Izan ere, aurten abuztuan Arabako txapela eskuratu duen aramaioarra izango da Oñatiko txapelketan lehiatuko den Debagoieneko ordezkari bakarra. Lehia zaila aurreikusi arren, Oñatiko txapela eskuratzeko asmo sendoarekin hartuko du parte Etxebarriak domekako hitzorduan Argi txakurra gidatzen (Santa Lutzia zelaian, 10:30ean hasita).

Euskal Herria, Frantzia...

Parte-hartzaile moduan estreinaldia izan arren, ikusle moduan ondo asko ezagutzen du aramaioarrak Oñatiko txapelketak duen berezko zailtasuna, artzain-txakur txapelketen artean "zailena", Etxebarriaren esanetan, lehiaketak dituen probengatik.

Domekan, Etxebarriak eta Argi-k aurrez aurre izango dituz-

te beste hamabi lehiakide, Euskal Herriatik ez ezik Frantzia eta Espainiatik etorritakoak. "Arrazari dagokionez, barietate ezberdinak izango dira partaide; betiere, txakurrik onenen presentzia izango dugu, Hego eta Ipar Euskal Herriko, Kataluniako, Castelloko, Mallorcako eta Frantziako txakurrak", azpimarratu dute antolatzaileek. "Egun horretan egiaztatu ahal izango da artzain lanari esker euskal artzain-txakurra zenbateraino hobetu den", gaineratu dute.

Lehen proba

Bi ariketa gainditu beharko dituzte lehiakideek domekan. Lehengoan, zazpi minutuan, banderatzoen artetik pasatu eta artaldera joan beharko dute, bidean bi aldiz geratuta, epaimahakideek esandakoan. Gero, artaldera sartu, hura hartu, eta erdian dagoen hesiaren artetik pasatuta, zelai barreraren dagoen borobileran eraman beharko dituzte ardiak, eta han geratu. Bukatzeko, epaimahaiaren aginduen arabera, eskumako edo ezkerreko hesitik pasatu beharko dute.

Bigarrena

Bigarrenean ere zazpi minutu izango dituzte lehiakideek banderatzoz seinalatutako bide batek joan eta ardiengana sartzeko txakurra. Artaldea hartu eta erdian dagoen eskortan sartu beharko ditu. Bukatzeko, ardiok barruan daudenean zakarkeriarik gabe atera beharko ditu.

Bi ariketetako batean ardi batzuk edo guztiak hesi-tartetetik edo eskortaren atzeko aldera pasatuz gero, puntuak galduko dira.

Lehendakariaren presentziarekin irekiko du ikasturtea MUK gaur

U.M. | ARRASATE

Gaur, egubakoitza, egingo du Mondragon Unibertsitateak 2014-2015 ikasturtearen irekiera ekitaldi ofiziala. Unibertsitateak Arrasaten duen Goi Eskola Politeknikoaren ondoko Iturripe kiroldegiko pilotalekuan elkartuko dira ekitaldian parte hartuko duten ordezkariak, 12:00etan. Horien artean izango dira, besteak beste, Iñigo Urkullu lehendakaria eta Josu Zabala MUKo errektorea.

Memoria akademikoa

Ekitaldia hasteko, 2013-2014 ikasturteko memoria akademikoa aurkeztuko dute. Ondoren, Goi Eskola Politeknikoko ira-

kasle Jon Aurrekoetxeak *Karbono-zuntzezko konpositeak. Etorkizuneko material harrigarria* izenburua duen hitzaldia egingo du. Errektorearen txanda izango da ondoren, eta Urkullu lehendakariak itxiko du, berriz, ekitaldia.

Eskualdean eta Donostian

Eskualdeko hiru fakultatek osatzen dute Mondragon Unibertsitatea: Arrasateko Goi Eskola Politeknikoak, Oñatiko Enpresagintza Fakultateak; Eskoriatzako Humanitate eta Zientzien Fakultateak -Aretxabaletan ere badu campusa fakultate horrek- eta Donostiako Gastronomia Zientzien Fakultateak.



MIREN ARREGI

Katzalin elkarte, Bergaran ere bai

Errotalde jauregian hamabostean behin (egubakoitzetan, egun osoz) emango du zerbitzua bertatik bertara Katzalin elkarteak, bularreko eta ginekologiako minbiziagatik eragindako elkarteak, alegia. Bergarako Udalak utzi dio lokala zeregiri horretarako. Bularreko edo ginekologiako minbiziak dutenek, gaixotasun hori gaintu dutenek edo haien senitartekoei jo dezakete hara laguntza bila.

DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEAK ETA LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ARTEKO LANKIDETZAREN BIDEZ BULTZATUTAKO EKINTZAILITASUNAREN ALDEKO EKIMENA (LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIAREN 2014KO UZTAILAREN 30EKO Ebazpena) -EHAA 2014-08-25-



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA



Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo



Europako Gizarte Fonda
Fondo Social Europeo

1. ENPRESA IDEIA GARATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA

Debagoiengan martxan jartzeko **negozio ideia bat** duten pertsonen tutorizazio, aholkularitza eta laguntza ematea, ideia hori aztertzeko eta garatzeko.

2. ENPRESA PROIEKTU BERRIAK ABIAN JARTZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA

Negozio plan bat egin eduki eta enpresa-ideia hori Debagoiengan martxan jartzea helburu duten pertsonen tutorizazio, aholkularitza eta laguntza ematea.

INFORMAZIOA ETA DOKUMENTAZIOA (onuradunak, baldintzak, dirulaguntza kopurua, programaren iraupena...):

Debagoieneko Mankomunitatean

Nafarroa Etorbidea, 17 - behea - Arrasate.

Tel.: 943 79 30 90 - rgarcia@debagoiena.net - www.debagoiena.net

ESKAERAK ENTREGATZEKO:

Epea: irailaren 15etik 30ra arte (biak barne)

Ordutegia: 08:00etatik 14:00ak arte.

Lekua: Debagoieneko Mankomunitatean
Nafarroa Etorbidea, 17 - ARRASATE



Unibertsitateko ikasleen ideia berritzaileak ikusgai, proiektu eran, Arrasaten eta Oñatin, datozen egunotan

Atzo ezker (eguna) eta bihar arte Arrasateko Kulturategiaren klausuratan ikusgai da Kimu Berri lehiaketako proiektu berritzaileen erakusketa. Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko gradu, graduondo edo masterretako eta HUHEZIKo ikus-entzunezko komunikazioko graduoko ikasleek egindako 60 proiektu ikus daitezke. Oro har, 157 parte-hartzaile izan ditu Kimu Berriren V. edizioak eta unibertsitari horiek 45 proiektu aurkeztu dituzte. Lehiaketaren helburua izan da pertsonen eguneroko bizitza errazago bihurtuko duten produktuak eta zerbitzuak diseinatzea. Arrasateko itxi ostean, Oñatira eramango dute proiektuon erakusketa: martitzenetik (irailaren 23) egubakoitzera bitartean, Enpresagintzako Fakultateko sarrerara. 10:00etatik 17:00ak arte ikus daitezke bertan.



Kontxi Tamayo, dermatologoa

Espainiako Dermatologia eta Benereologia Akademiako kidea

Dermatologiako eta estetikako teknologia berriena, zugandik gertu

Onddoak



Barikulak hanketan



Adinak sorrarazitako orbanak



Laser depilazioa



Azaleko orbanak



Besapeetako gehiegizko izerditzea




Fotogaztetzea



Zaintxoak aurpegian



Fotofinderra: lunarren kontrol digitala



DERMATOLOGIA KLINIKOA

- Aknea, psoriasis, garatxoak, lunarrak, dermatitisa, azaleko infekzioak eta azaleko, ileko eta azazkaletako beste gaixotasun batzuk.
- Azaleko minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bereziki melanoma gaiztoen kasuetan Dermatioskopia digitala
- KIRURGIA DERMATOLOGIKOA: tumore on eta txarrak kentzea kirurgia bidez, anestesia lokarekin: lunarrak (nevus), garatxoak, kisteak...

LASERRA

- Eguzkiak eta adinak eragindako azalaren orbanak ezabatzea, melasma. Gorriuneak ezabatzea, angiomak, rubia, barikulak hanketan...
- Onikomikosia: azazkaletako onddoak kentzeko, laser teknologia bidezko tratamenduak
- Laser depilazioa, dermatologoak egina.
- Tatuajeak ezabatzea

DERMATOLOGIA ESTETIKOA

- Botoxa, azido hialuronikoa, peelingak...
- **BESTE BATZUK**
- **BESAPEKO HIPERHIDROSIA** (besapeko gehiegizko izerditzea) Tratamendua botoxarekin



DERMATOLOGIA ETA ESTETIKA KLINIKA
Kontxi Tamayo doktorea RPS: 6/14.

Atzeko kalea 6, behea
OÑATI
Tel. 943 71 61 82 / 620 12 48 43.



Oskar Elizburu Debagoieneko AEK-ko presidentea eta Xabier Betzuen irakaslea Arrasateko euskaltegian. | UBANE MADERA

'Euskara praktikoa' eskaintzen du AEK-k 2014-2015 ikasturterako

Matrikulazio epea hilaren amaierara arte dago zabalik

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Urriaren lehen astean hasiko du ikasturtea Debagoieneko AEK-k, eta ekainera bitartean euskara ikasteko hainbat aukera eta baliabide jarriko ditu eskura.

Euskara praktikoa da leloa; izan ere, berba bi horiek dioten moduan, ikasteko ez ezik gure hizkuntza erabiltzeko ere badela erakutsi gura dute: "Batuetan,

euskara oso lotuta dago teoriara eta gramatikara; askotan, ikasleak gehiegizko ikuspegi gramatikala dauka hizkuntzari begira, eta aldarrikatu gura dugu euskara praktikoa, benetan bizitza errealerako baliagarri izango den euskara hori (...) Badago jendea euskara ikasi duena baina erabileran hutsuneren bat sentitu duena, edo euskara batuan apur bat alfabetatzeko beha-

rra sentitu duena... hainbat profil ikusten dira euskararen erabilera demandatzen dutenak, eta urteotan horri erantzun gura izan diogu. Egia esan, ikasleak pozik daude eskolak askotan ez direlako zorrotz gramatikalak izaten, denetik egiten saiatzen gara, eta, neurri handi baten, ahozko komunikazioa lantzen dugu, gehienbat beldurrak eta segurtasunik ezak

kentze aldera. Adibidez, azterketan eta baliteke gramatikan edo idatziz ondo moldatzea, baina ahoz beldur-errezeloak egoten dira, eta uste dut nahiko modu praktikotik erantzuten diogula euskararen ikaskuntzari", esplikatu du Xabier Betzuenek, Arrasateko Erdu-AEK euskaltegiko irakasleak.

Diru laguntzak

Osterantzean, maila guztietarako eskaintza du Debagoieneko AEK-k, maila baxuenetatik hasita, HABEko azterketetarako lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren mailatarako prestakuntzetara arte. "Eta urte batzuetatik hona *on line* eskaintza eta autoikaskuntza ikastaroak ere eskaintzen ditugu, non tutore bat bideratzen den ikasle bakoitzeko, eta gero jarraipena egin", azaldu du Betzuenek.

AEKren matrikulazio epea irailaren bukaerara arte dago zabalik. Euskaltegiara jo beharra dago, edo arrasate@aeik.org helbidera; eta telefonoz ere egin daiteke: 943 77 03 69. Matrikula ordaintzeko laguntzak ematen dituzte eskualdeko udalek, baita Jaurralitzak ere. "Esaten da euskararen ezagutzak asko egin duela gora, baina, tamalez, inkestek behin eta berriz esaten dute erabileran larriunean dagoela. Euskaltegiak, oro har, eta gu, bereziki, beti gaude prest ikasle berriak hartzeko, eta jendeari euskaraz bizitzen laguntzeko, motibatuzko. Azken batean, hizkuntza bat bizirik mantentzeko erabilera delako gakorik handiena", azpimarratu du irakasleak.

Enpresa proiektu berriendako laguntzak eska daitezke

Enpresa proiektua egina duten eta enpresa-idea hori martxan jartzea helburu dutenei tutore zerbitzua, aholkularitza eta laguntzak eskaini eta horiek eskatzeko epea zabaldu du Debagoieneko Mankomunitateak asteon, irailaren 30era bitartean. Besteak beste, 2.000 euroko laguntzak daude aurreikusita 18-25 urte bitarteko sustatzaileentzat eta 1.500 euro, berriz, gutxienez 25 urte dituztenentzat. Leku mugatuak dira. Urriaren 10etik urtarrilaren 10era arteko zerbitzua da.

Lantokietarako joan-etorriak bizikletaz egiteko azpiegiturak

Gipuzkoako Foru Aldundiak Debagoienean lanera bizikletaz joateko kanpaina martxan jarri du. Besteak beste, Aretxabaletako, Arrasateko, Eskoriatzako eta Oñatiko udalerrietan enpresa, ikastetxe, osasun etxe eta beste lantoki batzuetan bizikletentzako aparkalekuak eskatzeko deialdia egin du. Bada, epe hori irailaren 27an (zapatua) bukatuko da. Bada, interesa dutenek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eskura ditzakete eskaera orriak.

GARAIA
JATETXEA



**BERRIZ
ZABALIK!**

JATETXEA

MARITXUTAKO MENUA

- Iberikoak
- Kroketak
- Rabak
- Entsalada epela ganboiekin eta frutekin
- Legatza barazkitxoekin
- Entrekota piperrekin eta patatekin
- Kafea eta postrea
- Ura, urteko ardoa eta sagardoa

32 €

Erreserbak irailaren 29ra arte. **943 05 36 74**

• Eguneko menua 10 € • Menu berezia 20 €
• Pintxoak, ogitartekoak... • Aparkaleku pribatua

Astelenetik ostiralera
08:30-17:00
Sukaldea zabalik eten barik.
Zapatuetan eta domeketan
Taldeentzat zabalitzen dugu, enkarguz.

Garaia Berrikuntza Gunea
Goiru kalea 1 • ARRASATE
943 05 36 74

Julen Arexolaleiba | Euskal Kulturgintzaren Transmisioa (EKT) graduondoaren koordinatzaile eta Sorguneak Ikertegiko kidea

"Jendeak argi izan behar du AED edo Goiena ez datozela aukera politiko bat elikatzera"

- ▶ Joseba Sarrionandia protagonista izango duen graduondoaz dihardu koordinatzaileak
- ▶ "Gogo eta esperantza osoa daukagu 'Sarri' bertatik bertara kurtsoan izan dezagun"

ENEKO AZKARATE | ESKORIATZA

AEDko sortzaileetako bat eta lehen liberatua izan zen. Azken urteotan MUko Huhezi fakultatean dihardu, Sorguneak Ikertegian. Euskalgintzari lotua beti. Urrian MUn abiatuko den Euskal Kulturgintzaren Transmisioa (EKT) graduondoaren koordinatzailea da. Horri buruz eta euskalgintzari buruz dihardu.

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondoan izena emateko epea zabalik dago oraindik. Jakingura erakutsi du jendeak orain arte?

Bai, urriaren 7ra arte. Oraingoz, aurreko edizioekin alderatuta, emakume gazteak ari dira gailentzen. 30 bat izaten dira, gutxi gorabehera, eta izen-ematea ondo doa.

Zalaparta sortu zen uztailean eza-gutzera eman zenean Joseba Sarrionandiak parte hartuko zuela Euskal Kulturgintzaren Transmisioan aditu tituluan. Horrek, akaso, izan du eragina?

Ezin jakin, baina ez zait iruditzen horregatik denik. Egia da kurtsoari oihartzun handia eman ziola Sarrionandiarenak.

Zeren bila dator jendea EKT graduondora?

Gai honen gainean nor bere burua janztera. Irakaskuntzan, hedabideetan edo enpresetan dabilzanek kulturarekin zelanbaiteko harremana badaukate, baina eskertzen dute beste eremu batzuetan dabilen jendearen informazioa jasotzea, norberaren holo-grama osatzen joateko.

Zer nabarmentzen dute kurtsoa egin dutenek?

Sarri aipatzen dute elkarren artean egoteko, esperientziak trukatzeko, denbora luzeagoa eduki izan balute, aberasgarriagoa izango zela. Ikasleen arteko edo irakasleen arteko, hau da, berdinen arteko, atsedanak, elkarrekin egoteko orduak... asko estimatzen dituzte. Taldeko giroa da oso ona.

Elkarren arteko giroa sustatzeko lagungarria da kurtsoa trinkoa, hilean behingoa eta asteburuan izatea?

Batzuk zailtasunak dituzte astean barrena etortzeko Debagoienara. Uste dugu orain aukera handiagoak sortuko direla hainbatendako. Gure helburua da kurtsoa bizitzea, bertan murgiltzea, sakontzea... Bizitzea eta hedabideetatik apur bat jarraitzea ezberdinak dira. Esperientzia sakona bizi ohi da kurtsoan. Alde horretatik, jendeak ez du hutsik egiten. Bestalde, hainbat enpresak formazio planetan sartzen dute EKTko



Julen Arexolaleiba, astelehenean, Eskoriatzako MUko Huhezi fakultatean. | ENEKO AZKARATE

graduondo honetara etortzea. Eta oso-oso eskertzekoa da hori.

Bosgarren urtea da graduondoa antolatzen duzuenak. Helburuak betetzen diharduzue?

Bai, gustura gaude. Unibertsitatea inoiz zapaldu ez duen jendea bere alorrean egiten duenaren gaineko esperientzia kontatuzera

"Gura dugu gure tesietatik hurbil egon daitezkeenekin eraikitzea"

"Iaz baino jende gazteagoak eta emakume gehiagok eman dute izena"

unibertsitatera etortzea oso aberasgarria da. Sortzaile batzuei ere entzun diegu esaten hau edo beste sortzeko gauza direla, baina ez dutela inoiz jardun jendarean egiten duten horren gainean. Oholtza gainean bai, baina, ostera, jendearen aurrean ordubeteko herbeta saio bat eskaintzea zaila zaiela. Beste askok erronka moduan hartzen dute.

Sarrionandiarenak hedabideetan izan duen oihartzunak zelan harapatu zaituzte?

Mediatikoki ikaragarria izan da. Prentsa arrosaren eta Auzitegi Nazionalaren itaunketen modukoa izan da. Eta gu ez gaude bi horietakoen galderei erantzuteko. Pertsona publiko ezkutuko batek sortzen duen jakingura eta hedabideen gose hori kudeatu beharrean izan gara. Guk gogo eta esperantza osoa daukagu Joseba Sarrionandia bertatik bertara kurtsoan izan dezagun. Ikusiko dugu zer gertatuko den, baina,

gure ustez, inportanteena da lehenengo aldiz gizon horrek saio bi gertatuko dituela hark gura duen doinu, neurri eta formatuan emateko. Orain arte elkarrizketa eman du galdetegi bati erantzunez, iritzi artikuluren bat idatzi izan du, liburuetan eman ditu iritzi sakonak... baina 50 urteotan eus-

"Eta egin ditugunak egin ez bagenitu?", galdetu behar dogu geure buruari"

"Donostia 2016rekin gertatu dena tamalgarria da sinbolikoki"

kal literaturak eman duenaren gaineko aurkezpenik, bere gura, ez du egin. Orain, bertatik bertara egin ahal badu, askoz ere hobeto. Ezin badu egin hona etorrita, beste modu batera egin ahal izango du eta hemen dudenekin elkarrekin eragiteko aukera izango du.

Bi saio emango ditu: otsailean eta maiatzean?

Bai; bata, Kike Amonarrizekin; bestea, Joseba Gabilondorekin.

Aste honetan bertan harekin egoteko aukera izan duzu. Zer dio?

EKTko graduondoan izango duen parte hartzea prestatzen dihardu. Ilusio handiarekin dago. Jendeak uste baino hartu-eman handiagoa dauka Josebak Euskal Herriko eragile askorekin.

Jendeak, hedabideok, jakin nahi dugu etorriko den edo ez.

Ikusiko da zer gertatzen den, baina, berriro diot, inportanteena da kurtsoan presente egongo dela. Lehen aldiz iritzia emango duela intereseko gaien inguruan eta, pentsalaria den heinean, gauza interesgarriak esango dituela. Klaseak emango dituzten beste batzuek ere, Joseba Gabilondok edo Joseba Zulaikak, esaterako, Skype bidez emango dituzte.

Urte asko daroatzazu Euskalgintzan. AEDren sorreran hasi zinen.

Urte hauetan guztietan, zertan asmatu dute erakundeek, gizar-teak...?

30 urteren ostean, eztabaida genezake zer espero genuen, zer lortu dugun... Baina, nire ustez, galdeta haxe da: "Eta egin ditugunak egin ez bagenitu?". Ezkorrak neutralizatzeko modu bat da. Bestetik, gakoa da zer jartzen dugun erdigunean: gure aukera politikoa edo hizkuntza komunitatea. Lortzen ari gara hizkuntza komunitatea ekartzea erdira eta talde politikoak elkarren arteko lehian ez iritzea.

Ze iruditu zaizu Donostia 2016 Europako Kultura Hiriburuko zuzendaria euskal hiztuna ez izatea?

Oraindik ere gabiltza eztabaidatzen zer gurago dugun, mediku euskalduna edo mediku ona, bi baldintzak betetzen dituen medikurik ez balego moduan. Eta, bestetik, Zigor Etxeburua Gipuzkoako Diputazioko Euskara zuzendariak atera duen oharra larria iruditzen zait. Bere burua zuritzen. Pose bat besterik ez da.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



ZABALIK

JASONE ZABALA
goiena.net/komunitatea/



Tunel ilunean argi izpiak

Abuztu amaiera... batzuk oporretatik bueltan lanera; beste batzuk lana bilatzen... Gaur egun gizartea horrelaxe dago; denok nahi, gutxi batzuek ahal, baina ahalegina beti dago, eta hori da baliozkoa den bide bakarra. Ahaleginak ez ditu beti bere fruituak ematen, eta iluntasunean murgiltzen gara, argitasunik izan ez dezakeen iluntasuna. Norberagan sinistea baino ez dago, beste batzuek zugar sinisten ez duten aldi bakoitzean, modu horretan bakarrik lortu dezakegulako gure barnealdearekin bakea izatea. Baina hori ez da nahikoa, errealitateak beste zerbait erakusten digulako...

Sinistea... horretaz ari nintzen... gauzak okerren jartzen direnean, zure indarra eta adorea, parean duzunaren berdina edo hobe dela sinistea, alegia. Abuztuaren 31... Anoeta, zu, kolore zuri-urdirak hainbeste maite dituzun hori, telebista aurrean edo zuzenean partiduari begira, esperantza galdu gabe, baina... 14. minuturako 0-2, arrain handia txikia jaten... Parekatu hasten dena zergatik okertzen da hain goiz? Txarragoak gara? Esperantza galdu dugu? Guk geuk sinisten ez badugu, nork sinistu behar du gudan? Nork defendatu behar du gurea dena?

Zuloa beltza denean, bertan hondoratzea ez da konponbidea, aurrera jarraitu behar da, besoak jaitsi gabe, ahalegindu, nahi dugun hori lortu arte; mila oztopo aurkituko ditugu, balio ez dugula sinistaraziko diguten pertsonak, egoerak, koloreak... (arrosa izan zen abuztuko azken egun horretako partiduan). Baina momentu horretan erreakzionatu behar da eta adorea erakutsi, eta Errealak hala egin zuen, euro pilak eta izar dezentek (niretzat, zerukoek dute izar balioa) hornitzen duten taldearen aurka. Bat, bi, hiru eta lau!

Tunel ilun eta beltzak, amaieran, argi izpi ederrak dituen adibide bikaina; norabide guztiek itxita diruditean, bidea zabaltzen eta argizatzen diguten argi izpiak.

"Zuloa beltza denean, bertan hondoratzea ez da konponbidea"

USTEAK USTE

MONIKA BELASTEGI | mbelastegi@goiena.com

Jauntxoaren lorategiak

Duela gutxira arte, gure herrian, Bergaran -gainerakoetan bezala-, lorategi ederrenak jauntxoek bakarrik disfrutatu zituzten. Etxe edo jauregi dotoreenak lorategi ikusgarria izatea derrigorrezkoa zen, estatusaren adierazle. Usondo, Errekalde, Irizar, Errotalde zein Olaso Dorreko lorategietako zuhaitz eta landareek berba egingo balute, zenbat kontu-buruzko sekretuak jakingo genituen... Urteak pasatu dira, eta ohiturak aldatu. Jauntxoek alde egin dute eta lorategiak herritar guztiontzat zabalik daude. Zuhaitzek ez digute ezkutuko istoriorik kontatuko, baina Turismo Bulegoak antolatu dituen bisitei esker kontu ugari ezagutzeko aukera izango dugu asteburuan.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.net/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Beste aldeko zubigileak

Mikel Irizar
blogak.goiena.eus/piperrautsa/

Radio Euskadin tertuliakide hasi nintzenean adierazi nuen zubigintza neukala helburu, alegia, nagusiki euskaraz eta soilik erdaraz bizi diren komunitateen artean elkar ezagutza sustatzea, ni lehenengoaren kide izanik.

Bide laburra egin dut oraindik baina *Boulevard* saioan dagoeneko aurkitu ditut beste aldetik zubigintzarako prest dauden pertsonak, saioaren zuzendari den Dani Alvarez bera nabarmen.

Zintzo ikusten dut Dani ahaleginean eta asko estimatzen diot saiatzea, beti asmatuko ez badu ere, nik nirean beti asmatzen ez dudana bezala.

Igandeko *Berría*-n Xabier Lasak kritika egiten zion Daniri, Yoyesen urteurrenean Elixabete Garmendia elkarrizketatzean erakutsi zuen aurreiritzi batengatik.

Ados, baina nire ustez kritika osoagoa izango zen

goraipatu izan balio Daniri Elixabete elkarrizketatu izana, bere aurreiritziak azaleratzeko arriskua hartu eta ohiko errazkeriak alboratuta.

Izan ere, beste aldeko zubigileak guregana abiatzen direnean ez da dena gurekiko harmonia izango.

Baina komeni zaigu dakartzaten aurreiritzien edo jarrerren kritika soiletik harago joatea, zubigintzan jarraitzeko animoa izan dezaten.

Euskaltzaleok daukagu irabazteko gehien.

Nire lehen soldata

Joxe Aranzabal
blogak.goiena.eus/farao/

Hamabost urte nituen, eta, etxera diru apur bat eramate aldera, udan lanean hasi nintzen Amat izeneko kooperatiban, Mondragoen, justu gaur egungo Garaia Berrikuntza gunearen parez pare, errepidearen bestaldean.

Uda hartan, 1968koa oker ez banabil, hiruzpalau ikasle hasi ginen lanean

kooperatiba hartan, helburu berarekin.

Orduan Amatek hoditeriako osagarriak egiten zituen, eta fundizioa zuen oinarritzko jarduera. (Gaur egun, berriz, Fagor Ederlan da kooperatibaren jabea, eta autogintzan dihardu).

Gogoan dut lehen hilea bukatu zenean, larunbat eguerdiz (garai hartan egun erdiz egiten baitzen lan larunbatetan), sobre bat eman zigutela langile guztioi, baita ikasleoi ere, eta harekin joan nintzela etxera, kriskitinan baino poziago, hura baitzen nire lehen soldata.

Ez dut gogoan zenbat diru zen, baina garbi oroitzen dut aitak eta amak sobrea jasotzerakoan eskaini zidaten poz irribarra.

Arratsalde hartan, aitak berarekin hartu eta kalera eramane ninduen, parrokia ondoko erloju-denda batera.

Bertan erloju bat erosi zidan, atzeko aldean nire izen-deiturak eta data irarrita, letra etzanaz.

Oparia izan zen, nire lehen soldatagatik jasotakoa.

Urteetan eraman nuen erloju hura nire ezkerreko eskuturrean, baina, halako batean, galdu egin nuen. Zoritzarrez.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagirre
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubaue Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketaria Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Zierza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.


Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza
diruz lagundutako
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

"Bergara Versailles modukoa"

David Zapirain
Bergara

Bergara Versailles modukoa. Hitz potoloak dira horiek. Garai batean erabiltzen zirenak.

Gaur halakorik esateko motiborik ba al dugu?

Lehenengo erantzuna ezezkoa da.

Horrelako konparaketa egitea tokiz kanpoko da. Eta hala izango da.

Hala eta guztiz ere, Bergara hiriko gune berdeek harrizten dute kanpotik Bergarara etortzen dena.

Izan ere, itxura industrialak eta hiriaren hazkundeak ez dituzte guztiz ezkutatu Bergarako lorategi historikoak.

Alderantziz, gune berde hauek oso nabari egiten dira, hauek ere eraldatuak badaude ere.

Lorategi pribatuak ez ezik, zuhaitziak eta parkeak Bergarako hiriaren nahitaezko osagaiak izan ziren.

Bizi kalitatea hobetzeko, aisialdirako, sozializatzeko, apaintzeko...

Honekin batera, Bergarako Gerriko Berdea (SL-GI-38).

Trikuharrien Bidea (PR-GI-94) zein auzoetako ibilbideak ditugu.

Bai eta hirian gure lorazainek prestatzen dituzten txokoak ere.

Beharbada, Versailles modukoa ez da izango gure Bergara.

Berdea bai, ordea.

Errekaldeko lorategia dugu bikainetakoa. Historia luzekoa, XIX. mendearen erdialdeko proiektua dugu egun gozaten dugun lorategia. Zona batzuetan baso kutsua duena.

Errotaldekoa zein Untzetakoa ere ez dira makalak, tamainaz zein espazioen banaketari begira.

Zer esanik ez Mariaren Lagundikoa ere.

Irizar Etxekoa txikia izanagatik oso berezia, XVII. mendean baratzea lorategi bihurtzea hiri eremuan eragiteko borondate argia azaltzen duelako.

Olaso etxekoak ere XIX. mendeko bitxikeria ugari ditu; besteak beste, magnolia.

Moiua-Barrena zein Laureagakoak harresiaren beste aldean geratzen dira, moja zaharren komentuen baratze ikusgarria bezala.

Laureagatik zatitu ondoren, Usondoko parkea sortu zen. Irizar eta Usondo lizarretako pasealekuren bidez lotzen ziren, itzalpean.

Bidebarrian Deba ondoko zuhaitziak horren ondorengoak dira.

Garai berekoa dugu Espoloia, hura ere zuhaitz peko paseoa, aisialdirako egokitua eta Untzagako berdea kanpoko aldera luzatzen zuena. Mintegiaren lorategiaren azken aztarnak ditugu, eta garai bateko itxura Munibe plazako panel informatiboan jaso...

Ondare bikaina eta bakarra dugu Bergaran.

Honekin disfrutatzeko doako bisita gidatuak antolatuta ditugu: lehena hilaren 20an izango da, euskaraz; eta bigarrena hilaren 21ean, gaztelaniaz, Europako ondare jardunaldiekin batera. Gero, Turismo Bulegoaren eskaintzan finkatuko dugu.

Bi egun horietan, Errekaldetik aterako gara, 12:00etan. Olaso eta Mintegitik

Untzeta eta Espolairantz joango gara. Buelta, bidegorritik; Laureaga eta Usondora. Handik, Errotaldera, Lizarreta eta Irizarenetik pasatuz. Gainera, Androiderako sortutako app baten bidez, nork bere kabuz egin dezake bisita. App honetan lorategiak Bergarako beste ibilbide batzuekin gurutzatuko dira. CIC Tourgune Ikerketarako Elkargoak eta Kultour enpresak sortu duten app-a da. Play Storen dago eskuragai, debalde da.

Tortura legala

Jon Otero Urizarren
Arrasate

Harrigarria, nola izango da tortura legala?

Ba bai, psikiatrian gertatzen da kasu hori.

Psikiatrick ematen dituzten farmako nazkante horiek legalak dira.

Ondo kalkulaturako tortura, frogarik uzten ez duena, besteek antzematen ez dutena, norberak bakarrik.

Zer sentitzen da farmako hauekin?

Bada, injekzio, pilula eta tantaka hauekin sentitzen da ahuldadea, lehenik eta behin.

Indar txikia du batek, mailadiak igotzea kosta egiten da.

Ni korrikalaria izan naiz gaztaro osoan, eta orain, nahiz eta gustatu, inolaz ere ezin dut.

Ezin zara errealizatu. Nortasuna galtzen da, bitalitatea.

Burua makurtzen duzu. Farmako batzuekin urduritasun kimikoa duzu. Gose ase ezina duzu farmakoekin.

Jateko gogo itzela. Anormala.

Horregatik ezin da gose grebarik egin.

Asko erreprimitu behar duzu ez gizentzeko.

Borondate psikikoa ahultzen zaizu.

Farmako psikiatrikoak erretzeko grina ematen du, ezin tabakoa utzi.

Ni ez nintzen erretzailea, baina...

Farmakorik gabe ez bezala, farmakoak hartzean depresioak ematen du, bizi izateko gogorik eza, heriotza goxo baten gogo.

Denekin bukatzeko gogo. Bizi izateko gogorik eza...

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrek erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Goiena Klubeko iraileko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



Telebista

32 hazbeteko LG Telebista.
Parte hartzeko sariaren izena: Telebista

Arrasateko hipermerkatua

EROSKI
zurekin



Otarra
Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra



Sarrerak
Arrikutz kobak bisitatzeko, 6 sarrera
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



Argiako jokoak
Atlantika 2 joko
Parte hartzeko sariaren izena: Jokoa

argia

PARTE HARTZEKO:

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

SMS: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartze, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!


DUELA 10 URTE

2004-09-03

Antzuolako haurtzaindegiko lanak

2004ko uztailean egindako osoko bilkuran onartu zuen Antzuolako udalbatzarrak haurtzaindegia eraikitzeko lanak esleituko dituen baldintzen plegua. Hala, lanak abuztu hasi zituzten, eta irailean jarraitu.

Herri ikastetxeari atxikia, jolastokiaren ondoan eraikitzea erabaki zuten. Haurtzaindegia egokitzapen lanak Udalak bere gain hartu zituen; eta, hain zuzen, 30.000 euroko inbertsioa egin zuten.



Haurtzaindegia egokitzeko lanak. | AINTZANE IRIZAR

2004-09-03

'Aupa Etxebeste' filmaren grabazioa

Asier Altuna *Kixi*-k eta Telmo Esnalek Bergarako kaleetan barrena *Aupa Etxebeste* film arrakastatsuen grabazio-lanak egin zituzten orain dela hamar urte. Aktore ezagunak ikusteko aukera izan zuten bergararrek: Iban Garate, Elena Irureta, Ramon Agirre... Bergarako Udal Bandak ere izan zuten bere papera; izan ere, Bergarako kaleetan San Martin martxan jo zuten, herriko jaiak balira bezala.

DUELA 5 URTE

2009-09-28

Maidar Undak brontzea

Danimarkan jokatu zen borroka libreko Munduko Txapelketan Maidar Unda aramaioarrak brontzezko domina eskuratu zuen.

Final-laurdenean galdu arren, bigarren aukera aprobetxatu eta bi borrokaldi irabazita lortu zuen domina Undak. "Asko borrokatu behar izan dut, baina, azkenean, ametsa egia bihurtua da", zioen.

ANTZUOLA

HERRITARRAK

Agurtzane Toledo 27 urte daramatza Agurtzane Toledok Izarre negozioarekin. Deban bizi den arren, egunero-egunero herritarrei zerbitzua eskaintzera etortzen da herrira antzuolarra. | MAIDER ARREGI

"Gauza zaharrei balioa ematen hasi gara berriro krisiaren ondorioz"

Antzuolako komertzioa ondo ezagutzen du Agurtzane Toledok. 1987an ireki zuen Izarre denda Kalebarrenean, orain dela 27 urte. Ez da geldirik egoten den horietakoa eta beti dago zerbait berria ikasteko prest gero herritarren eskura jartzeko. Harekin elkartu gara krisiaz, komertzioen egoeraz eta bere lanaz jarduteko. **Urte askoan herritarrei zerbitzua eskaintzen zabilta.**

27 urte egingo ditut herritarren zerbitzura. Kalebarrenean hasi nintzen eskualdatzean hartutako mertzeriarekin lanean. Garai hartan, jertseak egiten zituen bertako emakumeak, eta jarraipena eman nion. Baina lokal handiagoa eta erosoagoa erosi nahi nuen. Hala, gure aitak eta Kutzak diruz lagunduta, Herriko Plazara etorri nintzen nire proiektua aurrera ateratzera, Biskalatzako etxearen lokalera, hain zuzen. **Beti ikasten zabilta; ez zara geldirik egoten zaren horietakoa.**

Bai; gainera, ikasten dudana guztia dendara ekartzen dut, herritarren eskura. Orain, josten ikasteko ikastaroak eskaini nahi ditugu. Hori iraganean egiten zen, baina berriro hari gara lehenengo garaietara bueltatzen. Gauza zaharrei balioa ematen hasiak

"Ez naiz geldirik egoten, beti nabil gauza berriak ikasten"

"Lokalen jabeak konpromisoa izan behar dugu herritarrekin"



Toledok zaharberitze lanak egiteko zerbitzua dauka; orain, joste ikastaroak hasteko asmoa dauka. | MAIDER ARREGI

gara krisiaren ondorioz.

Zaharberitze lanak egiten dituzu. Betidanik eskaini dut zaharberitze zerbitzu hori. Beti izan dut, gainera, herriko jostunekin hartu-eman. Hona etortzen ziren botoiak, kremaierak edota hariak erostera. Biskalatzako izeba batek, hain justu, jostun lanak egiten zituen aurretik hemen. Orain, zaharberitze lanak gehiago baloratzen dira. Lehen, haria eta botoiak erosita josten irakasten zen; gaur egun, ordea, kobratu egiten da irakasteagatik. Diru aldetik ez zen baloratzen; orain bai. Jostunek konponketekin dute lana, ez arropa egiten. Diruari asko begiratzen zaio. Ondorioz, krisi garaiak zerbitzu hau indartu egin du. Liburuekin ere berdina gertatzen ari da: jendeak berrerabili egiten ditu berriak erosi beharrean. Nik dendan ditudan bezeroekin konpartitzen ditut, esaterako.

Herriko komertzioa nola ikusten duzu? Krisiak eragin dio?

Antzuolako komertzioa? Oso gaizki. Baldintza onetan ez bada komertzioa zabaltzen, ezin du

aurrera egin. Nik laguntza izan dudana moduan, beti izan dut besteei laguntzeko joera aurrera egin dezaten. Herrian oso komertzio gutxi daude. Jendea kanpo-

ra joaten da erostera; dena den, joera hori beti egon da eta beste herri batzuetan ere horrela dela esango nuke. Hala ere, nik uste dut lokalen jabeak garenok konpromisoa izan beharra daukagula herriko jendearekin eta zerbitzua eman behar diegula. Une honetan, esaterako, kontsumo taldearen parte naiz eta konpromisoa daukat herritarrekin zerbitzua eskaintzeko orduan. **Iriologo eta dietista gisa ere egiten duzu lan.**

Kontsultak ditut eta jendea arreta eskaintzen diot behar duen zerbitzua eskaintzeko. Nire ogibidea da. Esan dudana moduan, nahiz eta mertzeriarekin hasi, ez naiz inoiz geldirik egon, beti ikasten jardutea gustatzen zaiteta. Kontsultak Zarautzen ditut. Talde bat gara eta batzuetan kanpoan ibiltzen naiz. Dena den, norbaiti zerbitzua eman behar badiot, Antzuolara etortzen naiz.



BISKALATZAKO ETXEA Jesus Etxeberria Biskalatzako semea da eta bertan bizi da. Etxeberria arduratzen da Izarre negozioa zaintzeaz Toledo kontsulta pasatzen dabilenean Zarautzen. "Bertakoa da Jesus", dio.

NIRE HERRIAN

NAGUSIEN JAKITURIA

Herriko onena jende nagusiarekin hitz egitea dela dio: "Asko irakasten digute; Antzuolako historia dakite. Herriko kontu askoren gainean ez dakigu ezer; haiek ez badigute esaten, guk ez genuke jakingo. Adibidez, lokal honetan gerra aurretik taberna bat zegoela kontatu dit emakume heldu batek".

HERRIKO TXUTXU-MUTXUAK

Gezurak azkar zabaltzen direla herrian eta ez zaizkiola batere gustatzen azpimarratu du Toledok: "Jendeak nahi duena sinisten du; gainera, nahiago dute gezurra sinetsi egia sinetsi baino. Gezurak oso azkar zabaltzen dira; egia ez, ordea. Hori ez zait batere gustatzen. Egiaz ez dute hitzik egin nahi".

HERRIAK

ESKORIATZA

Garagardo festa solidarioak Eskoriatzako plaza jendez bete du

- ▶ Zaharren egoitza berritzeko obrei aurre egiteko lau eguneko ekimen solidarioa da
- ▶ Obrak hasi dira dagoeneko, eta, hiru fase diren arren, lehenengo fasea beharrezkoa da

IMANOL BELOKI |

Irailaren 18tik 21era iraungo duen garagardo festa solidarioa hasi da dagoeneko Eskoriatzako plaza. Ekimen hori zaharren egoitzako obrei aurre egiteko prestatu dute, eta, beste urte batzuetako arrakasta ikusita, aurten ere halakoxea espero da.

Edateko gustu askotariko garagardoak izango dira: alkohol-dunak, alkohol bakoak eta aurten berezitasun izango diren garagardo limoiarekin eta Zer'b artisaugardoa. Jateko ere aukera zabala izango du nahi duenak: Alemaniako jakiak, oilasko izterrak, herritarrek prestatutako tortilla pintxoak...

Bestalde, garagardoa edanez ekimenean parte hartzen ez dutenek ere izango dute aukera parte hartzeko; izan ere, tonbola solidarioa prestatu dute, herritarrek etxetik ekarritako materiala zozketatzeko.

Tonbola solidarioa

Herritarrek ekarritako materialak bi zatitan banatu dituzte: haurrentzat diren objektuak eta nagusientzat diren objektuak. Hala, gauza bakoitzak zenbaki bat izango du eta euro baten truke txartel bat erosten duenak opari bat eskuratzeko aukera izango du. Berez, bigarren esku azoka egitea zen asmoa, baina, jendearen parte-hartze handia ikusita, tonbolarekin aurrera jarraitzea pentsatu dute antolatzaileek.

Herriko plazan izango den



Aurtengo Garagardo festa solidarioa antolatzaileak karpa eta barra egituratzen | IMANOL BELOKI

Zaharren egoitzako obrak hasi dituzte dagoeneko

Hiru fase izango dituzte zahar etxe obrek, eta dagoeneko hasi dira. Obra nagusia edo lehen fasea duena azpiko solairuan dauden gelak desagerraraztea izango da, lehen fasea. Beheko gelek ez dute beharrezko neurrik eta gela berriak egingo dituzte azken solairuan, mojak zeuden gela bezala ezagutzen den solairuan. Bertan lau gela individual egingo dituzte, eta, behin fase hori eginda, Diputazioarekin hitzartutako plaza guztiak neurri egokian egongo dira.



Obrak hasita daude. | IMANOL BELOKI

Bigarren fasean, berriz, hutsik geratuko den azpiko solairuan egongela handi bat egin nahi da. Jangelako gunea handitu eta estruktura aldaketa batzuk egin nahi dituzte, hain zuzen ere.

Hirugarren fasean, aldiz, lehenengo solairua egokituko da, paretak kendu, pasilloak zabaldu eta espazio zabalagoa izateko. Izan ere, asko gurgildun aukietan, taka-takan... dabilta. Hala eta guztiz ere, lehenengo faseari ematen diote garrantzia, beharrezkoa ikusten dute-eta.

ESANAK

"Aldez aurretik eskerrak eman nahi dizkiet ezere truke parte hartzen duten elkarteei"

DORLETA SOLOGAIZTOA | ZAHARREN EGOITZAKO ERIZAIN ZUZENDARIA

DATUA

2.430

LITRO

82 upel izango dira aurten mota guztietako garagardoekin osatuta. Guztira, 2.430 litro garagardo izango dira.

festa giroan musikak ere presentzia izango du. Joan den urtean hainbat musika talde izan ziren kontzertuak eskaintzen, baina aurten rantxera talde bat bakarrik izango da; izan ere, aurreko urtean garagardo festako karpan afaltzen egon zirenek diote musika taldeek zarata handiegia egin zutela; horregatik, rantxera talde bat bakarrik izango da.


ADITUAK IGOGAILUAK INSTALATZEN ETA ZERO KOTARA JAISTEN

ERAIKUNTZAK ETA BIRGAITZE-LANAK PROIEKTUAK, BARNE DISEINUA, ITE, CEE...

LOKAL ETA ETXEBIZITZEN ZAHARBERRITZEA FATXADAK ETA ESTALKIAK

ENERGIA ERAGINKORTASUNERAKO SOLUZIOAK GILTZA ESKURA ERAKO PROIEKTUAK AURRETIAZKO AZTERKETAK KOSTURIK GABE


ERAIKIN PROJECTS

www.igosl.com

943798864

696159959

ELKANO kalea, 3 20500 ARRASATE

Takolo eta Goiru arteko gunea berriro urbanizatzeko plana aurrera, aho batez

Urtea amaitu baino lehen hasiko dira lanak; oinezkoei emango zaie lehentasuna

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Takolo eta Goiru arteko errepidearen zeharbidea berriro urbanizatzeko eta kale izaera emateko proiektua aho batez onartu zuen udalbatzak martitzeneko osoko bilkuran. Bederatzi fasetan egingo dira lanak eta aurrekontu osoa ia sei milioi euro da -5.817.078 euro, BEZa barne-.

Proiektuak Arrasate eta Aramaio arteko GI-2620 errepide zaharrea eragin nahi du, Takoloko biribilgunean hasi eta Garaia ingururaino. Diputazioak zuen errepide hori mantentzeko eskumena, baina urte hasieratik Udala da haren jabea. Hala, orain gutxira arte zirkulazio bidea izan dena herriko kale bihurtu gura dute, mugikortasun eredu berri bat sustatuz, eta oinezko zein bizikletei lehentasuna emanez.

Proiektu "potoloa"

Bederatzi fasetan egiteko bi arrazoi nagusi eman ditu hirigintza zinegotzi Joxe Etxebarriak: "Bate-tik, guztia batera ezin delako egin eta, bestetik, ze zatiri heldu orain erabaki behar delako. Hirigintza batzordean aurrera doa". Lehen lanak Udala eta Foruen plaza arteko gunean egingo dira eta urtea amaitu baino lehen hasiko



Foruen plaza inguruan hasiko dira lanean. | JOKIN BEREZIARTUA

dira. Etxebarriaren arabera, proiektu "potoloa" da: "Osotasunean hartu ezkerko proiektu potoloa da eta orain ikusi behar dena

da zenbat urtetan egingo den. Gure nahia da tarte zailenetik hastea, ez diogu arazoari ihes egingo. Lanik potoloenetatik ekin gura dugu".

Proiektua aho batez onartu zen arren, eztabaidak izan ziren osoko bilkuran. EAJko Juan Karlos Garitanok, esaterako, lehen fase horretan erabiltzaileei ahalik eta kalte txikiena egiteko azterketa bat eskatu zuen. Etxebarriak erantzun zion, gainerako obretan moduan, prozedura izango dela lanak pixkanaka egitea, betiere erabiltzaileei "ahalik eta kalte gutxien" sortuz.

ESANAK

"Zailenetik hasi gura dugu, ez diogu arazoari ihes egingo"

JOXE ETXEBARRIA | HIRIGINTZA

Hainbat nobedade ikasturte berrirako kirol eskaintzan

T.M. / J.B. | ARRASATE

2014-2015 ikasturterako kirol eskaintzak hainbat berrikuntza izango ditu, Aukeak asteon iragarri duenez. Bost jarduera mota bereizten dira: lasaiak, aktiboak, herritar konkretu batzuei bideratutakoak, kanpoan egitekoak eta urarekin lotutakoak. Hala, jarduera lasaien artean, *k-streicht* eta gizon zein emakumeendako aproposa izan daitekeen gimnasia hipopresioa egin ahalko dira. Zumba ere egin ahalko da, eta haur eta gazteei zuzendutako pilates, zumba eta spinning saioak ere egongo dira. Kanpoko ekintzei dagokienez, *nordic walking* delakoa da aurtengo berrikuntza. Eta urarekin

lotuta, lau ekintza berri batu dira ohiko eskaintzara.

Gimnasio aholkularitza

Aurten, gimnasio aholkularitza zerbitzua eskainiko du Edorta Bolinaga profesional arrasatearra. Erabiltzaile berriendako entrenamendu aproposak prestatuko ditu, eta baita makinaren funtzionamendua azaldu ere: "Jende asko ez da etortzen makinak ez dakielako erabiltzen; ea zerbitzu honekin jende gehiago datorren", dio Bolinagak. Gainera, zerbitzua ez da hasiberriendako bakarrik izango. Orain arte erabiltzaile direnen zantzak argituko ditu Bolinagak, eta baita herriko kirolariei euren prestaketan lagundu ere.



Juani Errasti teknikaria eta Edorta Bolinaga aholkularia gimnasioan. | T. MADINA

Eta uda ostean ere azala distiratsu izan dezazun

AURPEGI GARBITZEA*
15€

AMAGARA RPS: 228/10
Erdiko kalea 54 behea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09
www.amagaraestetikazentroa.es

* Eskaintza baliagarria urriaren 13ra arte.

Moxal-okela protagonista baserritarren azokan

Biharko ferian hamalau postu egongo dira, Seber Altuben (09:00-14:00)

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hileko hirugarren zapatua izanik, baserritarren azoka egingo da bihar Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara: "Iraila hilabete polita da ortuko produktuendako, udako jaki ugari daude oraindik. Ea herritarrek ondo erantzuten duten", adierazi du Udaleko Enplegu eta Garapen Saileko teknikari Marga Garmendiak.

Hamalau postu egongo dira biharko baserritarren azokan. Arrasateko, bailarako eta Euskal Herriko beste txoko batzuetakoak ere egongo dira oraingoan ere. Azken horien artean dago lehenengoz etorriko den Nafarroako saltzaile bat: "Tipula gorria, Tolo-sako piper lehorrak, berakatzak eta Nafarroako arroza ekarriko ditu. Salmenta puntu hau ezagutu gura du", dio Garmendiak.

700 eta 800 pintxo artean

Baina biharko protagonista nagusia moxal-okela izango da (zaldi gaztea). Izan ere, Udalak okela hori ezagutzera emateko sentsibilizazio kanpaina abiatu berri du: "Orain dela gutxira arte herrian ezaguna zen moxal-okela berreskuratu gura dugu", adierazi du Ingurumen teknikari

Pello Garaik. Okela nolakoa den dastatzeko moxal bat erreko dute burruntzian –gaur 22:00etan hasiko dira erretzen–, Seber Altuben bertan. 700 eta 800 pintxo artean banatuko dira (12:00) eta behorrak, moxalak eta zaldiak ere erakutsiko dituzte: "Gure mendietan dagoen ganaduaren ordezkaritza txiki bat ekarriko dugu".

Gainera, moxal-okelaren bi sorta zozketatuko dituzte erosketa bat egiten dutenen artean, eta hileroko zozketa egingo da. Gainera, Ibai-Artek saskiak banatuko ditu sarituen artean (13:15).

Okela "oso osasuntsua" da

Moxal-okela, Garairen arabera, "oso naturala eta osasuntsua" da: "Mendian libre hazten dira eta okelak propietate mordoa ditu: gantz gutxi, proteina mota oso ona, burdina kopuru handia... Hainbat medikuk gomendatzen dute haur, heldu zein kirolariendako; ona da digeritzeko".

Era berean, Garaik aurreratu du Debagoieneko Jardunaldi Gastronomikoen barruan moxal-okela izango dela produktu izarra: "Hainbat modu daude moxal-okela prestatzeko", dio.



Uztailan egindako baserritarren azoka. | GOIENA

Eskoziako bandera udaletxean, Bilduk, EAJk eta Aralarrek jarrita

J.B. | ARRASATE

Eskoziarren "askapen prozesuarekin" bat eginez, adierazpena onartu dute asteon Bildu koalizioak, EAJk eta Aralarrek. Eskoziar herria zoriondu eta atzoko erreferenduma "herrien askatasunaren aldeko atzeraezineko

prozesua" dela uste dute. Begirune horren erakusle, San Andresen gurutze ezaguna eskegi zuten atzo udaletxeko fatxadan, "ikusgarri eta lehentasuneko" izan den tokian.

Atzokoa, "urrats garrantzitsua"

Bilduren, EAJren eta Aralarren ustez, atzoko erreferenduma "beste urrats garrantzitsu bat" da "herrien askapen prozesuen ibilbidean". Eskoziarrak dagoeneko euren etorkizunaren jabe direla adierazi dute hiru alderdiek adierazpen bateratu adostua: "Laster baten, Kataluniak, Euskal Herriak eta munduko beste hainbat nazioak ere erabakitze eskubidea egikaritu dugu", diote.



Eskoziako bandera jarri zuten atzo udaletxeko balkoian. | JOKIN BEREZIARTUA

Lander Juaristi | Txatxilipurdiko Gazte Saileko koordinatzailea

"Nerabeekin lan egitea zoragarria izan daiteke, guk asko ikasten dugu"

Hasi da ikasturtea herriko hiru gazte txokoetan; erdigunekoa gaur irekiko dute, 18:00etan

J.B. | ARRASATE

Asteon hasi dute ikasturtea gazte txokoetan, eta erdigunekoa gaur irekiko dute. 1994ko irailean Musakolakoa eta San Andreskoa ireki ziren eta 1998ko abenduan, berriz, Erguingoa. Azkenik, erdigunekoa duela hiru urte ireki zuen Udalak. Orain arteko ibilbideaz eta aurtengo ikasturteaz egin dugu berba Lander Juaristi koordinatzailearekin (Bergara, 1979).

Ze balorazio egiten duzu orain arteko ibilbideaz?

Nerabe eta hezitzaile asko pasa dira gazte txokoetatik eta proiektu, eztabaida, tailer, eskulan eta elkarriketa asko entzun eta ikusi dituzte bertako horiek. Garai baten nerabe izan zirenek orain euren hezitzaile izan zen bati kalean ikusi eta adierazten dioten esker ona eta gordetzen dituzten oroitzapenak adierazten digute zerbait, behintzat, ondo egin dugula.

Zenbat aldatu da lan egiteko modua?

Gizartea abiada bizian doa aldatzen eta nerabeak izaten dira aldaketei bizkorren erantzuten dietenak. Gu euren atzetik goaz. Gu aldatu gara, eta baita gure lan egiteko moduak ere. Ikasten eta aldatzen jarraituko dugu gure proiektu hezitzailea ahalik eta egokien betetzeko.



Lander Juaristi. | JOKIN BEREZIARTUA

Ze mesede egin dizue duela hiru urte irekitako gaztegunek?

Udalaren apustu garrantzitsua izan zen. Herrian nerabeen aisialdiak zuen hutsuneari erantzun zion eta gure proiektua beste esparru batean garatzeko aukera eskaini digu. Askok dugu hobetzeko, baina bide onean goaz.

Gogotsu ikasturte berrirako?

Bai. Nerabeekin lan egitea gogorra izan daiteke, baina baita zoragarria ere. Nerabezaroa da bizi-tzako garairik sortzaileena; asko ikasten dugu eurekin. Ikasturte honetan San Andres eta Erguingo gazte txokoei dinamika berria eman gura diegu eta auzoko bizi-tzan eragin. Ekintzak nerabeekin batera erabakiko ditugu; seguru aurtan ere zerbait berritzailea irtetzen dela!

Elkartasun Eguneko zenbaki sarituak izan dira 1.332 eta 5.271

Euskal presoen eskubideen aldeko Elkartasun Eguneko zenbaki sarituak izan dira 1.332 eta 5.271. Lehen zenbakiaren jabeak sei lagunendako afaria irabazi du Udako Larrinetxe jatetxean. Bigarren sarituak, berriz, bi lagunendako aste bukaera bat irabazi du Arantzako aterpetxean.

Mendian hildakoak gogoratzeko Oroimen Eguna etzi Besaiden

1955a ezkerro hutsik egin gabe antolatzen den Oroimen Eguna ospatuko dute etzi Besaiden. 11:00etan hasiko da ekitaldia; txalapartariak, bertsolariak eta dantzariak izango dira eta azken urtean mendian hildakoak gogoratuko ditu federazioko kide batek. Jatekoa eta edatekoa ere egongo da.

arbolapeta

arrasate

beinke

MERENDERUE

MARITXUTARAKO MENU BEREZIAK

27 € eta 35 €
AUTOBUSA BARNE

Lekua hartu
irailaren 28a baino lehen
943 77 15 86

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogo

Diagnostikoa - Orientazioa	Laguntza eskolarrak
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak	Estimulazio goiztiarra
Arreta psikologikoa genero indarkerian	Logopedia
	Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

NAFARROAKO PIPERRAK

Arrasaten egosita

Eroski hipermerkatuaren parkingean gaude

609 21 00 62

Josu Pereda | Ingurumen zinegotzia

"Bizikleta-bide sarea osatzen joatea da Udalaren lehentasuna"

Mugikortasun Astearen barruan, astelehenean, Etxaluze-Musakola bizikleta bideak dituen aukeren gaineko erakusketa zabalduko dute Kulturaten

A.A. / J.B. | ARRASATE

Mugikortasun Astea da oraingoa, eta aurten bizikleta du ardatz. Zapatuan bigarren eskuko bizikleta azoka eta domekan itzulia egingo dute. Horrekin batera, astelehenean Arrasateko bizikleta-bideei buruzko erakusketa irekiko dute Kulturaten. Etxaluze-Musakola ardatzak dituen aukeren berri emango da, eta herritarren usteak jasotzea da asmoa, bizikidetzari begira.

Herriko bizikletazaleen hitzordua domekan da, ezta?

Hala da. Aurten, gainera, Bizipozaren Jaiaren barruan egongo da txertatuta. Parte-hartze polita izaten du urtero. 10:00etan izango da irteera, Monterrondik. Zubillagara joango gara bidegorritik eta han Oñatikoekin bat egingo dugu; mokadutxo egin eta buelta.

Nobedadea, baina, bizikleta-bideekin lotutako erakusketa da.

Erakusketa hau Etxaluze paretik Musakolako kiroldegirainoko bizikleta-bidearen alternatibak aurkezteko da. Bidei enpresari esleitu zitzaion zati horren alternatiben proiektuaren garapena. Hamazazpi tartetan banatu da bidea eta aukera ezberdinak erakusten dira. Herritarren parte-hartzea bilatzen dugu. Bizikidetzaren lortzea da helburua.

Bizikleta-bideei dagokienez, zer jasotzen da Mugikortasun Planean?



Josu Pereda zinegotzia. | GOIENA

Bai plangintzan bertan zein iraunkortasunari buruz egindako jardunaldietan, garrantzitsutzat jo da. Planaren berrikuspen fasean gaude gaur egun. Eta, hain zuzen ere, bi ardatz daude Arrasaten: Gesalibartik kiroldegira doana, oinezkoentzako zumardia erabiltzen duena, eta hegoaldekoa, oraindik osatu barik dagoena. Udal honen lehentasuna da sare hori osatzen joatea.

Zer da Mugikortasun Mahaia?

Bizikidetzaren oinarri hartu nahi badugu, ezinbestekoa da partaidetza. Helburu horrekin, mugikortasunarekin harremana duten taldeei zuzeneko deia egingo zaie, eta interesa duen edozein herritar ere etor daiteke. Asmoa da hil honen amaierarako lanean hastea. Erakusketa edo udalerekin eman daiteke izena.

kortasunarekin harremana duten taldeei zuzeneko deia egingo zaie, eta interesa duen edozein herritar ere etor daiteke. Asmoa da hil honen amaierarako lanean hastea. Erakusketa edo udalerekin eman daiteke izena.

Azoka eta bizikleta itzulia

Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, izango dira aurtengo Mugikortasun Asteko ekitaldi nagusiak. Bigarren eskuko bizikleta eta material azoka 11:00etan irekiko dute, Mondragones kalean, 15:00ak arte. Biteri plazan, oster, jolasak egongo dira umeentzat eta baita emisio txikiko ibilgailuen erakusketa ere. Domekan bizikleta itzulia egingo dute. Monterrondik irtengo da taldea, 10:00etan, eta, hain zuzen ere, Zubillagarainoko ibilbidea egingo dute (Oñati).

Venezuelako etorkizuneko erronkei buruzko hitzaldia gaur, 19:00etan, Irati tabernan

Coordinadora Simon Bolivar taldeko eta Pakito Arriaran Fundazioko kide Guadalupe Rodriguez irati esatariak hitzaldia egingo du gaur, 19:00etan, Irati tabernan, Askapena erakundeak eta Irati tabernak berak antolatuta. Iraultza bolibartarrari etorkizuneari aurkeztzen zaizkion erronkei buruz jardungo du Rodriguezek. Simon Bolivar koordinadorearen *Al son del 23* irratsaioeko esataria da Rodriguez, eta, hain zuzen, Chavez presidentea zenaren ondarearen sustapena eta iraultza-ren hedapena du helburu irratsaio horrek. Hitzaldia irekia izango da, interesa duen edonorentzat.

Hitzaldiaren ostean, afaria egingo dute Irati elkartearen bertan. Afarirako txartelak salgai daude tabernan bertan.

Palestinarentzako anestesia makina bat erosteko 2.000 euroko laguntza eman du Udalak

Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Donostiako Udalarekin bat eginez, 2.000 euro utziko ditu Palestinako Aginte Nazionalaren eskuetan, anestesia makina bat eros dezaten. Herritarrei ere laguntzarako deia zabalduz, kontu korrante bat ipini dute eskura, pertsonalki ere ekarpena egin ahal izateko. Guztira, 30.000 euro balio duen anestesia makina erosteko 2.000 euroko diru laguntza bideratu dute Udaletik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren elkartasun ekimenarekin bat eginda. Zisjordaniara bidaliko dute laguntza eta han Palestinako Osasun Ministerioaren eta Gurutze Gorriaren esku utziko dute. Diru-batzean ekarpena egin gura dutenek Kutxabaneko 2095 0611 01 9114122391 kontuan utz dezakete dirua, Udaletik jakinarazi dutenez.



TWITTER

Musakolatik Europara

Musakolako erretiratu talde batek bisitaldi berezia egin zuen joan den astean. Bruselan izan ziren, eta bertan, Europako Parlamentuko egoitzetako bat ikusteko aukera izan zuten. Ikurrina eroan zuten, Gure Esku Dago ekimenaren elastikoak jantzi eta, zelan ez, banderaren erdian ipinita auzoko ikur duten astotxoak erakutsi zuten, Europako instituzioen bihotzeraino bertaraino.



Josexo Aranzabal

2014 - 2015
ikastaroak

PLAZAKO DANTZA TRADIZIONALA

URRIA - MAIATZA / Hasiera: Urriak 6

1. maila: Asteazkena 19:30

2. maila: Astelehena 18:00

Dantza-txokoak: astelehena / asteazkena

Informazioa eta egitarauak: www.herrixadantzan.com

IZENA EMATEKO EPEA: Irailak 26

AED: 943 77 12 28 / GAZTE BULEGOA: 943 25 20 65
HERRIXA DANTZAN: herrixadantzan@gmail.com

Antolatzailea:




Laguntzaileak:



Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50PUB
HAIZEA

arrasate

Amaia antzokia gertu dago Donostiako Orfeoiko 80 abeslariak hartzeko

Habanerak, zarzuelak eta euskal kantuak tartekatuko ditu orfeoia Amaia antzokian

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Dena gertu dago biharko emanaldirako. Goikobaluren 25. urteurrenaren ospakizunen barruan ekitaldi bereziena, edo, gutxienez, entzutetsuenetakoa da Donostiako Orfeoia bihar 20:00etan eskainiko duen kontzertua. Oraindik ere sarrerak salgai dauden arren, salmenta nahiko ondo joan dela aitortu du Juan Antonio Barriocanalek, Goikobaluko lehendakariak. Eguaztenean egon ziren Donostiako Orfeoiko arduradunak Amaia antzokian emanaldirako egitura antolatu eta beharrezko guztia gertu zegoela ziurtatzeko.

Hasieran Goikobalukoek kantu bat orfeoiarekin abesteko asmoa zuten arren, azkenean atzera egin dute; izan ere, Donostiako Orfeoia 80 bat abeslarirekin igoko da Amaia antzokian eta "jende nahikotxo" dela erabaki zuten. Gainera, protagonismoa orfeoia dela gaineratu du Barriocanalek.

Donostiako Orfeoia sasoi betean etorriko da bihar, udan Europan zehar hainbat emanaldi eskaini ostean; besteak beste, Montpellierren eta Rotterdamen.



Donostiako Orfeoia zuzeneko emanaldi baten. | DONOSTIAKO ORFEOIA

Amaia antzokiko emanaldia Sainz Alfarak zuzenduko du eta piano-jole lanetan Amaia Zipitria egongo da. Errepertorioan, habanerak, zarzuelak eta euskal kantuak tartekatuko dituzte.

'**Carmina Burana**' martxan Bestalde, *Carmina Burana* obraren entseguak martxan daude dagoeneko. Mimo bereziz prestatuko dute estreinaldia eta hainbat sorpresa egongo dira; tartean,

Barriocanalek esan zuen desagerturiko Tolosako Abesbatzako partaideak ere animatu direla. Horrez gain, etxeko abeslari ohi askok *Carmina Burana*-n parte hartzeko entseguetan buru-bela-

rrri dabilta eta oraindik ere animatu ez direnei berriz ere egin diete deialdia; martitzenetan 20:30etik 22:30era eta eguenetan 20:00etatik 22:00etara Saiolaneko eraikinean duten lokalean.

Mailaz igotzeko helburuarekin hasiko dute liga Gotzon Urzelaireren mutilek

Partiduz partidu joatearen garrantzia azpimarratu dute klubetik

J.D. | ARRASATE

Ilusioaren denboraldia hasteko prest daude Mondrako mutilek. Tolosa B-ren aurkako norgehiagokak estreinatuko du Urzelaireren bigarren denboraldia eta jokalariek ligari ekiteko gogotsu daude.

Mojategin jokatu dute estreinako partidua zuri-moreek domekan, 16:30ean, eta liga hasia beti bada garrantzitsua, lehenengoa zale arrasatearren aurrean jokatzeak indarra emango die. Tolosako talde gaztea da, eta horrek, askotan, irregularitasun puntu



Arrasate Hiria txapelketa. | GOIENA

bat dakar. Edozelan ere, etxekoek lan bikaina egin dute denboraldi-aurrean eta konfiantzarekin hasiko dute.

Aulkian badago aukeratzekorik Hasiera baten, jokalariek gehienak bere aginduetara izango ditu Urzelaik; hala ere, azken orduko bajarik egon daiteke, baina aurreko jokalariek asko daude eta euren konfiantza osoa jarri dute bai entrenatzaileek, baita zuzendaritzakoek ere, helburu garbi batekin: mailaz igotzea.

Domekan 18:30ean jokatu dute MUKoek Euskal Kopa Iturripen

Martitzenean jokatu zuten MUKo mutilek Euskal Kopako lehenengoa eta 84-57 galdu zuten Zilarrezko LEB mailako Zornotzaren aurka. Atsedendira hamar puntugatik galtzen joan ziren, eta, galdu arren, Larreategi entrenatzailea pozik zegoen jokalariek egindako lanagatik, eta, astean zehar gogor entrenatzen jarraitu ostean, etzi etxean jokatu dute Santurtziren aurka.

Siti Siti

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

IKASTURTE BERRIAREN HASIERA!!!

BASLIDA

INGELESA

- PET.
- FIRST.
- ADVANCED.
- Irailtik aurrera, ikastaro trinkoak prezio ezin hobean!
- Azterketak Arrasaten bertan, Bastida akademian egiteko aukera.
- IRAILEAN INGELESEAN IZENA EMAN, ETA MATRIKULA DOAN IZANGO DUZU.



ESKOLA PARTIKULARRAK

- Lehen Hezkuntza
- Bigarren Hezkuntza
- Batxilergoa
- Sarbide probak
- Ingeniaritza
- Enpresa Ikasketak

INFORMATIKA

- Word.
- Excel.
- Access.
- Power Point.
- Mekanografia.
- Internet.
- Sistema eragileak.



Araba Etorbidea, 3 - 1 • 20500 • Arrasate • Tel.: 943 79 35 33
bastida@bastida.es • www.bastida.es

Musika Eskolaren barruan dantza eskola ere egongo da aurrerantzean

- ▶ Ahuldutako dantza zaletasuna piztea da helburua eta urrian abiatuko da ikasturtea
- ▶ Edu Muruamendiarazek egingo ditu koordinazio lanak eta Eneko Galdos izango da irakaslea

L.Z./M.B. | BERGARA

Dantza eskola sortu dute Musika Eskolaren barruan. Atzo, eguena, aurkeztu zuten egitasmoa Udalak, Musika Eskolako arduradunek eta Jardun euskara elkarteko ordezkariak.

Musikaz gain, dantza ikasketak ere eskainiko dituzte, beraz, aurrerantzean Bergarako Musika eta Dantza Eskolan. Diziplina berria 7 urtetik gorako umeendako izango da eta gaur, egubakoitza, zabalduko dute izena emateko epea. Astean bi saio aurreikusi dituzte, 45 minutukoak, adinaren arabera sailkatuta.

Urrian hasiko dira eskolak

Ikasturtea urrian abiatuko da eta eskolak Zabalotegiko Udal Euskaltegia izandako lokalean izango dira, nahiz eta bulegoa Musika Eskolan egongo den. Ikasturtean urrian hasiko da, eta, kuotei dagokienez, 32,5 euro izango da hileko; 17 euro hileko Musika Eskolako ikasleendako.



Proiektuaren bultzatzaileak egueneko aurkezpenean. | LARRAITZ ZEBERIO

Irakaslearen kasuan, Eneko Galdos dantzaria izango da; Zumarragako Irrintzi taldeko partaide eta koreografoa eta koordinazio eta jarraipen lana Edu Muruamendiaraz dantzari eta koreografo bergararrak egingo du.

Muruamendiarazek aurkezpenean azaldu zuenez, ikastaroa euskal dantza tradizionalan

oinarrituko da, baina berrikuntza ugarirekin: "Dantza tradizionalak ikasiko ditugu, hori da oinarria, baina, horrez gain, gauza berriak ere egingo ditugu, koreografiak egingo ditugu". Muruamendiarazek azpimarratu zuenez, helburua da herrian zegoen dantzarako zaletasuna berpiztea: "Jende gaztearengan

zaletasuna piztu nahi dugu berriz, hori da niretako helburu nagusia. Eta gazteek, azken urteetan bereziki, gauza berriak egin nahi dituzte", esan zuen.

Gainbehera irauli nahian

Leire Iruin Kultura zinegotziak azaldu zuenez, badira urte batzuk Udala eta Jardun elkarteak gaia

lantzen hasi zirela helburu argi batekin; ahuldutako dantza zaletasuna indartzea, eta, zentzu horretan, eskerrak eman zizkien orain arte lan horretan aritu direnei: "Herrian hainbat dantza talde egoteak eta bakoitza bere aldetik aritzeak dantza indartu ordez, ahuldu egiten zuela ikusi zen eta saiakera bat egin beharra zegoela eskola bat sortzeko".

Bestalde, gaur egungo joera diziplina ezberdinak batzea, "arte ederren eskolarantz jotea" dela esan zuen, eta, bide horretan, indargune gisa Musika Eskola ikusi zutela: "Herrian oso errotuta dago eta bere ibilbideak erakutsi du diziplina ezberdinen alde egin dutela emaitza oso txukunekin, Bergaran ez ezik, Euskal Herri osoan".

Musika Eskola ere baikor

Proba pilotu moduan aurkeztu zuen Edu Muruamendiarazek abiatzeaz dagoen lehenengo ikasturte hau, baina Musika Eskolan ere oso interesgarri ikusi dute dantza bertan izatea, Musika Eskolaren helburuendako oso aberasgarria delako: "Erritmoa, oreka eta kreatibitatea lantzen ditu dantzak, oso gaitasun interesgarriak musikariarentzat, eta, azken finean, azkenaldian egingako ikuskizun guztietan ere dantza integratzen ahalegindu gara".

Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko Musika Eskolara jo behar da.

Zerbait aldatzen ari da ARRASATEN

Aukera berriak!
Izan haien berri gure webgunean
www.sukia.com

ONGI
ETORRI

Bista ederrak
Atikoak 198.000 €-tik
hasita

Zatoz eta hitz
egingo dugu **600 902 224**





Udaleko eta Jarduneko ordezkariak San Martin plazan. | IMANOL GALLEGO

Herriko kirol eskaintza herritarrei erakutsi eta gerturatzeko aukera

Aste honetako ekintzen ostean, domekan izango da 'Kirola kalera' ekimenaren egun handia

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Bergarak duen kirol eskaintza zabala herritarrei helarazteko antolatu dute *Kirola kalera* ekimena. "Herritar aktiboak eta

kirolariak nahi ditugu, osasunaren eta pozaren alde egiten duten bergararrak", esan du Iñaki Ugarteburuk, Kirol teknikariak. Asteazkenean Agorrosin eta klubetan

egindako ate irekiekin motorrak berotu eta gero, domekan izango da egun handia.

Ikasturte hasiera ohiturak txertatzeko garai ona denez, hori guztia frogatzen lehenak herriko ikasleak izan dira. "Ikastetxe eta adin askotariko ikasleek saioak egin dituzte", azaldu du Lauri Askargortak, Kirol zinegotziak.

Domeka egun handia

Egun horretan, goizetik hasita, Seminarioa, Ibargarai eta Udal Pilotalekuko ingurua kirolez bete dute. Udalak eta gainontzeko kirol taldeek euren eskaintza kalean erakutsiko dute.

Horrez gain, Jarduneko antolatu duen *Euskaraz bizi nahi dut* martxarekin, elkarrekin euskara eguneroko bizitzan txertatu nahi dute. Horregatik, herriko beste talde batzuk bidelagun izatea ezinbesteko bultzada izango da. Martxa herriko kaleetan egingo da eta *Euskaraz bizi nahi dut* kamisetak erosteko aukera egongo da pilotaleku aurrean.

Datorren astean ere bai

"24an bueltatuko da Agorrosin ohiko jarduerara", dio Ugarteburuk. Martitzenera arte Agorrosingo atek zabalik jarraituko dute. Hilaren 28an, 09:00etan,

DATORREN ASTEKO EGITARAUA

ASTELEHENA, 22

08:00 Body balancea.

15:15 Hipo-pilatesa.

17:10 Fresstyle-DBH.

18:00 Body powerra.

19:00 Areto bizikleta.

20:15 GAP.

MARTITZENA, 23

09:30 Gimnasia seniorra.

17:10 Multikirola-DBH.

18:00 Zumba.

19:00 Crossfit-bosua.

20:30 Areto bizikleta.

Ekintzetan parte hartzeko, aldeztu aurretik izena ematea beharrezkoa da.

Batzokiak txosna jarriko du Forondan Alderdi Egunean

Irailaren 28an Alderdi Eguna ospatuko da Forondan. Urtero bezala, Bergarako batzokiak txosna jarriko du, eta bertan bazkaltzeko aukera egongo da. Bada, datorren domekako otordua herriko txosnan egin nahi dutenek aldeztu aurretik izena eman ahal izateko bide dituzte: batzokian bertan edo 943 76 47 00 telefono zenbakira deituta, hain zuzen.

Gaur hasiko dute Xabalote gaztelekuan ikasturte berria

Orain arte moduan, 12-17 urte arteko gazteei zuzendutako gunea izango da, eta, egindako ibilbidea errespetatuz, bertako hezitzaileak euskarazko aisialdi erakargarria eskaintzen saiatuko dira. Gaur, 18:00etatik 21:30era egongo da zabalik; zapatuan, 17:00etatik 21:30era; eta domekan, berriz, 17:00etan irekiko ditu ateak eta 21:00etan itxi.

Lorategi historikoak ezagutzeko bisita gidatuak asteburuan

Zapatukoa euskaraz izango da; domekakoa, aldiz, gaztelaniaz. Biak ere 12:00etan, Errekaldetik irtenda eta doan. Ondorengoak turismo eskaintzan finkatuko dituzte. Telefono adimendunendako eta tabletendako sortu berri duten aplikazio bati esker, aurretik, nahi duenak bisitak bere kabuz egin ahalko ditu.



MAIALEN TORRES

Patronoek trukea sinatu dute

Eguazteneko sinadurarekin, Aldundiak, Udalak eta UNEDek egoitza aldaketa betetzeko lehen urratsa egin dute. Diputazioak 1.717.000 euroko diru laguntza emango dio Udalari, Errege Seminarioaren eta Arrizuriagaren arteko trukea egiteko. Martin Garitano Gipuzkoako diputatu nagusiak, Jaione Isazelaia alkateak eta Iñaki Espartza UNED-Bergarako zuzendariak sinatu zuten hitzarmena.

Txapa Irratiaren denboraldi berrian parte hartzeko bilera irekia egingo dute etzi, domeka

I.G. | BERGARA

Bergarako irrati libreak bere programazioa eta ateak zabaltzeko nahi ditu. Horregatik, Txapa Irratiaren arduradunek bergararrak animatu nahi dituzte proiektu aske horren parte izan daitezen.

Domekan 18:30ean bilduko dira kartzela zaharrean, interesa duten guztiei informazioa emateko. Bada, irratiak azaldu dutenez, lagun batzuk elkartu, ordua aukeratu eta maneiatu behar diren "lau botoiak" ikastearekin nahiko da Txapa Irratiaren esatari ibiltzeko.

30 urte uhinetan

Dudarik gabe, aurtengo ikasturtea berezia izango da, denboraldi berriak dakartzan berrikuntza eta aldaketaz gain, Txapa Irratiak 30 urte betetzen ditu-eta. Urterren horretako ospakizunak zehaz-

tu aurretik, programazioa indartu nahi dute. Hortaz, ez laga pasatzen mundu osoko frekuentzia *mokoloanean* parte izateko aukera paregabea, FMko 97.2an!

BIODANTZA 626 66 12 92

astea IRAILA 15-29

ELKARTASUN GUNEAK IREKIZ

KLASE IREKIAK ETA DOAN

ARRASATE

- Asteazkena, 17. Arrasate Yoga Elkarte. 19:30-21:30.
- Osteguna, 25. La Merced ikastetxea. 18:30-20:30. (Euskaraz)
- Astelehena, 29. La Merced ikastetxea. 19:30-21:30.

ELORRIO

- Ostirala, 19. Txintxirri ikastola. 18:00-20:00.

BERGARA

- Astelehena, 22. Mariaren Lagundia ikastetxea. 18:30-20:30.

UGARTE

ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Sugoi

**ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...**

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK

**Eraikuntza
materialak**

Telleria (Labegarieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Gosari bereziak

09:00etatik zabalik!

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

Bertakoak bezain preziatuak diren jai herrikoiak

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Edozein herritarrek esan dezakeen esaldia da hori. Pentekosteak jai luzeagoak diren arren, sanmartinek bertakoendako xarma berezia dute. "Jai hauetan herrikoak batzen gara, gureak diren festak dira", dio bergarar batek.

Gazte, txiki zein nagusi, eguraldiak eta egitarauak lagunduta guztiak irten ziren jai az gozatzera. "Adin guztietako herritarrek

gozatzeko moduko egitaraua egiten saiatu gara", esan du Leire Iruinek, Kultura zinegotziak.

Ohituraren indarra

Sanmartinak tradizioz beteriko festak dira. Danborrada, bandaren kontzertua, feria... Arrakastaren sinonimo diren ekimenak izan ohi dira; danborrada, adibidez, gora egin duen hitzordu horietako bat da.

Gazteek ere euren tokia

Egitarau ofizialak eta Bergara Libre ekimenak gero eta arreta handiagoa jartzen diete gazteei. "Jende gazteak protagonismo berezia izaten du jaietan", azaldu du Iruinek. Gauzak horrela, gaueko kontzertuez gainera, egunean zehar gazteek eta kuadrillek ederto pasatu zuten.

Paella lehiaketan, esaterako, sei taldek eman zuten izena, eta

irabazleak *Poteo izarrak* taldekoak izan ziren. Eta nagusiagoek sokamuturrean parte hartu zuten neurrian, gaztetxoek Seminarioko patioan bigantxa eta poneyekin jolasteko aukera izan zuten.

Informazio gehiago: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Itxuraz paellak lan handia dauka.



Nagusien danborradak konpainia berriak izan zituen.



Txikiak asko gozatu zuten danborra jotzen.



Gazteek zezentxoak tentatzeko aukera izan zuten.



San Martin ere jaietan izan zen.



Urtero moduan, bandak emanaldi arrakastatsua egin zuen.



Suzko errubera ikusgarriak. | ARGAZKILARIAK: IMANOL GALLEGO, IMANOL BELOKI ETA AITOR MARAURI

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

UREDERRA

ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Txirrinkak ekainaren 13an eman zuen gosari sorpresa. | TXIRRINKA

Erdiguneko kaleak itxita egongo dira arratsaldean motordun ibilgailuendako

Bizikleten gaineko bideoak eta irteera ere bai, Mugikortasun Egunaren harira

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Erdiguneko kaleak ibilgailuendako itxiko dituzte gaur, egubakoitza, eguerditik gauera arte. Hala, 12:00etatik aurrera, hesiak jarriko dituzte Ramon Irizar kalean eta Txaketuena tabernako bidegurutzean, motordun ibilgailuak erdiko kaleetara sar ez daitezten.

Hamar bideo

Mugikortasun Egunaren barruan Oñatin egingo den ekintzetako bat izango da hori. Baina ez bakarra. Izan ere, gaur goizean Txirrinkakoak gosaria ziren eskain-

tzekoak lanera bizikletan joan direnei. Ohi den moduan, Txaketuaneke kantoian, 07:00etatik 09:00etara. Arratsalderako, berriz, bideo emanaldia eta pintxo-tertua antolatuko dituzte.

Bizikletaren askotariko erabilera eta edozein norbanakok bizikletarekin duen lotura azaltzen eta erakusten dituzten bideoak emango dituzte, 19:00etan, Santa Ana antzokian. "Hamar bideo motz dira, guztira, eta ordubeteko iraupena izango du, gutxi gorabehera, guztien emanaldiak. Tartean ikusiko dira Oñatin egingo diren erakundeak ere", aurreratu du Txir-

rinka elkarteko Antton Zubiak. Ondoren, tertulia egingo dute bizikleta hizpide hartuta.

Domekan, bestalde, bizikleta irteera egingo dute Elorregira. Arrasateko bizikletazaleekin elkartuko dira han eta Zubillagako frontoira joango dira guztiak. Ogitartekoak eta sagarrak egingo dira han guztiendako, eta bizikleta bat zozkatuko dute.

Bestalde, gidari, oinezko eta bizikletazaleei zuzendutako argibide eta iradokizunak jasotzen dituzten 40 bat panel jarri ditu Udalak herrian, zalantzak sortzen dituzten hainbat gunetan.

Tenis pistak itxita daude, estaltze lanak egiteko

Beheko pistako lurzorua berritzen hasi dira eta estalkiak harmaila ere babestuko du euritik

O.E. | OÑATI

Kiroldegiko tenis pista biak daude itxita, horietako bat estaltzeko lanak aste honetan hasi dituzte-eta. Lanak bukatu bezain azkar zabaltzea da Udaleko Kirol Zerbitzuen nahia, baina litekeena da lanek urte bukaera arte irautea. Aurten, beraz, ez da San Migel jailetako tenis txapelketarik jokatu.

Joko azkarra

Beheko tenis pista da tapatuko dutena. Estalkiak uhin forma izango du, eta, pista ez ezik, harmaila ere babestuko du euritik. "Estalkiarekin, neguan ere jokatu ahal izango da tenisean. Eta baita edozein iluntzetan ere. Izan ere, argiztapena izango du pista berrituak, eta askoz ordu gehiagotan jokatu ahal izango da horrela. Hala ere,

argiztapen natural gehien ahalbidetzen duen estalkia jarriko da. Hala, egunez zein gauez, bietan jokatu ahal izango da ondo", azaldu du Oskar Carrascalek, Kirol teknikariak.

Estalkia jartzeaz gain, zorua ere berrituko da gero beheko tenis pista. "Lurzorua jasotzeko lanak izango dira egingo dituzten lehenak. Zoladura sintetikoa jarriko da gero, oraingo jokoa baino azkarragoa izango da gerokoa", adierazi du Carrascalek. Gainera, igerilekuko terrazan eta kantxa berdeko harmailetan dauden itoginak konpontzeko ere aprobetxatuko dituzten lan horiek.

Estalkia urrian jarriko dute eta horrek eragina izango du saihesbideko zirkulazioan; semaforoak jarriko dituzte. Egunak zehazteke daude oraindik.



Umeak tenisean uztailean, aurtengo udako kirol kanpainan | O.E.



Parkearen bueltan hesiak jarri dituzte. | O.E.

Ramon Irizar kaleko parkea berritzen hasi dira

Jolaslekua kendu, zoladura aldatu, berdeguneak egokitu eta egurrezko plataforma bat jarriko dute

O.E. | OÑATI

Astelehenean hasi zituzten Ramon Irizar kaleko parkea eraberritzeko lanak. Hainbat izango dira

parkean egingo dituzten aldaketak, hala nola jolaslekua kendu, zoladura aldatu eta berdeguneak egokitu. Eta erabilera askotari-

ko egurrezko plataforma bat jarriko dute. Egungo zuhaitzak mantendu egingo dituzte eta berriak ere landatuko dituzte. Lanak herrigune historikoaren ezaugarriak kontuan hartuta egingo direla argitu zuen alkateak uztailean, lanen proiektua aurkeztu zutenean.

Azarorako amaitu gura dituzte lanak. Itziar Zelaia arkitektoak diseinatu du parke berria eta 120.345 euroko aurrekontua izango du.



PERTSONA NAGUSIEN ZAINTZARAKO ZERBITZUA



Tel.: 943 71 64 79
bidebarri@terra.com
iurrutia.bidebarri@gmail.com

ZAINZTAILE ETA FAMILIEN ARTEKO BITARTEKARITZA LANAK

ADMINISTRAZIO LANAK

- Kontratu egitea.
- Gizarte Segurantzaren alta ematea.
- Nominak egitea.

HAUTAGAIEN AZTERKETA

- Enpresako konfiantzazko langileak.
- Esperientziadunak.

San Martin eta Olakua arteko bidexka ari dira txukuntzen

Natur eskolara heldu aurreko aldapa arinduko dute

TXOMIN MADINA | OÑATI

San Martin eta Olakua auzoa elkartzen dituen basoko bidexka txukuntzen eta erabilgarri izateko lanak hasi zituzten joan den astean. Hala, lehengo bidea berreskuratu da, eta errazagoa izango da auzo batetik bestera joatea.

Lehengo bide zaharra

"Bisualki oso gertu dauden auzoak dira San Martin eta Olakua, baina gaur egungo bidea jarraituz, nahiko luze egiten da bien arteko tartea. Helburua da auzo biak gerturatzea", azaldu du udaleko ingurumen teknikaria den Mar- kel Arrazolak.

Bide hori garbitu, txukundu eta erabilgarri izateko lanak hasi dituzte dagoeneko. 350 metro izango dituen bide nagusi bat

egingo dute San Martinetik natur eskolara joango dena. Horrez gain, natur eskolatik abiatuta, Olapoto parkean gehiago murgilduko den beste bide bat egingo dute. "Bide nagusi horretan ibilbidea moldatuko dugu pixka bat, natur eskolara heldu aurretik dagoen zatian aldapa arintzeko lanak egingo dira-eta. Metro eta erdiko zabalera izango du. Bestalde, bigarren bidexka bat ere egongo da, Maiztegraino doana, lehengo bide zaharra, alegia. Bidexka hori estuagoa izango da", azaldu du Arrazolak.

Bi hilabete barru

Egingo duten bide nagusiak, oinez ez ezik umeen kotxearekin, erosketak garraiatzeko orgarekin edo bizikletarekin egiteko modu-



Joan den astean hasi zituzten lanak, San Martin auzotik. | TXOMIN MADINA

ko zabalera izango du. Modu horretara, San Martinen bizi diren herritarrek autorik hartu behar ez izatea erraztu gura du Udalak.

Bidea egiteko, gainera, aurretik zeuden bidexken trazatua

aprobetxatuko da. "Gehienbat saiaturako gara lehendik zeuden bideak moldatu eta ahal den heinean aprobetxatzea, ez zuhaitzik ez beste elementu naturalik bertatik kendu barik egitea", zehaztu du ingurumen teknikariak.

Egaralur ari da lanak egiten eta eguraldia lagun, hilabete edo bi hilabete epean bukatuko dituzte. 40.000 euroko aurrekontua dute lanok. Asmoa da, gainera, San Martin eta Ugarkalde auzoak lotuko dituen bidea ere egitea. Horretarako, baina, ez dago data zehatzik.

Aspalditik zuen Oñatiko udalak Olapoto parkea balioan jartzeko asmoa eta asmo horren barruan sartzen da Olakua eta San Martin auzoak lotzen dituen bidea egitea.

DATUA

350

METROKO BIDEA

Auzo biak lotzen dituen bide nagusiak 350 metro izango ditu eta lehengo trazatua aprobetxatuko dute hein handi batean.

Urriaren lehen hasiko dute ikasturtea euskaltegian

Berbalagun egitasmoan eta oñatiera lantzeko ikastaroan ere eman daiteke izena oraindik

O.E. | OÑATI

Urriaren lehen hasiko dute ikasturte berriari Bedita Larrakoetxea udal euskaltegiak eta hiru eskaintza ditu: ikasturte osoan zehar euskara ikasteko kurtsoa, Berbalagun proiektua eta oñatiera lantzeko ikastaroa.

Bi gehiago

Berbalagun ekimenak, beraz, jarraipena izango du ikasturte honetan. Euskaraz berba egitea kostatu egiten zaielako, segurtasun

faltagatik lotsa ematen dietelako edo berba-jarduna hobetu gura dutelako, euskaraz hitz egiten ondo moldatzen diren herritarrekin elkartu eta astean ordu batez euren gustukoa den zerbait eginaz euskaraz berba egitea du helburu Berbalagun egitasmoak.

Joan den ikasturtean zortzi lagunek eman zuten izena euskara praktikatu gura zutenekin batera elkartzeko, eta hamahiruk, berriz, eskola horiek jasotzeko. Aurten, beste bi herritarrek eman

dute izena, dagoeneko, astean behin euskaldun berriekin elkartu eta eurekin berba egiteko.

Oñatiera lantzeko ikastaroa, berriz, urriaren 10etik abenduaren 12ra egingo dute, zortzi laguneko taldea osatzen bada.

Izenematea, zabalik

Bai Berbalagun proiekturako bai oñatiera lantzeko ikastarorako izenematea, zabalik daude. Hilaren 26ra arte egongo dira zabalik eta interesa duena euskaltegiara deituta edo bertara joanda apuntatu daiteke.

Bestalde, euskarazko eskolak urte guztian jaso gura dutenendako matrikulazio epea gaur, egubakoitza, bukatu arren, interesa duenak aukera dauka oraindik apuntatzeko. Sortu diren taldeetan izango dute lekua.

Oñatiko EAJ: "Liskarrik gabeko danborradaren alde egiten dugu"

O.E. | OÑATI

Oñatiko EAJ alderdiak "liskarrik gabeko danborradaren aldeko apustua" egiten du eta "festa zoriontsuak" opa dizkie oñatiarrei. Horixe adierazi du prentsa ohar bidez. Horrez gain, eskerrak eman gura dizkie orain arte nagusien danborradan parte hartu dutenei, "48 urte haue- tan Oñatiko festei egindako ekarpenagatik". Halaber, jeltza- leek aurrerantzean danborradan

parte hartuko dutenak animatu dituzte, "sentsibilitate guztiak batuko dituen jaia egitera".

Bestalde, EAJk hau dio: "Udal Gobernuak ez du jakin danborradaren inguruan sortutako arazo eta liskarrik kudeatzen". Gaineratu du Udal Gobernuak lehenago esku hartu behar zuela: "Bilduko Gobernuak ezin du danborrada euren ez den zerbait bezala sentitu, festen udal programaren parte delako".

Txalokak Wii eta Xbox jolasak eramango ditu arratsaldean Foruen plazara ume guztiendako

Txaloka ludotekak Foruen plazara eramango ditu gaur, egubakoitza, arratsaldean Wii eta Xbox jolasak. Ume guztiak jolas egin ahal izango dute. Irailako ekintza bereziak antolatu ditu Txalokak, batzuk ludoteka barruan egitekoak eta beste batzuk, Foruen plazan. Ludoteka 16:45etik 19:45era egongo da zabalik ikasturte honetan eta ate irekiak urte guztian egongo dira.

'Iparragirre Oñatin' herri antzezlanaren ikusteko sarrerak Txokolateixan har daitezke

Irailaren 27an egingo dute *Iparragirre Oñatin* antzezlanaren Santa Anan. Bi emanaldi izango dira, 19:30ean eta 22:30ean eta txartelak Txokolateixan har daitezke. Doan dira sarrerak, baina jendea toki barik gelditu ez dadin atera dituzte. Antzezlanaren Olaiturri Kultura Elkarteak prestatu du. Iñaxio Irizar da zuzendaria eta herriko hainbat talderen laguntza izango dute.

14 dantza talde Haurren Egunean

Zazpiehun dantzari inguru batu ziren joan den domekan Oñatin, aurtengo Haurren Egunean. Herriko kaleetara ez ezik, Etxaluzeko parkera eta Errementari plazara ere heldu ziren. 14 dantza taldetako dantzariak ibili ziren elkarrekin.



INGO BIAIN

Astebete barru egingo dute eztanda San Migel jaiek

Herri Eguneko bazkarirako txartel kopurua mugatu dute, segurtasunagatik

IRATI GOITIA | OÑATI

Gutxi falta da jaiak hasteko, eta aste honetan aurkeztu dute egitaraua Udaleko ordezkariak. Aurretik ere bi aste bukaera hartuko dituzte festek.

Adin guztietarako jaiak izatea, herriko talde eta norbanakoen proposamenak integratzea, emakumeen presentzia handitzeko apustuarekin jarraitzea eta ekitaldiak herriko hainbat txokotara zabaltzea izan dira aurtengo egitaraua prestatzeko Udalak jarraitu dituen irizpideak, Kultura zinegotzi Nerea Zubiak martitzenean esan zuenez. Kultura aniztasunari garrantzia eman nahi izan diote Udaletik. Programa herriko hainbat elkarte eta talderekin batera prestatu du Udalak eta haien parte-hartzea ere eskertu zuen Zubiak.

Ohikoak eta berriak

Aurtengo egitarauari begiratuta, badira berrikuntza gutxi batzuk. Nagusia jaietako gune berri bat egongo dela: Errementari plaza. Beste nobedadeetako bat da Herri Eguneko herri bazkariak edukiera mugatua izango duela (650 lagun), segurtasun kontuengatik [ikus zatidurak].

Egitarauko hitzorduei dago kienez, ekitaldi nagusiek ez dute hutsik egingo, eta badira nabarmentzen direnak ere. Txantxikua,



Martitzenean egin zuten prentsaurrekoan Guridi, Biain, Zubiak eta Meabebasterretxea. | TXOMIN MADINA

beti bezala, irailaren 28an jaitsiko den arren, irailaren 26an hasiko dira ekitaldiak. Egun horretan irekiko dituzte txosnak eta Amparo Sanchezen eta La Jodedera taldearen kontzertuak izango dira Foruen plazan. Gainerako egunetan ere ez da musika eskain-

tzarik falta izango. Oñatin izango dira, besteak beste: Oreka TX, La Pulga eta Mikel Urdangarin.

Udaletik dei egin diete bai oñatiarrei eta baita kanpokotik etorriko direnei, jaietan parte hartu eta protagonista izateko, betiere, "askatasunez, errespetuz eta jarrera sexista edo diskriminatzaile barik", esan zuen Zubiak.

Jaiak ofizialki hasi aurretik, baina, asko izaten dira hitzorduek, eta asteburuan ere izango dira ekitaldiak; adibidez: bihar, 18:00etan, haurren danborrada eta etzi, 10:30ean, artzain-txakur txapelketa.

Segurtasun oharra

Udaletik gogora ekarri dute 16 urtetik beherakoak ezingo direla egon San Migel egunaren biharramuneko eta Errosaixo Bixamoneko sokamuturretan.

"Sokamuturra bertan behera utziko da 16 urtetik beherakoen presentzia handia bada", zehaztu zuen German Meabebasterretxea, Kultura teknikariak. Bestalde, Errosaixo Egunean udaletxean egingo den piroteknia ikuskizunera doazenek ere segurtasunagatik hartuko diren neurriak aintzat hartzea eskatu zuen.

Berrikuntzak txosnetako egitarauan

Txosna batzordeko egitaraua hiru berrikuntza nagusirekin dator: Egun Morearen data berria, Aniztasun Kulturalaren Eguna eta euskal preso eta iheslarietako elkartasun bazkaria.

Egun Morea irailaren 27an, zapatua, egingo da aurten. "Jaien hasiera domekan baldin bada ere, txosnak egubakoitzean irekiko ditugu, eta zapaturako egun osoko egitaraua antolatu dugu", azaldu dute txosna batzordetik. Ohi bezala, poteoa, bazkaria eta olinpiada moreak egingo dituzte. Eta egunari amaiera emateko, kontzertuak izango dira: Euskabaret, Han eta Furia.

Aniztasun Kulturalaren Eguna, bestalde, irailaren 29an izango da, Acesmak antolatuta. Herriko etorkinen jatorrizko herrialdeetako

hainbat ohitura eta ikuskizun ez gozatzeko aukera izango da txosnagunean.

Hilaren 30ean, berriz, euskal preso eta iheslarietako elkartasun bazkaria egingo dute aurten. Egun berean jokatu da herriko pilota txapelketako finala ere.

Gainerako egunetan ohiko egitaraua egongo da; besteak beste: Karrikaldia, auto klasikoaren erakustaldia, tortilla lehiaketa, paella-jana, bideo emanaldia...

Batzordetik hainbat ohar ere eman dituzte: eraso sexisten aurrean erantzuteko protokoloa egongo da martxan txosnagunean; sukaldetik ateratako dirua *Berria*-rendako izango da; kanpotik datozenendako lotarako lekua egongo da gaztetxean; bazkarietarako txartelak Boga, Arrano eta Ona tabernetan daude salgai eta Herri Egunean gaztetxean egiten den bazkarirako izena Ona tabernan edo gaztetxean eman daiteke.

Errementari plazan ere festa

Udalaren nahia izaten da ekitaldiak herriko hainbat txokotara zabaltzea. Hala, azken urteotan Atzeko kalea jaietako beste gune bat izan da Foruen plazarekin eta txosnagunearekin batera. Bada, aurten beste gune bat izango da jaietarako: Errementari plaza, hain zuzen ere. Bertan egingo dira esate baterako, irailaren 28an 12 urtetik gorakoendako ekitaldiak eta Txantxiki Eguneko bazkaria.

Zapiak eta txartelak

Jaietako zapiak iaizko berak izango dira. Beraz, etxean duenak hura lepoan jarri eta jaietz disfrutatzen dei egin dute Udaletik. Bestela, salgai egongo dira udaletxeko sarreran –goiz eta arratsalde– eta kultura etxean arratsaldez, euro baten.

Herri Egunerako bazkarirako txartelak ere toki beretan erosi ahal izango dira, eta ez tabernetan, ohi bezala. Gainera, txartel kopurua mugatu dutenez, aurretiaz ibiltzea gomendatu dute udal ordezkariak.



TXOMIN MADINA

AMAIA GURIDI
KARTELAREN EGILEA

"Jaiak ematen duten askatasuna irudikatu nahi izan dut"

Martitzen goizean egin zuten aurkezpenean eman zuten ezagutzera aurtengo jaietako kartel irabazlea, Amaia Guridi oñatiarra egin duena. Herri-tarren botokin eta aditu talde baten iritzia aintzat hartuta egin da aukeraketa. Guridi Diseinu Industrialeko ikasketak egiten ari da, baina gus-tuko du diseinu grafikoa.

Zorionak! Nola hartu duzu irabazlea izan zaren berria?

Sorpresa izan da, ez nuen espero. Izan ere, zaila da asmatzen nor irabaziko duen, jendeak bozkatzen baitu, eta bakoitzaren gustuak oso ezberdinak izan ohi dira.

Zer irudikatu nahi izan duzu kartelean?

Hasi nintzen pentsatzen jaiak niretako zer diren, eta badago betiko errutinatik aldentzen zaituen zerbait. Beraz, ideia hori irudikatu nahi izan dut. Horrela, txantxiku bat azaltzen da puxikekin. Gu, oñatiarrok, txantxikuak gara. Jaiak ematen duten askatasun hori irudikatzen dute puxikek. Kolorreek, berriz, alaitasuna.

Ze teknika erabili duzu?

Buruan nuen ideia paperera ekartzeko, arkatzez marraztu nuen lehenengo paper gainean. Horren ondoren, zer egin nahi nuen argi nuenean, Illustrator eta Photoshop programak erabili nituen marrazkia egiteko.

DATUA

186.675

EURO

Horixe da jaietako aurrekontua. Partidarik handiena herriko taldeei bideratu zaie (63.175 euro); eta kontratazioei (50.200).

Egitarau osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Guraso elkarteak eta Udala bide berri bati ekiteko gertu

Indarrak batzea da asmoa eta udazkenerako bi ikastaro antolatu dituzte

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Herriko ikastetxeetako guraso elkarteak eta umekin diharduten elkarteak elkarrekin lanean jarduteko gogoz daude. Udal ordezkariak zirikatatu dituzte horretarako, eta dagoeneko lehenengo ekintzak antolatu dituzte: mugikortasun iraunkorraren astearekin bat egin eta domekan eskoriatzarrekin batera bizikleta martxa Urkulura.

Indarrak batu

"Abiapuntua *Jar gaitezen* prozesuan dago. Bilera haietan ikastetxeen arteko zatiketa nabaria zela ondorioztatu zen, eta aukerak egon zitezkeela elkarlanean aitzeko. Horren haritik egitasmo hau martxan jarri eta bide bat egiten ari gara", argitu du Mainer Etxanizek, Gazteria teknikariak. Hala, Arizmendiko eta Pausokako guraso elkarteek, Gurabarri

eta Batera guraso elkarteek, Kuku Miku elkarteak eta Aretxabale-tako Udalak elkarlanean dihardute ekimen berri hori martxan jarri eta poliki-poliki bidea urratzen hasteko. "Konturatu gara, gainera, hitzaldi eta formazio ikastaro batzuk ikastetxe guztietan errepikatzen direla; hortaz, indarrak bateratu eta zergatik ez antolatu guztiendako batera", gaineratu du Etxanizek.

Hala, bi ikastaro antolatu dituzte udazkenerako: lehen sorospenak eta gizonetzkoek zuzendutako maskulinitate ikastaroa. Aurretik, baina, domekarako, hain zuzen, Urkulura bizikleta martxa deitu dute. 10:00etan elkartuko dira plazan eta Eskoriatzatik datozenekin batera (10:30ean, Bainuetxen) joango dira Urkulura. Bueltan, 12:00etan, mokadutxo eskainiko dute Torrebasen.



Ikastetxeetako eta Kuku Mikuko guraso ordezkariak Iñigo Louvelli zinegotziarekin eta Mainer Etxaniz teknikariarekin. | M.A.

IKASTAROKAK:

LEHEN SOROSPENAK

Norentzat: 0-12 urte bitarteko umeen gurasoentzat.

Noiz: Urriak 2 (euskaraz) eta urriak 9 (gaztelez).

Non: Arkupe kultura etxean.

Ordua: 18:00.

Izen-ematea: Irailaren 17tik urriaren 1era, Arkupe (25 lagunendako).

MASKULINITATEA

Norentzat: Gizonentzat.

Noiz: Urriaren 25ean hasi eta maiatzaren 30a arte (5 saio, bi hilabete behin bat, zapatu goizetan).

Non: Arkupe kultura etxean.

Izen-ematea: Urriaren 6tik 22ra, Arkupe.

Dantza garaikide ikastaroa antolatu du Jaikik

M.A. | ARETXABALETA

Dantza garaikidea: inprobisaketa-konposaketa izenarekin ikastaroa antolatu du Jaiki elkarteak. Donostiatik etorriko den Arantza Iglesias dantzaria izango dute gidari eta eguenetan elkartuko dira kuarterel zaharrean, urriaren 2an hasi eta Gabonak bitartean (18:30-20:00). Gorputzaren, espazioaren eta denboraren kontzientzia handitzea da asmoa, eta momentua mugimenduen bitartez bizitzea.

Izen-emate epea zabalik dago. Hona bideak: jaikielkar-tea@yahoo.es eta 943 53 43 96. Prezioa, 65 euro (langabeendako, 55 euro).

Leonera joateko bidaiari oraindik lekua dute Basotxokoek

Urriaren 13tik 19ra bitartean joango dira Basotxo erretiratu elkarteak Leon aldera, eta hara bidean ikusiko dituzte Astorga, Zamora, Toro, Tordesillas, Valladolid, Ponferrada... Lo lekua, ostera, Leonen bertan izango dute. Bidaia polita dela uste dute Basotxoko kideek, eta herriko erretiratuak animatu gura dituzte.

Izena emateko epea zabalik dago eguaztena arte, irailak 24. Horretarako, Basotxo bulegotik pasatu behar da goizetan (11:00-12:00). Bidaia-aren prezioa 439 euro da.

Haizearen aurkako gomak jarriko dizkiete ontzien esekitokiei

Hondakinak ateratzeko ordutegia 19:00etatik 06:00etara dela gogorarazi dute

M.A. | ARETXABALETA

Atez ateko hondakin ontzien haizearekin ihesik ez egiteko haizearen aurkako gomak jarriko dira esekitokitik datarren astean. Goma horiek jarrearekin batera, auto-konposta eta auzo-konposta egiten duten herritarren gakoiegi pegatina jarriko diete.

Hondakinak beti ontzietan

Uztailaren 14an jarri zuten abian atez ateko hondakin bilketa sistema Aretxabaletan, eta herritarrek dagoeneko ikasi dute zelan funtzionatzeko duen. Dena den, udal ordezkariak gogorarazi gura diete herritarrei hondakin ateratzeko ordutegia honako hau dela: 19:00etatik 06:00etara; eta zapatuetan, berriz: 19:00etatik 23:00etara. Gainera, hondakin bakoitza dagokion ontzian atera



Poltsa horiz betetako esekitokiak, Belorrieta auzoan. | M.A.

behar dela ekarri dute gogora, eta ezin direla ontzi gabe atera hondakin horiek.

Ontziok atzeko aldean duten irtengunetik utzi behar dira zin-

tzilik norberari dagokion esekitokian. Eta egunero atera daitezkeen hondakinak, pixoihalak esaterako, eskumako gakoan eseki behar dira.

UDAKo taldeen aurkezpena dago gaur

2014-2015 denboraldian jardungo duten taldeak aurkeztuko ditu plazan kirol elkarteak

M.A. | ARETXABALETA

Gaur arratsaldean kirolariz beteko da Herriko Plaza; izan ere, Aretxabaleta kirol elkarteak hasi berri duen denboraldirako sortutako talde guztiak aurkeztuko ditu herritarren aurrean. Ekitaldia 19:00etan hasiko da, musika eta animazioa lagun direla; aurretik, baina, kimuek, zarpiko futbol txapelketa jokatu dute bertan. Eta jaiak aurrera jarraituko du AZ Gaubelak DJak girotuta.

Kirolaren inguruko festa

Futbol talde guztiak aurkeztuko ditu UDAK gaur, baina gehiago ere izango dira: gimnasia erritmikoan jardungo duten gaztetxoak; karate taldeko neska-mutikoak; eta pilota eskolan jardungo duten txikiak.

Aurkezpen ekitaldia festa izan dadin gura dute UDAKo ordezkariak: "Festa sustatu nahi dugu kirolaren eta klubaren inguruan eta horretarako dei egiten diegu herriko neska-mutikoei eta haien gurasoei eta senideei plazara gerturatzeko eta UDAREN festa handi horretan parte hartzeko".

Bertikal, babesle berriro

Bestalde, Bertikal enpresak jarraituko du babesle ofizial izaten, iaz legez. Aurtengo aurkezpen ekitaldian, gainera, enpresa horrek sortutako joko ezagutzera emateko saltokia jarriko du plazan, eta erakustaldia egin. Aretxabaleta kirol elkarteak koloreekin pertsonalizatutako 40 bat joko jarriko dute zaleen eskura.



Basotxoko erretiratuak eta UDAko ordezkariak dokean jokatzeko, joan den ekainaren 14an. | M.A.

Dokean hasi eta kantuan bukatuko dute erretiratuek

Kultura Astea egingo dute Basotxon gaurtik irailaren 27ra bitartean, eta ekitaldi mordoa iragarri dituzte

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Kulturak, aisialdiak, kirolak, gizarte gaiek eta beste hainbat kontuk bat egingo dute Basotxon gaur hasi eta irailaren 27a bitartean. Kultura Astea antolatuko dute erretiratuek, eta zortzi hitzordu inguru lotu. Hain zuzen, gaur Iparraldera joango dira asteari hasiera emateko; Donibane Lohizune, Miarritze eta Baiona inguruak ezagutuko dituzte.

Doke txapelketa

Bihar, ostera, doke txapelketa izango da Basotxo aurreko lorategian: erretiratuak, Aretxabaleta kirol elkarteko ordezkarien aurka. Hiru bikotek jardungo dute elkarren aurka. Txapelik

ez dute jokoan, baina hamarretakoa bai, galtzaileek ordainduko dute-eta. Ekainean, *Kirolez busti* jaialdian jokatu zuten lehenengoz elkarren aurka eta orduan UDAkoak izan ziren nagusi. Oraingoan, ostera, ikusi egin behar, erretiratuek entrenatzen jardun dute eta.

Hainbat hitzaldi

Hitzaldiek ere izango dute lekua Kultura Astean. Astelehenean, herentzien eta testamentuen gainean jardungo du Zenbaki aholkularitzako abokatu Naiara Mendibilek, eta martitzenean, Idiazabalgo gazten gainean egingo du berba Felix Ajuriak, Otxandiotik etorriko den artzain eta

gaztagile ezagunak. Gaztak aztertu bakarrik ez, dastatu ere dastatuko dituzte.

Eguaztenean, ostera, argazki emanaldia izango da. Basotxoko erretiratuek aurten egindako bidaietako eta irteeretako argazkiak erakutsiko dituzte, orduko bizipenak gogora ekartzeko eta joan ez zirenei egindakoak erakusteko.

Txokolatea eta dantzaldia

Eguenean egoitzako kafetegian elkartuko dira herriko erretiratuak, txokolatea elkarrekin hartu eta dantzan egiteko. H. Kinta y Ku taldeko musikariek girotuko diete arratsaldea eta gura beste dantza egiteko aukera izan-

KULTURA ASTEKO EGITARAUA:

EGUBAKOITZA, 19

Irteera iparraldera: Donibane Lohizune, Miarritze, Baiona.

Egun-pasa: 08:00etatik 19:00etara.

ZAPATUA, 20

Doke txapelketa: UDA-Basotxo norgehiagoka.

Basotxo aurrean, 11:00etan.

ASTELEHENA, 22

Hitzaldia: Herentziak eta testamentuak. Hitzalaria: Naiara Mendibil (abokatua).

Basotxon, 17:30ean.

MARTITZENA, 23

Hitzaldia: Idiazabalgo gaztak: azterketa eta dastaketa. Hitzalaria: Felix Ajuria (artzaina eta gaztagilea).

Basotxon, 17:30ean.

EGUAZTENA, 24

Argazki emanaldia: Basotxoko kideek aurten egindako bidaiak.

Basotxon, 17:30ean.

EGUENA, 25

Merienda: Txokolate jana eta dantzaldia. Taldea: H. Kinta y Ku.

Basotxoko kafetegian, 18:00etan.

EGUBAKOITZA, 26

Mendi ibilaldia: Aretxabaleta elizateak.

Basotxon, 09:00etan.

ZAPATUA, 27

Ekitaldia: Kantuz kale. Basotxoko kantu taldea, Eibarkoa eta Arrasatekoa elkarrekin kalean kantuan.

Basotxon hamarretakoa, 11:00etan.

go dute. Hurrengo egunean, hilaren 26an, ostera, oinetako egokiak jantzi eta Aretxabaleta elizateetan egingo dute buelta.

Eta astea bukatzeko, *Kantuz kale* ekitaldia dute Eibarko eta Arrasateko taldeekin batera. Herriko bazterretan kantuan jardungo dute, bide batez San Migel jaiak girotuz, eta ondoren elkarrekin bazkalduko dute.

'Moda laborategia'-n izena emateko azken eguna

M.A. | ARETXABALETA

Patroiak zelan egin, horiek hiru dimentsiotan muntatu eta gero diseinu ezberdineta moldatzen ikasi gura duenak orain dauka aukera. Izan ere, patroigintzan trebatu eta moda nork bere erara diseinatuzeko asmoarekin, urritik ekainera iraungo duen ikastaroa egingo dute. Katalin Antxiak, *Modubat* proiektuaren sortzaileak eta diseinatzaileak, gidatuko ditu eskolak, eta hauxe jakinarazi du: "Helburua da gonak, prakak, soinekoak eta kamisetak egitea".

Era berean, diseinatzaile esanguratsuenen lanak ere aztertuko dituztela iragarri du Antxiak; besteak beste, Chanel, Balenciaga eta Diorren lanak. Ikastaro bukaeran, gainera, erakusketa jarriko dute egindako lanekin.

Izena emateko argibideak

Moda laborategia izena jarri dio ikastaroari eta urriaren 11n hasiko da. Zapatuetan batuko dira, Arkupen, hamabostean behin, 09:00etatik 12:00etara. Izen-emate epea gaur itxiko da. Horretarako eta argibide gehiago jasotzeko, helbide honetara idatzi behar da: modubatmoda@gmail.com. 51 ordukoa da eta 190 euro balio du. Gehienez, 15 lagunek osatuko dute taldea. Materiala ikasleak eraman beharko du: patroigintzarako papera, margoak, jostunen metroa...

'Galtzagorriei to, Inaxito!' umeendako antzezlan domekan

Galtzagorriei to, Inaxito! antzezlan domekan Arkupen, 17:00etan (sarrera, 3 euro). Bertsozaren umeengana hurbiltzeko asmoarekin bertsoa eta antzerkia bateratu zituzten 2003an, eta hortik sortu zen antzezlan. Inaxito-ren laguntzarekin Euskal Herriko mitologia ezagutzeko aukera izango dute: Basajaun, laminak, Anbotoko anderea...

Beinke-Loramendi dantzaren azken entseguak astean

Datorren astean egingo dituzte Beinke-Loramendi dantzaren azken entseguak. Eguaztenean udaletxe zaharrean elkartuko dira, 19:30ean, eta egunean, hilaren 25ean, entsegu orokorra egingo dute Herriko Plazan, 19:00etan. Dantza gogorarazteko entsegu izango da, gero sanmigeletan herri-tarren aurrean egiteko.

Areantzakoak Kutzebarrin izan dira herritarrekin batera

Joan den domekan ospatu zen Kurtzebarriko eguna, eta, giro ona lagun, herritar asko igo zen tontorrera. Areantzakoek ere ez zuten hutsik egin, eta, beste behin, auzokoak elkarrekin igo ziren tontorrera eta argazkia atera zuten han. *Labanderan* jaisi ziren, ohitura duten legez, hemeretzi lagun.



JULEN ABASOLO

Mugikortasun iraunkorra aldarrikatzeko azken ekintzak egingo dituzte

Gosari osasungarria, bizikleta azoka eta Landan bizikleta ibilaldia, aste bukaeran eta hilaren 28an

MIREIA BIKUÑA | ESKORIATZA

Mugikortasun Iraunkorraren Europako Astea egiten dihardute Eskoriatzan ere. Asteon hainbat ekintza egin dituzte; besteak beste, goitibehera tailerra.

Bada, mugikortasun iraunkorra aldarrikatzeko beste hainbat ekintza egingo dituzte gaurtik domekara arte. Azkena hilaren 28ko bizikleta ibilaldia izango da: Landako urtegiari itzulua egingo diote. Lauzpabost orduko ibilaldia izango da. Interesatuak hilaren 26a baino lehen eman behar dute izena kiroldegian, 943 71 53 28 telefonoan edo kirolak@eskoriatza.net helbidean. Jatekoa norberak eraman beharko du.

Bigarren eskuko azoka

Astelehena ezkeru egin duten moduan, gaur ere, egubakoitza, gosari osasuntsua hartu ahal izango dute herriko ikastetxeetara "aktiboki" joaten diren herritar guztiek.

Era berean, bigarren eskuko bizikleta azoka egingo dute gaur, 18:00etan. Han erosi ahal izango dira egoera onean dauden bizikletak, patinak, patineteak eta horietan ibiltzeko erabili beharreko materiala. Azokan saltzen ez den materiala eta saldutakoaren dirua hilaren 25ean entregatuko dute antolatzaileek. Azkenik, domekan bizikleta martxa egingo dute Urkulura. Autoa alde batera utzi eta bizikletan Eskoriatza-Urkulu-Eskoriatza ibilaldia egingo dute, 10:00etan, Fernando Eskoriatza plazatik irtenda.



Hainbat herritar goitibeherak egiteko tailerlean. | MIRARI ALTUBE

Goitibeherak Apotzaga auzoan

Mugikortasun iraunkorraren aldeko ekintza izango da Apotzagako goitibehera lasterketa. Zapatuan 16:00etan egingo dute, bigarrenkoz. Entrenamendurako igoera eta bi saio egingo ditu pilotu bakoitzak. 60 bat goitibehera egingo dira irteera puntuan. Hain justu ere, Apotzaga San Miguel merenderoan hasi eta Manuel Muñoz kiroldegi aurrean bukatuko da ibilbidea. 1.400 metro, guztira.

Parte-hartzaileak bost mailatan banatuko dituzte. Maila horiek goitibeherak erabiltzen dituzten gorpilak araberakoak dira: pneumatikoak, PVC, bizikleta gorpilak, errodamenduak...

Apotzagako goitibehera lasterketa Euskal Herriko txapelketarako puntuagarria da, eta azken-aurreko lasterketa. Azkena Sopuertan jokatuko da, domekan.

Kirol instalazioen mantentze-lanen eta herri-lanen gaineko ikastaroa egingo dute urritik abendura

Eskoriatzako Udalak langabeendako euskarazko ikastaroa egingo du urriaren 27tik abenduaren 5era arte, kirol instalazioen mantentze-lanen eta herri-lanen gainean. Izena emateko epea irailaren 22tik aurriraren 3ra arte izango da eta lehentasuna izango dute Eskoriatzan errolatutakoek eta DBH eta eskola graduatua dutenek. Leku mugatuak daude.

Gaur, egubakoitza, da erretiratuen omenaldiko bazkarirako txartelak erosteko azken eguna

Eskoriatzako erretiratuak omentzeko bazkaria hilaren 28an egingo dute, pilotalekuan. Bada, bazkari horretan parte hartzeko txartelak erosteko azken eguna gaur da: erretiratuen bulegoan, 11:00etatik 12:30era, sei eurotan. Omenaldi egunean, meza izango dute parrokiaren eta bazkaria pilotalekuan. Bazkaldu ondorengo musikarekin eta oparien zozketarekin girotuko dute.

Txotxongiloak oinarri dituen hastapen ikastaroa emango du Larraitz Iparragirrek hilaren 27an

Txotxongiloen animazio teknikak landuko dituen hastapen ikastaroa egingo dute Eskoriatzan hilaren 27an, 09:00etatik 14:00etara. Hezitzaileendako, gurasoendako eta interesa duen edonorendako ikastaroa da. Interesatuak hilaren 24a baino lehen eman behar dute izena kultura etxean. 10 euro sartu behar dira Kutxabankeko 20955038491060024634 kontuan. La Charada taldeko Larraitz Iparragirre izango da irakaslea.



Aranburuzabala kaleko autobus geltokia. | MIRARI ALTUBE

Aranburuzabala kaleko autobus geltokian aldaketak

Arrasateko noranzkoa duen autobus bakarra geratuko da aurrerantzean: Eibarrera doana

M.B. | ESKORIATZA

Jose Arana kalea oinezkoendako egokitzeak hainbat aldaketa ekarri ditu Aranburuzabala kaleko autobus geltoki kopuruan, kokapenean eta ordutegian. Herritarrengan nahasmena sortu du eta Udalak hainbat puntu dituen oharra kaleratu du.

Alde batetik, Aranburuzabala kalean zeuden bi geltokietatik bakarra utzi dute, eta hura lekuz aldatu dute: aurrerantzean, tren geltoki zaharraren parean egingo da. Beste alde batetik, aurrerantzean, Eibarrera doan autobus bakarra geratuko da geltoki horretan –Jose Arana kaleko lanak egin arte hiru autobus geratzen ziren–. Bergaraino doazen autobusek Gorosarren bukatuko dute ibilbidea. Beraz, Aranburuzabala

kalean ez dute zerbitzurik eman. Azkenik, esan behar da Gorosarriko eta Gaztañaudiko geltokietan ez dela aldaketarik egingo.

ESKORIATZAN

LURSAILA
EROSIKO NUKE

(NAHIAGO HERRITIK GERTU)

618 76 34 40

Kanpandorre gaineko harri borobil zati batek sabaia zulatu du

Parrokiako kanpandorre goiko gurutzeari eusten dion harri borobila erditik apurtu zen. 200 bat kiloko pusketa erori zen eguaztenean, eta elizako sabaia zulatu zuen. Harri zatia eliza barruraino sartu zen. Hark eragindako kalteak zehazteko garabi bat erabili zuten.



IMANOL BELOKI

Bittor Arbulu | Anelkar

"Ur-putzu berriak zulatuko ditugu Kongon"

- ▶ Anelkarrek gaur egingo du Elkartasun Festa
- ▶ Dirua Kongora eta Senegalera bidaliko dute

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Azkeneko hamar urteotan Kongoko Pande bailarako umeen eskolaratzean dihardu borondatez lanean Bittor Arbulu antzuolarrak. Anelkarrek gaurko Elkartasun Festan batutako diruaren zati bat bideratuko du bertara. **Zein lan egiten ari zarete Kongon?** Hamar bat urte daramatzagu umeen eskolaratze lanean. Horri jarraipena eman nahi diogu. 2.500 umek jasotzen dute eskolako materiala. Irakasleek, berriz, soldata

eta guk bidalitako laguntza txikiak ere jasotzen dituzte.

Nolakoa da Pande bailara?

50 kilometro luze da bailara; Pande ibaiaren bueltan dago. Hamabi herri daude; bi dira nagusiak: Kansenia eta Kapiri. Orain dela hamabost bat urte hasi ziren eskolak eraikitzen.

Zenbait balio irakasten dituzue.

Eskolako materialaren truke, auzolana egin behar dute uztailan eta abuztuan. Hala, ume bakoitzak bere herritik pasatzen



Kongoko Pande bailarako herritarrekin Bittor Arbulu. | BITTOR ARBULU

den bide nagusia txukundu behar du. 6 urtetik aurrerako umeek bi edo hiru orduan egiten dute lan, heldu baten begiradapean. Euren dako ez da esfortzu handia; helburua da jasotzen dutenaren truke zerbait eskatzea; ez dela doan jakin dezaten. Nire ustez, hemendik bidaltzen den edozein laguntzaren truke derrigorrezkoa beharko litzateke kontrapatida.

Modu horretan motibagarria den zeregina ere izango dute, ezta?

Bai, hala da, umeek eskola izateaz gain, badute aukera euren bizitzan beste zerbait egiteko ere. Ezer egin gabe geratzen bazara... ezer ere ez, hemen gertatzen den moduan!

Bekak lortzen ere laguntzen duzue. Unibertsitatera eta eskola teknikoetara joateko bekatarako diru

laguntzak ere bidaltzen ditugu.

Kontzientziarik badago hemen?

Nik uste dut baietz. Antzuolarrek asko kolaboratzen dute, gainera, Anelkarrekin. Gazteak kontzientzia dira non jaio diren eta zelako zortea duten.

Ebola dela-eta, beldurrik sumatzen duzu Pande bailaran?

Orain dela bi aste ebola mota baten brotea hasi zen Kongo iparraldean. Ez da horren kutsakorra ebola mota hori eta badirudi kontrolpean dutela. Gu hegoaldean gaude, oso urrun. Gainera, tarteka, horrelako agerraldi edo broteak izaten dira Kongon. **Udazkenean joateko zara berriro.** Urri erdialdera joan nahiko nuke berriro. Orain dator euri-sasoia eta ur-putzuak nola dauden ikusi nahiko nuke. Asmoa da beste

Ur-sarea eraikiz Pande bailaran

Ur-sarea egiten ari dira. Horretarako, mendian egindako presa txiki batzuetatik ura eroan dute hiru herritara, hodi bidez. "Orain beste sistema bat bideratu gura dugu, eta herri handietan dauden enpresak kontratatuz ur-putzuak zulatu. laz, bi putzu finantzatzea lortu genuen Anelkarren laguntzarekin eta aurten beste bi egin gura ditugu", azaldu du Bittor Arbuluk.



Ur-sarea zabalduz. | B.A.

"Ebola agerraldia Kongo iparraldean sortu arren, ez da beldurrik sumatzen"

"Egungo gazteak kontziente dira non jaio diren eta nolako zortea duten"

Domekan Finalista Eguna ospatuko du Arrolak



Iazko Finalista Eguna festa giroan ospatu zuten. | JABI ETXANIZ

M.A. | ANTZUOLA

Arrola Mendi Taldeak Finalista Egunean parte hartzeraz animatu gura ditu herritarrek. Domekan, hilaren 21ean, bi ibilbide egingo dira: oinezkoendako irteera goizeko bederatzietan izango da, Herriko Plazatik; bigarren irteera, berriz, bizikletaz joango direnendako izango da eta hamarretan irtengo dira. Bi irteerak Trekutzen bukatuko dira.

Irteeretan parte hartzen dutenentzat eta Trekutzera gerturatzen diren gainontzekoentzat mokadutxoa egongo da.

Helburua ohiturari eustea eta ibilbideaz gozatzea dela azaldu dute Arrola Mendi Taldeko kideek: "Ibilaldia aprobetxatuz, elkarrekin gustura, alaitasunez, igarotzeko asmoz antolatzen dugu".

Landatxopek bidaien eta aseguruaren gaineko hitzaldi praktikoa antolatu ditu erretiratuendako

Bidaiaren eskubideak izeneko hitzaldia egingo da hilaren 22an. Martitzenean, aldiz, tailer praktikoa. Aseguruaren gaineko berbaldia hilaren 24an da eta tailerra, egunean. Guztiak erretiratuaren elkartean 17:00etan hasita. Parte-hartzaileek aukera izango dute Mallabiko Orbea lantegia bisitatzeko. Autobusa izango da, 40 lagunendako. Bestalde, hilaren 23an, Tipi-tappak hirugarren irteera egingo du: 10:30ean Torresoroan elkartuko dira.

OHARRAK

ZUGARRAMURDI ETA SARA Senidetzearen 30. urteurren festari hasiera emateko, Arrolak eta Udalak irteera antolatu dute hilaren 28rako. Hala, antzuolarrek Zugarramurditik

eta aihertarrak Saratik abiatuko dira. Familia osoarendako irteera da. Autobusa doakoa da. Izena emateko azken eguna hilaren 24a da (gaztetxean edo 943 76 62 46 telefonora deituta).

Donostiako Zinemaldia | Goiena Klubeko bazkideendako

'Loreak' filmaren estreinaldi galarako bi sarrerak opari

Irailaren 23an, Donostiako Kursaal, 22:00etan, emango duten Loreak filma ikusteko 2 sarrera zureak izan daitezke.



PARTE HARTZEKO:

WhatsApp: KLUBA [ZINEMALDIA] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira E-postaz: kluba@goiena.com Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Epea: Astelehena, irailak 22, 18:00ak. Saridunen berri, egubakoitzeko Goiena Paperean emango da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko. Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezabatuzko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

The Romantics-en bluesa izango da protagonista gaur Sastiñan

J.B. | ARAMAIO

Iraileko egubakoitzak musika-tzen jarraituko du Udaleko Kultura Sailak. Bi kontzertu geratzen dira Sastiñan –eguraldiak laguntzen badu, ermita kanpoan izango dira–, biak ere goi mailako emanaldiak. Gaur, The Romantics hirukoteak joko du, 20:00etan.

Musika afroamerikarra gaur
The Romantics taldea bluesa-erikiko eta orokorrean musika afroamerikarrarekiko duten zaletasunetik sortu zen, 2009an. Iker Pirisek –ahotsa eta gitarra–, Xabier Barrenetxeak –baxua– eta Carlos Sagik –bateria– osatzen dute taldea; bluesa oinarri badute ere, 1960ko eta

1970eko hamarkadetakoko funka, rhythm-and-bluesa eta Chicago blues modernoetik igarotzen da haien musika. Hala, B.B. King, Johnny Guitar Watson, Ray Charles eta The Meters artisten eragina nabarmena da The Romantics taldearen erreperitorioan. Kontzertu ugari eskaini dituzte eta hainbat jaialditan hartu dute parte. Horrenbestez, eskarmentu handiko musikariak dira.

Country hilaren 26an

Musika kalera ateratzeko asmoz sortutako zikloa datorren egubakoitzean, hilak 26, itxiko du Algortako West Bluegrass Band taldeak. Country bluegrass estiloa lantzen dute bizkaitarrek.



The Romantics taldea zuzenean. | ARAMAIOKO UDALA

Perretxikoen gaineko hitzaldi interesgarria gaur kultura etxean

J.B. | ARAMAIO

Alaiak erretiratu elkarteak antolatuta, perretxikoak izango ditu hizpide gaur Felipe Hidalgo adituak: "Perretxikoen mundua ondo ezagutzen du; batez ere, Gorbeia eta Aramaio inguruko perretxiko motak. Besteak beste, jangarriaren eta pozoitsuen arteko ezberdintasunak azalduko ditu", jakinarazi dute antolatzaileek. Hitzaldia kultura etxean izango da, 18:00etan.

Diotenez, Aramaion beti egon da "zaletasun handia" miko-logiari dagokionez: "Horregatik gonbidatzen dugu herriko eta inguruko jente guztia etortzera".

Logroñora irailaren 27an

Bestalde, Alaiak elkarteokok beste ekitaldi baten berri ere eman dute datorren asterako. Irailaren 27an Logroño bisatuko dute eta Guardian (Arabako Errioxa) bazkalduko dute.

Arabako Las Cuatro Torres erretiratu elkartearekin batera eta Udalaren eta Arabako Diputazioaren laguntzarekin antolatu da irteera eta izena eman gura dutenek bihar, hilak 20, izango dute azken aukera; 33 euroko ordainketa egin behar dute Laboral Kutxaren ohiko kontu korrante zenbakian. 09:30ean irtengo dira, geltokitik.

Rallysprinta dela-eta aldaketak herri barruko zirkulazioan

Bihar egingo den rallysprintak aldaketak eragingo ditu herri barruko zirkulazioan. Pedro Ignacio Barrutia –bertan egongo dira autoak erakusgai–, Aita Gabriel Juaristi eta Nardeaga –23. zenbaktik 46ra– kaleak itxita egongo dira eta kiroldegi aurreko aparkalekuak ere libre egon beharko du.

Euskara ikastaroetan izena emateko aukera dago irailean zehar

Euskara ikasteko aukera emango du aurten ere Udalak. Hiru maila egongo dira; hau da, hasierako, erdiko eta goi mailetako ikastaroak eskainiko dituzte asteen bi egunean. Urrian hasi eta ekainera arte iraungo dute eta, guztira, 130 ordu izango dira. Izena eman behar da udaletxean edo liburutegian, irailean zehar.



Zuzendaritza taldeko Igor Sanjuan, Iker Saizar, Maite del Rey eta Olga Parra, Txirritola eguna iragartzen. | TXIRRITOLA

"Elkarteak estrategia berriak behar ditu bizirik irauteko"

Domekan egingo da Txirritola egunaren XI. aldia; bertako hamaika sagardogile egongo dira eta txotxa herriko "sukaldari preziatuek" egingo dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Txirritola egunaren XI. aldia ospatuko da domekan, hiru helburu argirekin: "Txirritola elkarteak ikusaraztea, bazkidetza kanpaina egitea eta euskararen inguruan festa bat antolatzea".

Ospakizun egunari trikitilari-erik emango diote hasiera (11:30). Gero, 12:00etan, txotx irekiera egingo dute Txirritola eguneko "sukaldari preziatuek": Santi Elejalde, Mikel Arantzabal eta Gema Arriolabengoa izango dira omen-duak: "Halako ekitaldietan beti daude ezkutuan lan egiten duten pertsonak, kasu honetan lurrin eta ke artean. Hainbat larrialditatik ateratzen gaituzte eta haiek gabe ez genituzke jango horren goxoak diren talo eta pintxoak. Aurten, momentutxo batez bada ere, sukaldetik aterako ditugu guztien aurrean txotx ofiziala egin dezaten", adierazi dute elkarte-ko zuzendaritza taldekoek. Txotxaren ostean, bertako askotariko sagardoak, taloak eta pintxoak dastatzeko aukera egongo da. Era berean, elkarte-ko bazkide egiteko aukera ere egongo da.

Erabilera zaindu beharra

Elkarteari berari dagokionez, zuzendaritza taldekoek adierazi dute beste edozein elkartetan moduan igarri dutela beheraldia: "Bazkidetzak behera egin du, antolatzen ditugun jardueretarako parte-hartzea ez da oso handia eta zuzendaritza talderako kideak lortzea ez da erraza izaten". Elkarteak aldaketa behar duela uste dute: "Garai ezberdinak dira eta estrategia berriak behar ditugu. Horregatik, Aramaion euskararen diagnosi batetik abiatuz planteamendu berriak egin behar-rean gaude euskara elkarteak bizirik iraun gura badu".

Era berean, Aramaio Arabako herri euskaldunena izan arren kaleko erabilera zaindu beharreko zerbait dela adierazi dute: "Adingabeko askok gaztelararako joera izugarria dute, eskolatik kalera hizkuntza aldatzen dute. Hori helduengan ere ikusi dugu eta arduratzen gaituen gaia da.

Euskararekin jendea lasaitu egin dela sumatu dugu".

Albiste pozgarririk badago, hala ere: "Poztekoa da askotariko jatorrietako pertsonak euskarazko ikastaroengatik adierazten duten interesa. Askotan, familietako nagusiek euskara ikasteko beharra sentitzen dute,

kasu askotan kultura hobeto ulertu edo seme-alabei laguntzeko. Kasu horietarako ahalegin berezia egitea komeni zaigu", uste dute Txirritolakoek.

Txirritola eguna, errotutako jala
Antolatzaileak uztailean hasten dira festa berezia prestatzen. Sagardogileekin egon eta zenbat etorriko diren zehaztu ostean –"euren parte-hartzea ezinbestekoa da", diote–, Udaleko ordezkari-ekin koordinatzen dituzte baliabideak, eta herritarren parte-hartzerik ere ez da falta izaten: "Egun honetarako ez dugu arazorik izaten, jendea gertu egoten delako. Bertso eskolakoak eta trikitilariak ere gonbidatzen ditugu". Hortaz, ez dago zalantzarik Txirritola eguna herrian errotuta dagoen jaia dela.

ESANAK

"Euskararekin jendea lasaitu egin dela sumatu dugu"

TXIRRITOLAKO ZUZENDARITZA TALDEA

XIII. RALLYSPRINT'a
aramaio

IRAILAK 20

1go MANGA, 15:00etan BIDE MOZKETA, 14:00etan 3 MANGA

JUBAR, EKI TABERNA, Xateaga, Udalaiz, S.L., ERLE TAILERRA S.L., CE Cristaleria Errasti, S.L., Kintelena, Gertu, Merendero ANBOTO, AÑAI TABERNA, IBARRA OKINDECI, BIRIBIL TABAKOAK, EDARIK, KOLINTKO OHINDIGIX

ELGETA



Tortilla lehiaketa iaz. | LARRAITZ ZEBERIO.

Herritarrak izango dira protagonista bihar

Egun osoko festa izango da: azoka, lehiaketak, bertso-afarira...

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Hamalau bat postuk osatuko dute bihar, zapatua, goizean Elgetako baserritarren eta artisauen azoka. Baserritarrak hamar izango dira, eta artisauak lau. Seigarren mailako neska-mutikoen ere postua ipiniko dute ikasturte amaierako bidaiarako dirua ateratzeko. Iaz moduan, bestalde, burdina nola lantzen den ikusteko aukera emango dute Igor Hercek eta Xabat Leanizbarrutiak.

Herriko plazan egingo da azoka, eta bertara aurkeztu behar dira, baita ere, txorimalo lehiaketarako prestatutako lanak.

Guraso elkarteko bi ordezkariak egingo dituzte epaimahai lanak.

Sagardo Eguna

Arratsaldean tortilla lehiaketa jokatu da. Kuadrillek 18:00etatik 19:30era dute tortilla bana egiteko. Gaztetxeak antolatzen du urtero lehiaketa, eta horrekin batera Sagardo Eguna. Edalontziak plazan ipiniko dituzte salgai, 18:00etan, eta tabernariak doan banatuko dute sagardoa, agortu arte. Afaltzeko, Alaia Martin eta Julio Soto bertsolariak gonbidatu dituzte gaztetxera, bertso-afaria antolatu dute-eta.

Intxortako igoera 11:00etan

Iñaki Egizabalek iazko Intxortako igoeran egindako marka ez da erraz gainditzeko horietakoa: 16.15. Bihar, zapatua, izango dute beste aukera bat lasterkari guztiek. Udalak 11:00etarako iragarri du proba. Aurretik, eta 12 urtetik beherako haurrik aurkezten bada, Salvador ermitarainoko igoera jokatu da lehenengo aldiz.

ASTE BUKAERA ELGETAN

IRAILAK 20, ZAPATUA

10:30 Herriko baserritarren eta artisauen azoka.

11:00 Intxortako Igoera.

12:00 Txorimalo lehiaketa.

12:10 Elgetako trikitilariak.

13:00 Sari banaketa.

18:00 Tortilla lehiaketa.

18:00 Sagardoa doan herriko tabernetan.

20:30 Triki-poteoa.

22:30 Afaria, gaztetxean.

IRAILAK 21, DOMEKA

10:00 Vespa eta Lambretta motorren erakusketa. Izen-ematea.

11:00 Salda eta pintxo banaketa.

12:30 Motorren irteera.

14:30 Bazkaria, Intxorta elkartean.

LEINTZ GATZAGA

Gaur, egubakoitza, egingo dute ehiza-postuen bigarren enkantea

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Gaur, egubakoitza, 14:00etan bukatuko da ehiza postuen bigarren enkantearako proposamenak aurkezteko epea. Eta gaur bertan 17:00etan zabalduko dituzte jasotako proposamenak, eta esleipenak erabaki.

Bigarren enkante horretarako hemeretzi uso-postu eta sei

oilagor-postu atera ditu Udalak, oraingo asteko astelehenean esleitu barik geratu zirenak.

Hala, gaurko enkantearen ezaugarrietako bat da postuak prezio originala baino %10eko beherapenarekin eskaini dituztela. 330 euro balio dute postu merkeenek eta 1.650 euro, berriz, garestienek (prezio originalak),

postuaren mailaren arabera. Lau gunetan daude sakabanatuta postuok: Dorleta-Dominagan, Landan, Pagoeder-Maroton eta Retrancan.

Ehiza-postuotako bat eskuratu gero, hiru urterako esleipena izango da.

Legearen arabera

Ehiza denboraldiari dagokionez, berriz, Gipuzkoako Ehiza eta Arrantza Legearen arabera jokatuko dute Leintz Gatzagan ere aurtengo ehiza epeak zehazteko orduan.

Umeendako zein nagusiendako ipuin kontalari saio bana gaur, barikua, Udal Liburutegian

Umeendako saioa egingo dute, 17:20an, Lorea Larrañagak eta Geaxi Ezpeletak. 3 urtetik gorako umeendako ekintza izango da, euskaraz, eta 40 minutuko iraupena izango du. Bigarren saioa Roman Marzana elorriarrak egingo du, gazteleraz, helduendako. 22:00etan hasiko da, Udal Liburutegian, eta sarrera doan da.

Domekan Vespa eta Lambretta zaleek topaketa egingo dute Elgetan 85 bat motorrekin

Motorrak herriko plazan egongo dira ikusgai, domekan, eguerdira bitartean. Gero, irteera eta bazkaria egingo dute zaleek. Fermin Iribar antolatzaileak esan duenez, Elgetako zazpi motor izango dira topaketan: bost Lambretta eta bi Vespa. Gainerakoak Gipuzkoa zein Bizkaia osotik eta Burgos aldetik etorriko dira.

Mendi taldeak irteera antolatu du hilaren 28rako, eta Balerdi mendia igotzea da proposamena

Ikasturteko lehen irteera iragarri du Kantsatzeke mendi taldeak. Lauzprobost orduko ibilaldia izango da: Azkarate herri-tik abiatu eta Balerdi tontorrera igotzea, hain zuzen. Izen-ematea zabalik dago hilaren 25era arte eta partaideek adinez nagusiak izan behar dute. Argibideak, kantsatzeke@gmail.com helbide elektronikoan.

Luis Atorrasagastik gaur zabalduko du Patxi taberna; Espaloia, berriz, barikuan zabaldu zuten

Kudeatzaile berriek gaur astebete zabaldu zuten Espaloia kafe antzokia. Urriaren 4rako iragarri dute inaugurazio ekitaldi nagusia, kultura eskaintza eta guzti, baina, bien bitartean, zabalik dago ostalaritza zerbitzua. Luis Atorrasagasti elgetarrak, berriz, Salvador kaleko Patxi taberna inauguratuko du gaur.



J.L. ARANTZETA

Erretiratuak primeran Arnedon

Elgetako erretiratuek egun-pasa polita egin zuten eguaztenean. Errioxa aldean ibili ziren, eta, besteak beste, Arnedoko zapata fabrika bat martxan ikusteko aukera izan zuten. Ondoren, bazkari dotorea egin zuten Azagan. Gustura ibili zirela adierazi dute.

LEINTZ GATZAGA

San Milixan azokan parte hartzeko izen-ematea zabalik da dagoeneko

U.M. | LEINTZ GATZAGA

Azaroaren 16an izango da aurtengo San Milixan artisau azoka, eta Udalak dagoeneko argitaratu ditu bertan parte hartu gura duten eskulangileendako oinarriak. Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Iparraldeko artisauendako dago zabalik aukera hori. Era berean, egun horretan egingo den arti-

sautzako tailer herrikoirako oinarriak ere zehaztu dituzte. Kasu horretan, haurrei, gazteei eta nagusiei zuzendutako ekimena da. 10-15 pertsonako taldeak osatu gura dituzte (bi ekimenen oinarriak, *Goiena. eus* atarian).

Azokari dagokionez, azokara azaroaren 16an 10:00etan hasi eta 14:30ean bukatuko da.

AUTOMOBILISMOA

Artxiboko erretratuan, BMW autoa Aramaioko hasierako zatian | JARANTZABAL

Pilotu asko animatu dira Aramaioko rallysprinterako

Bihar, zapatua, 69 pilotu izango dira egutegiko azken rallysprinterako irteera puntuan

X.U. | ARRASATE

Akaso izango da aurtengo egutegiko azken rallysprinterako delako -Zeberiokoa lur gainekoa da, eta Marurikoa bertan behe-geratu da- edo Aramaioko lasterketak pilotuen artean harrera ona daukalako. Kontua da 69 lagunek eman dutela izena Azpikoracing taldeko lagunek antolatzen duten lasterketarako (iaz 47 izan ziren), eta kopuru polita da hori.

Lasterketa 15:00etan hasiko dute -14:00etan itxiko dute errepidea- azken urteotako ibilbide berean (7,8 kilometroko tramua da), eta guztira hiru txanda izango ditu probak (23,4 kilometro). Hala, lasterketa Euska-

diko rallysprint txapelketarako puntuagarria da, eta baita Formula Libre Koparako, eta Abarth Koparako ere bai.

Iaz Antxustegi eta Urresti

Hamaika taldeko Gorka Antxustegi pilotuak eta Xabat Urresti kopilotuak irabazi zuten iaz Aramaioko lasterketa, Peugeot 205 autoaz. Berez, hiru tramuak osatzen azkarrenak Iker Gayoso eta Diego Fernandez izan ziren, baina epaileek lasterketatik kanpo utzi zituzten, euren Mitsubishiak ez zituelako homologazio arauak betetzen. Hori horrela, hasierako bi txandatan bigarren denbora onena egindako markinarrek irabazi zuten.

ATLETISMOA

Astehenean irekiko dute Antxintxika Krosean izena emateko epea; Arrasate-Oñatin eman daiteke izena

Urriaren eta azaroaren atleta kuadrilla polita batuko dituzten bi lasterketa izango dira: urriaren 11n egingo dute Arrasate-Oñati lasterketa, eta jada eman daiteke izena. Azaroaren 2an etorriko da hurrengo hitzordua, Antxintxika Krosean, Soralue eta Bergara artean, eta astehenean zabalduko dute horretarako izena emateko epea (www.kirolprobak.com).

ESKUBALOIA

Ford Mugarri Arrasatek gaur hasiko du liga txapelketa, Iturripen, Usurbilen kontra

Pitxi Herrero tornea irabazi eta azken aste hau ahalik eta ondoen aprobetxatu ostean, Ford Mugarri Arrasatek gaur, egubakoitza, hasiko du liga maila nazionalen. Pablo Gartziazen mutilek Ucin Aluminios Usurbil taldea izango dute aurrean, 20:00etan hasita. Hamasei taldek osatuko dute Arrasatekoen multzoa, eta, guztira, bigarren nazionalak sei multzo izango ditu. Aurten Santoña izango da kanpoko talde bakarra.

SASKIBALOIA

Saskibaloi talde askok asteburuan hasiko dute liga eta MUK Euskal Kopako partidua izango du domekan

Domekan saskibaloia izango da goiz eta arratsalde Iturripen, maila txikiak talde askok partidua izango dituzte-eta (09:30ean hasita). Arratsaldean, osteran, taldearen aurkezpena egiteaz batera, EBA mailako MUK Euskal Kopako partidua jokatuko du Santurtziren kontra (18:30). Bailerako beste talde askorendako ere asteburu garrantzitsua da, liga hasiko dute-eta. Gipuzkoako txapelketan Soralue Bergara eta MU kanpoan estreinatuko dira.

FUTBOLA

Jose Javier Barkero | Aretxabaletako alebin mailako entrenatzailea

"Urtetan ikasitakoa gazteei irakatsi nahiko nieke"

Zaragoza taldearekin akordioa egin eta etxera itzuli da Barkero; izan ere, Aretxabaletako alebinekin hasi da lanean, nahiz eta ez duen futbola utzi

XABIER URZELAI / M.A. | ARETXABALETA Urteak daramatza etxetik kanpora Jose Javier Barkerok (Aretxabaleta, 1979), eta Real utzi zuenetik batera eta bestera ibili da futbolean. Bernabeuko eta Nou Campeko ateak zulatu ditu bere ezker hankak -ahaztezina Numantziarekin Madrili egin zion gola-, baina maletak egiteari utzi eta etxera itzultzeko ordua dela erabaki du. Oraindik, baina, ez du baztertu elitean jokatzea. Bitartean, Aretxabaletako klubekoen deiari baietz esan, eta alebinekin hasi da lanean; eta lehenengo taldean ere lagunduko du. Eguaztenean izan zuen lehenengo entrenamendu saioa, gazteenekin.

Zer moduz joan da?

Ondo, lehenengo eguna izateko oso ondo. [Barre] Gaztetxoek adi-adi begiratzen zidaten, eta ea eurekin egongo naizen galdetu didate. Polita izan da, baina hasi baino ez gara egin.

Etxera itzultzeko gogoz zinen?

Bai, Aretxabaletan lasai egon nahi dut. 16 urterekin joan nintzen hemendik, eta 26 urterekin utzi nuen Real. Ordutik hona, kanpoan ibili naiz. Etxera etortzeko ordua zen.

Duela bi urte, Levanten egindako lehen urtearen ostean adierazi zenugun gustura joango zinatekeela atzerrira jokatzerako. Baztertu duzu ideia hori?

Ederra izango litzateke kanpoan urtebete egitea, eta orain ere talde bila nabil, baina badakit zaila izango dela, gauzak dauden moduan daudelako. Ez badut eskaintza erakargarriak jasotzen, halaxe amaituko dut nire futbol ibilbidea, bestela ere emankorra izan da-eta.

Entrenatzaile izateko bai, baina jokatze eskaintza ere egin dizute klubeko ordezkariak.

[Barre] Bai, baina nire belauna ez dago zelai artifizialean jokatze moduan -min hartuta ibili da Zaragozan-. Halako zelaia gogorak dira, eta arazoak izango nituzke.

Noiztik entrenatzaile izateko nahia?

Gogoan dut 20 urterekin esaten nuena, jokatzeari uzten nionean futbola alde batera utziko nuela. Baina ideia aldatu dut, oso entrenatzaile onak izan ditut, eta urte hauetan guztietan asko ikasi dut. Gustatuko litzaidake ikasi dudari hori guztia gaztetxoek irakastea. Akaso, ez elite mailan, baina maila txikietan entrenatzaile izan nahiko nuke.

Maila txikietan dago futbolaren alde politena. Elitean beste modu batera ikusten da futbola.

Bai, zalantza barik. Elitean ez da



Barkero, eguaztenean, Ibarra futbol zelaietan. | JAGOBA DOMINGO

"16 urterekin joan nintzen etxetik; bazen itzultzeko garaia"

"Hamabost egun daramatzat hemen, ez dut uste aspertuko naizenik"

baloratzen aste barruko lana, ez da ikusten jokalaria batek hobera egin duen edo ez, domekako emaitzak baino ez du garrantzirik. Hemen ez, hemen polita da jokalaria batek zelan hobetu duen ikustea, edo ze ondo entrenatzen dabilzan ikustea, esaterako.

Adin txikietan, umeak baino gehiago, gurasoak izaten dira buruhauste.

[Barre] Ba, adin hauetan ez du inongo zentzurik jokalaria prestatzen ibiltzeak. Maila hauek futbolaz gozatzeko daude, kirola

egiteko, lagunekin ondo ibiltzeko. Gero, jokalaria batzuek berezko abilezia izango dute eta beste batzuek ez, baina belaunaldi bakoitzeko bizpahiru jokalaria baino ez dira iritsiko elitara. Berez zaila bada, gurasoak gaztea prestatzen badabilza, are zailagoa. Egon zaren leku guztietatik, zerekin geratu zara?

Talde asko ezagutu ditut, denek zituzten gauza onak eta beste batzuk ez horren onak, baina beti esan izan dut bidean ezagutu dudan jendeaz geratzen naizela, egin ditudan lagunekin. Egia da denbora laburrean klubez aldatuz gero zaila izaten dela benetako lagunak egitea, baina jende oso jatorra ezagutu dut.

Eta gertu zaude futboletik harago eguneroko berriari heltzeko?

Bai, dagoeneko hasi naiz nire eguneroko berrira ohitzen. 15 egun daramatzat Aretxabaletan, eta, egia esatearren, ez naiz aspertzten. Kiroldegian egoten naiz sasoiaren mantentzeko kirola egiten, eta Ibarra ere gustura sentitzen naiz, hau da nire mundua, futbolarena, eta honetaz gozatu nahi dut.

Munduko Txapelketan lehiatuko da Markel Irizar, baina ez Mikel Aristi

Domekan Trek-eko taldekideekin lehiatuko da eta eguaztenean selekzioarekin

XABIER URZELAI | ARRASATE

Txanponaren aurpegia Markel Irizarrendako, eta gurutzia Mikel Aristirendako. Izan ere, Oñatikoa Ponferradan jokatu den Munduko Txapelketan izango da, Javier Minguez hautatzaileak baieztatu zuenez. Baina Bergarako 23 urtez azpiko kategorian aukeratuen taldetik kanpo utzi du Monparler hautatzaileak. Irizar Trek-eko taldekideekin lehiatuko da domekan eta eguaztenean izango du Espainiako selekzioarekin lasterketa.

"Munduko Txapelketa ondo prestatu dudala uste dut, sentsazio hori daukat, eta Vueltan ez egoteak freskotasuna eman dit. Kontrara, baina, Espainiako Vueltan aproposa da Munduko Txapelketa prestatzeko, eta, akaso, erritmo falta izango dut. Zalantza horiek badituz, baina ondo nago".

Taldearekin eta selekzioarekin

Domekan taldekako erlojupekoan izango da: "Hasiara baten, aurrean egoteko moduko taldea dugu, tartean dago Cancellara, baina iaz ere gauza bera uste nuen, eta bosgarren egin genuen; hortaz...". Egun hauek, besteak beste, zirkuak bertatik bertara ikusteko



Markel Irizar. | ARITZ GORDO

aprobetxatu ditu: "Lan ona egin dute antolatzaileek, asfalto ona da eta zirkuak atsegin dut".

Erabaki "zaila" Aristirekin

Bestalde, Monparler hautatzaileak 23 urtez azpikoaren zerrendatik

kanpo utzi zuen Aristi martitzean: "Erabaki zaila izan da, Aristi talde-gizona da, eta lan ederra egingo zuen Ponferradan. Baina bat utzi behar nuen kanpoan, eta gainontzekoek ere lan ona egin dute", adierazi zuen.

Etxean jokatu du Antzuolak eta liga hasiko du Mondrak

X.U. | ARRASATE

Erregional ohorezko mailan Antzuola izango da etxean jokatu duen bakarra, Hernaniren kontra (zapatua, 17:00). Aretxabaletak Martunenen izango du partidua bihar (15:30), baina gaur, egubakoitza, UDAko klub guztien aurkezpena egingo dute herriko plazan, 19:00etan. Bergarak Azkoitira egingo du bidaia bihar, Anaitasunaren kontra jokatu du (17:00), eta domekan Zarautzen jokatu du Aloñak (17:00).

Erregional preferentean, bestalde, Mondrak Tolosaren kontra egingo du debuta domekan (16:30), Mojatagin.



Lehendakari lasterketa bihar Oñatin

X.U. | ARRASATE

Amateur mailako txirrindularien denboraldia amaitzear da, eta Lehendakari Txapelketako azkenurreko lasterketa jokatu dute asteburuan bailaran.

Oñatin egingo dute 101 kilometroko lasterketa, eta bertan batuko dira bailarako ziklista asko, Ziraunakoak, Gipuzkoak taldekoak eta baita Debarrenakoak ere. Lasterketa 09:50ean hasiko dute (Unibertsitate hiribidean), eta azkarrenak 12:20 inguruan iritsiko dira helmugara. Hasierako kilometroak Eskoriatzara bitartean egingo dituzte eta gero Goierriara joko dute.



SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE
EUROPAKO MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ASTEA

ARRASATEKO MUGIKORTASUN ASTEA 2014
Irailaren 16tik 22ra

EGITARUA

Irailak 20 Zapatua

• **BIRZIKLETA AZOKA** – Bigarren eskuko bizikleta azoka Mondragones kalean, azoka ondoan. 11:00–15:00.

• **MUGIKORTASUN TAILERRA ETA JOLASAK**
Biteri plaza / 11:00-13:00

ERAKUSKETA

EMISIO TXIKIKO IBILGAILUAK – "Mugitzeko beste era bat"
Biteri plaza. 11:00-15:00
Auto hibridoak eta elektrikoak, Paseoko bizikletak, tolesgarriak, elektrikoak...

Irailak 21 Domeka

• **BIZIKLETA BIRA - Monterraon-Zubillaga-Monterraon**
Irteera: Monterraon parkea. 10:00
Ibilbidea Interneten: ttiki.com/78969

Irailaren 22tik 26ra

• **Erakusketa:** Etxaluze-Musakola bizikletaz egiteko alternatibak Kulturate, 17:30-20:30



HIRIBUSA

DOAKOA

• Irailaren 16tik 22ra, hiri busa DOAN.

** Adin txikikoek autobusa erabili ahal izango dute nagusi batekin badoaz edo ohiko eskola bidaia egiteko (aurreko urteetan sortutako arazoak gerta ez daitezten)**





IRAILAK 21 ARRASATE BIZIPOZAREN JAIAREN

PIRRITX, PORROTX ETA
MARIMOTOTS · ANE ETA
PIRATEKIN PARRANDAN ·
KIROL EGOKITUAK ·
KAXOI TAILERRA · TXAKUR
ERAKUSTALDIK · HAZI
LANDAKETA · DANTZARIAK ·
ABESBATZA · ERRALDOI
ETA KILIKIAK HERRITIK
ZEHAR · SERIGRAFIA ·
PUZGARRIAK · APAR FESTA ·
AURPEGI MARGOKETA ·
LUDOKETA TXOKOA · ESKULANAK ·
KARAOKEA · BERRAMESTEN
TAILERRA · BAZKARI HERRIKOIA...



WWW.BIZIPOZA.ORG

SARRERAK SALGAI

- Elkar Dendak:
- Arrasate eta Bergara
- Arrasateko Gazte Bulegoan
- Egunean bertan



**SARRERA: Banakakoa: 5 € · Gurasoak DOAN · Irrien Lagunak txarteldunak: DOAN
BAZKARIRAKO TXARTELA: 5 € · Egunean bertan erosi ahal izango da**

ANTOLATZAILEA



ELKARTEAK

AFESTA · ASPANOGI · KALE DOR
KAYIKO · GKEF · CHERNOBILEN
LAGUNAK · BEROA · PAUSOKA ·
UME ALAIA · BANAIZ BAGARA ·
ARNASA · ETIOPIA UTOPIA · AURRERA
ATERA · GURE SEÑEAK · BOCALAN
BIAK BAT · GIZAKIEN LURRA · AMPGYL ·
GEHITU · GURE NAHIA ELKARTASUNA

LAGUNTZAILEAK

EKIN EMAKUME TALDEA · PORTALOI KULTUR
ELKARTEA · ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSA ·
ARRASATEKO GAZTETXEA · MARITXU KAJOI ETA
SANTAMAS KOMISIÑUEK · ARIZMENDI IKASTOLA ·
ARRASATE HERRI ESKOLA · ASPACE · BAGARA
HERRIGINTZAN · TXIKITXU-ARROSTAITZ DANTZA
TALDEA · EREINDAJAN · SEXOLOGIA ZERBITZUA ·
AED ELKARTEA

BABESLEAK



Gainera, eskaintza berezi hau!

Irailaren 21ean Irrien Lagunak Gizartegintza Elkarteak antolaturik Arrasaten ospatuko den Bizipozen Jaiaren (BPJ) harira, eta Goiena Komunikazio Taldearekin elkarlanean, eskaintza hauek egin nahi dizkizuegu bi elkarteok.
Irailaren 30era arteko eskaintza da.

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRRIEN LAGUNAK KLUBA

1. eskaintza Goiena Klubeko Harpidetza + IRRIA aldizkaria Harpidetza

- Irrien Lagunak motxila*
- BPJ kamiseta*
- BPJ familiarentzako sarrera

60€



2. eskaintza Goiena Klubeko bazkideendako

- IRRIA aldizkaria harpidetza
- BPJ kamiseta*
- BPJ familiarentzako sarrera

30€

ZATOZ GOIENAKO EGOITZARA IZENA EMATERA, IRAILAREN 30A BAINO LEHEN: Arrasateko Otorra Lizentziaduna 31n gaude.

KULTURA

Debagoiendarrak alfonbra gorrian

- ▶ Gaur hasiko da Donostiako Zinemaldia, debagoiendarren inoizko ordezkariak zabalenarekin
- ▶ Sail Ofizialean daude Aitor Arregiren 'Loreak' eta Aitor Mantxolaren 'Lasa eta Zabala'

MIREN ARREGI | DEBAGOIENA

Dena gertu dago Donostian Zinemaldiaren beste edizio bati hasiera emateko; Kursaal, zine aretoak, antzokiak, alfonbra gorria, zine zuzendari, produktore, aktore... Zinemaren hiriburu bilakatuko da gaur hasi eta datorren zapatara arte Donostia. 62.a du aurten Zinemaldiak; eta indartsu dator: 212 pelikula eta izen handiak, bai zuzendari, eta baita aktoreei dago kienez ere. Europako zinegileen kopuru eta mailak emango dio, besteak beste, prestigioa aurten goari. Donostian izango dira François Ozon, Susanne Bier eta Cedric Khan zinegile ezagunak, besteak beste.

Gaur izango da Donostiako Zinemaldiaren 62. edizioko inaugurazio gala, 21:00etan, Kursaal. Karra Elejalde eta Edurne Ormazabal izango dira hori zuzentzen eta galako izen nabarmenena, zalantza barik, Denzel Washington aktore estatubatuarra izango da, hark jasoko baitu aurtengo lehenengo Donostia saria. Benicio del Toro aktoreak ere jasoko du aurten Donostia saria, baina hori hilaren 26ko galan izango da.

Aipatzekoak dira, baita ere, guztien artean hiru sail: Ofiziala, Zabaltegi eta Perlak. Perlak, beste zinemaldi batzuetan saritutako pelikulaz beteta datorrelako; Zabaltegi eta Sail Ofiziala, bietan ere debagoiendarrek parte hartu duten filmak emango dituztelako.

Ibarreko ordezkariak zabala

Donostiako Zinemaldiaren 62. edizioa berezia izango da, baita ere, euskarazko zinemagintzak inoizko parte hartzerik handiena izango duelako Sail Ofizialean *Loreak* eta *Lasa eta Zabala* filmean emango dituzte sail horretan, eta ez hori bakarrik, bereziki berezia izango baita debagoiendarren zatia, inoizko parte hartzerik handiena izango duelako.

Jon Garañok eta Jose Mari Goenagak zuzendutako *Loreak* filma Urrezko Maskorrarengatik lehiatuko da Sail Ofizialean eta horretan parte hartu du gidoilari eta bigarren unitateko zuzendari lanetan Aitor Arregi oñatiarrak; ez hori bakarrik, filmeko ekoizle eragilea ere izan baita. Datorren martitzenean, hilak 23, 22:00etan, zapalduko du *Loreak* filmeko lantaldeak alfonbra gorria eta han izango da Aitor Arregi ere, "urduri eta gogotsu: "Sekulakoa izango da Kursaal beteta



ESANAK

"Sariren bat eskura genezake"

AITOR ARREGI | ZINEGILEA

"Aurten ilusio berezia egiten dit Zinemaldiak"

AITOR MANTXOLA | ARGAZKI ZUZENDARIA

"Loreak"-en estreinaldian egongo naiz"

MARIASUN PAGOAGA | AKTOREA

"Handik ibiliko naiz egun hauetan"

KEPA ERRASTI | AKTOREA

ikustea", dio. Pozik dago, era berean, Sail Ofizialean emango duten euskara hutsean grabatutako lehen filma baita *Loreak*. "Sail horretan egote hutsak izena eta aukera handiak emango dizkio filmari", dio. Eta gaineratu du: "Amestea libre da; Urrezko Maskorraz gain beste sari asko emango dituzte, eta, zergatik ez, horietako bat eskura genezake".

Aktore bi Sail Ofizialean

Ez da Arregi *Loreak* filmaren estreinaldian egongo den debagoiendar bakarra izango, Mariasun Pagoaga aktore arrasatearra ere han izango baita. Pagoagak *Loreak* filmean parte hartu du "paper txiki" batekin, eta, egunotan *Goenkale*-ko grabaketekin lanpetuta dabiren arren, estreinaldian izango da: "Lanpetuta nabil oso eta lanak uzten didan heinean egongo naiz Zinemaldian; *Loreak* filmaren estreinaldia, seguru", dio Pagoagak. "*Lasa eta Zabala*-renean, ez dakit oraindik", gaineratu du. Hain justu ere, Pagoaga Lasaren ama izango da fikzioan.

ESANAK

"Lan asko dut, baina 'Loreak' ikusiko dut"

ESTHER CABERO | KIMUAK

"Lantaldearekin izango naiz Zinemaldian"

MARIA CRUICKSHANK | AKTOREA

"Soroan" da lan esperimental eta surrealista"

ASIER ALTUNA | ZINEGILEA

"Loreak" ikusteko gogo itzela dut"

JOAN SALA | EDITOREA

Zinemaldia Goianan

Imanol Gallego kazetaria izango da, aurten ere, Goienako berriemailea.

Goiena telebistan, *Debagoiena zuzenean* saioan egunero zuzeneko konexioak egingo dituzte eta irailaren 24an, eguaztena, berriz, *Loreak* filmaren gaineko erreportajea eskainiko dute, *Goiena.eus* atarian, ordea, blogak.goiena.eus/zinemalditikgoienara helbidean batuko dira kronikak, argazki galeriak eta filmen gaineko bideo-kritikak. GOIENA paperak ere jasoko du zinemaldiak emandakoak. Eta Arrasate Irratian, berriz, zuzeneko konexioak egingo dituzte.



Imanol Gallego. | A.A.

Kepa Errasti aretxabaletarrak ere hartu du parte Sail Ofizialean erakutsiko diren bi filmetan, eta "handik ibiliko" da Zinemaldiak irauten duen bitartean. "Ez dut agerraldi ofizialik egingo, baina Donostian ibiliko naiz. Zinemira galan, seguru, eta jairen baten ere bai". *Loreak* eta *Lasa eta Zabala* ikusiko dituen galdetuta dio nahia go dituela ondoren ikusi, "euskal produkzioek gero behar dute-eta publikoa".

Argazki zuzendaria, oñatiarra

Aitor Mantxola oñatiarrak argazki zuzendari lanak egin ditu *Lasa eta Zabala* filmean. Hilaren 25ean estreinatuko da hori, Kursaal, 19:00etan. Han izango da egun eta ordu horretan Mantxola, nola ez, ez du hutsik egingo. Zinemaldiak irauten duen bitartean ere Donostian emango ditu egunak, gaurtik hasita: "Aurten ilusio bereziarekin, *Lasa eta Zabala* han egonda". Gustura dago Mantxola filmean egin duten lanarekin. "Teknikoki oso maila handiko lana da; oso neurrikoa eta konplikatu gaiari >



Loreak filmeko kartela Kursaal aurrean. | IMANOL GALLEGU

> dagokionez. Beharrezkoa zen gai horren gaineko horrelako lan bat", dio filmaz galdetuta. Sail Ofizialean badago ere, *Lasa eta Zabala* ez da lehiaketa ofizialean egongo.

Zabaltegin ere, ibarretik asko

Zabaltegi sailak ere izango du ibarretik aurtan. Esaterako, Aitor Arregi oñatiarraren *Zarauzen erosi zuen* film laburra erakutsiko da: "Belodromoan emango dute, eta oso harro nago labor hau Zinemaldira aukeratua izan delako", dio Arregik.

Zabaltegin ikusi ahalko da, baita ere, Asier Altuna *Kixi* bergararren *Soroa*. Bihar arratsaldean aurkeztuko da hori Kimuak bildumarako izan diren film laburren aurkezpen ekitaldian, eta gauean, 22:45ean, Trueban emango dute. Han izango da *Kixi*, emanaldiaren aurretik aurkezpen txiki bat egiteko. Denbora luzez aritu da bergararra *Soroa* laburrean lanean: "Urtetan joan gara grabaketak egiten Bardean eta postprodukzio lan itzela izan du", dio. Jorge Oteizaren ipuin batek abiatutako filma da, "lan esperimentala eta surrealista".

Maria Cruickshank oñatiarrak Borja Kobeagaren *Negociador* pelikulan parte hartu du, eta film hori ere emango dute Zinemaldiko Zabaltegi sailean. Paper txiki bat izan du oñatiarrak filmean, eta nahikoa izan zaio zinegintza ere gustuko dela jakiteko: "Nire lehenengo filma izan da, beti ibili naiz telebistan edo antzerkian. Erritmoa oso desberdina da, lasaiagoa, eta lan fina eta polita gelditu da". Zinemaldian izango da oñatiarra, "ilusioz", lantaldearekin egingo den prentsaurrekoan lehenik, eta filmaren lehenengo emanaldian ondoren.

Kimuak-ekin Zinemaldian

Esther Cabero ere Donostian izango da egunotan, Eusko Jaur-laritzak eta Etxepare Institutuak kudeatzen duten Kimuak programan egiten du-eta lan aretxabaletarrak; hain zuzen ere, hura da Euskal Herrian ekotzitako

film laburren katalogoaren koordinatzailea. Caberoren ustez, *Kixi*-ren *Soroa*-k "sorpresa emango du" eta Arregiren *Zarauzen erosi zuen* "enpatia handia eragiten duen" filma da. Zinemaldian lanpetuta ibiliko bada ere, *Loreak* ikusteko tarte bat hartuko du.

Joan Sala ere, Donostian

Bartzelonan bizi den Joan Sala arrasatearrak ere Donostian emango du astea. Filmak deskargatzeko aukera ematen duen Filmin enpresako editorea da hura eta 40 pelikula inguru ikusiko ditu Zinemaldian. Irrika handiena pizten diona *Loreak* filma da.

DEBAGOIENEN KIN ZINEGILEEN LANAK

LOREAK

Non: Kursaal 1.

Eguna: Irailak 23, martitzena.

Ordua: 22:00.

LASA ETA ZABALA

Non: Kursaal 1.

Eguna: Irailak 25, eguena.

Ordua: 19:00.

ZARAUZEN EROSI ZUEN

Non: Belodromo.

Eguna: Irailak 27, zapatua.

Ordua: 17:00.

SOROAN

Non: Belodromo.

Eguna: Irailak 27, zapatua.

Ordua: 17:00.

NEGOCIADOR

Non: Kursaal 2.

Eguna: Irailak 22, astelehena.

Ordua: 24:00.

Aipatutako emanaldiez gain, badira filma horiek ikusteko beste hainbat aukera. Informazio gehiago sansebastianfestival.com atarian.

"Garrantzitsua da Goikobalu herrirako berreskuratzea"

Tradizio handiko Goikobaluko Erromerixie berreskuratuko du bihar, zapatua, Zuztarrak Errotuz taldeak, Udalaren eta herriko elkarten laguntzarekin

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Zuztarrak Errotuz taldeak bigarren antolatu du Goikobaluko Erromerixie; bihar izango da.

Urteetan galduta egon den tradizio handiko erromeria herrikoia berreskuratzea duzue helburu.


Egia esan, ez dago dokumentazio handirik, baina badakigu 1950. urtera arte erromeria edo horrelako jai bat ospatzen omen zutela Igokunde egunean. Diotenez, Gazteluondo errebelean ere modu berezian ospatzen zuten, besteak beste, oilarra janda. Horregatik, bada, garai bateko tradizioa gurea ekarri gura izan dugu; era berean, Goikobalu edo gaur egun popularragoa den Santa Barbara izenarekin ezagunagoa den goiko espazio hori herrirako berreskuratzea inportantea dela uste dugu. Bi elementu horiek oinarri hartuta erromeria bultzatzen saiatu ginen iaz.

lazkoak izan zuen arrakastak bultzatuta, egun osoko egitaraua presatatu duzue biharko.

Udalari eta herriko askotariko elkarteei aipatu genien aukera hori; eta egia esan, sekulako erantzuna jaso genuenez, irailaren bigarren zapatuan egin genuen. Gerora erabaki dugu hirugarren zapatua finkatzea Goikobaluko erromeriaren egun moduan.

Historia gainbegirata, Goikobalu leku estrategikoa izan da.

Guregana heldu da, ahoz aho kasik, han gaztelu bat omen zegoela eta uste dut galduta izan dugula gazteluaren existentziaren memoria. Gogoan dut ume garaian kondaira bat moduan gurea, nahiz eta bertan egon Gazteluondoko errebala. XX. mende bukaeran Aranzadik ikerketa batzuk egin zituen eta orduan bistaratu zituzten gaztelu horren



Xabier Zubizarreta, Arrasateko Zuztarrak Errotuz taldeko kidea. | A. A.

"Hasieratik uste izan dugu ezin zela bakarrik gure ekimen bat izan"

oinarriak. Badirudi X. mende inguruan Antso Abarkaren aginduetara eraiki zutela; Nafar Erresumako gobernatarako azpiegitura izango zen, seguruenik. **Oraingoan ere, Udalaren eta herriko elkarten laguntza izan duzue.** Hasieratik pentsatu genuen ezin zela bakarrik Zuztarrak Errotuz elkartearen ekimen bat izan, baizik eta herritarrekin batera egingakoa, are gehiago erromeria bat ez delako ikuskizun bat. Jaia herritarrek egin dutela esango nuke, ikusi besterik ez dago, elkarten parte hartzea. Iazko esperientzia oso ona izan zen.

EGITARAUA

12:00 Kalejira Seber Altuben hasita.

13:30 Herriko Plazatik abiatuta, Goikobalura igoera.

14:00 Txalapartariak, bertsolariak, dantzariak eta baita sagardoa eta taloak dastatzeko aukera ere.

15:00 *Zeuk eruen, zeuk jan!* bazkaria. Bazkalostean, kantuak, bertsoak...

16:15 Ekitaldia: dantzariak; albokariak; trikitalariak...

18:00 Erromeria Lide eta Eneritzekin.

19:30 Goikobalutik jaitsiera Herriko Plazara.

Joxan Izaren paisaia urbanoak Durangon

A. A. | OÑATI

Ekainean Parisen erakutsi ondoren, Durangon ditu orain Oñatin bizi den Joxan Iza margolari bergararrak lanak ikusgai. Irailaren 28a bitartean, Arte eta Historia

Museoan du *Bildumak & amaitu gabeak* izenarekin bataiatu duen erakusketa.

Eskarmentua du margotzen, umetatik du-eta zaletasuna. "Amamaren baserriko sukaldean hasi

nintzen klarionekin marrazkiak egiten, ondoren ikatz-marrazkiak egiten ikasi nuen eta askotariko aire zabaleko lehiaketetara joaten nintzen gero, oraindik mutikotxo nintzela. Askok erakutsi zidaten artistak ezagutu nituen horietan", kontatu du margolariak.

Neurri askotariko margolanak egiten ditu hainbat teknika nahastuta: akrilikoak; olioak; txinatar tinta; collageak; ordenagailuz landutakoak; eta binilozko irudidunak, besteak beste. "Modu baten esanda, paisaia urbanoak dira. Ez zait gustatzen gauza zehatzak erakustea. Arkitekturak dira, poliedrikoak, ikuspuntu eta elementu ezberdinak integratzen dituenak", gaineratu du Izak.



Askotariko tekniken nahasketa dute Izaren margolanek. | JOXAN IZA

Sarrerak 'on line' eta leihatilan salgai

Hainbat film ikusteko aldeztu aurretiko sarrerak agortuta badaude ere, emanaldi bakoitzeko sarreraren %10 filma erakutsiko duten egunean bertan salgai egongo dira leihatilan.

Kutxabank.es eta Sansebastianfestival.com webguneen bitartez eskura daitezke, 08:00etatik aurrera. Kreditu txartel bakoitzarekin lau sarrera eros daitezke.



Velez de Mendizabal eta Gorospe, Gasteizko festetako pregoian. | JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL

Musika, dantza eta kantua Urrezko Zeledoi sarietan

Jose Mari Velez de Mendizabal aramaioarra izango da sarituetako bat

MAIALEN TORRES | ARAMAIO

Datorren egubakoitzean emango dituzte Urrezko Zeledoi sariak, eta aurten Jose Mari Velez de Mendizabal aramaioarra eta Asun Gorospe gasteiztarra dira sariak jasoko dituztenak.

Velez de Mendizabalen kasuan, Arabaren inguruan egin izan duen dibulgazio lana hartu dute aintzat saria hari emateko. Gorospek, berriz, Deportivo Alaves tabernan emandako urteen ordainetan jasoko du Urrezko Zeledoa.

Irailaren 26an izango da sari banaketa ekitaldia, iluntzeko zortzietan, Gasteizko Printzipal antzokian. Ismael Diaz de Mendibilek aurkeztu eta gidatuko du sariketa, eta ia prest dute dena egun handirako.

Sariketarako, egitarau zabala
Egubakoitzeko protagonistak Velez de Mendizabal eta Gorospe izango diren arren, jende askok hartuko du parte Printzipal antzokiko ekitaldian. Izan ere, Iker

Olazabalen zuzendaritzapean, Gasteizko Udal Bandak kontzertua eskainiko du.

Besteak beste, azpimarratu beharra dago Olazabalek berak ere lotura zuzena duela Debagoienarekin, Arrasate Musikaleko Orkestra Sinfonikoaren zuzendaria delako. Hortaz, Debagoienak ordezkari bikoitza izango du protagonistei dagokienez.

Olazabalek gidatutako ekitaldia hiru zatitan banatu dute eta horietako bakoitzak bere izaera

propioa izango du: lehen zatian, Jesus Guridiren *El Caserío* obra joko du bandak, eta, ondoren, Folklore Eskolarekin, Indarra Dantza Taldearekin eta Sanmarniego Abesbatzarekin batera, *Suite Vasca* taularatuko dute.

Bigarren zatian izango da sariketa, eta, hor interpretatuko dituzten piezen artean, eskualdeko beste protagonista batek lekua izango du: Sabin Salaberri aramaioarrak, Urrezko Zeledoi zuzendutako ereserkia hark konposatutakoa da-eta. Horrez gain, Alaves taldearen ereserkia ere joko dute, zuri-urdinen jarraitzaile sutsu den Gorosperi eskainita, ziur asko.

Aipagarria da, baita ere, ekitaldian parte hartuko duen taldearen handitasuna, 30 musikari izango baitira oholtza gainean. Gainera, ez da ahaztu behar bi dantza talde eta abesbatza bat ere arituko direla lanean; beraz, ikuskizun jendetsua izango da, zalantzarik gabe.

Sarituak eta "karguaren" lana
Bada, saria datorren egubakoitzean jasoko badute ere, abuztuan hasi ziren Velez de Mendizabal eta Gorospe Urrezko Zeledoi sarituen "karguak" dakartzan lanak betetzen.

Besteak beste, Gasteizko jailetan, txupinazora gonbidatu zituzten, baina jailetako egitarau ofizialari amaiera emateko arduraren euren gain izan zuten.

Eskaintza egin behar zioten Andre Mari Zuriari San Miguel elizan, eta Velez de Mendizabalen ezohikoa izan zen. Izan ere, bertsoa egin zion Andre Mari Zuriari, eta hala esan zion: "Ama zera-ta Gasteizen alde / zuk zer egingo ez dezu! / Zure aurrera etorri gera / zintzoki eta umiltzu / Zure ohorezko jai hauetan / gorde gaitzazu osasuntsu".

'Ondoko hilobiko tipoa' antzezlanaren Arkupen

M.T. | ARETXABALETA

Txalo Produksioak konpainiak *Ondoko hilobiko tipoa* antzeztuko du egubakoitzean, hilak 25, Arkupe kultura etxean, 19:00etan. Ezinezko litzatekeena posible bihurtuko duen istorioan, kanposantuak bi pertsonaia eta bi mundu nahastuko ditu irribarre leun batez.

Sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai lau euroren truke Arkupe kultura etxean, 18:30ean.

Aurpegi ezagunak

Iker Galartzak eta Aitziber Garmendiak emango diete bizia bi protagonistei, eta, oholtza gainean horren aurpegi ezagunak izanda, "jende ugari" espero dute Arkupekoek. Antzezlanaren ikusi nahi dutenek, beraz, garaiz gerturatu beharko dute kultura etxera.



Antzezlanean parte hartzen. | TXALO

Domekan jarriko dituzte salgai 'Don Giovanni' opera ikusteko sarrerak

Opera 2001 konpainiak taularatuko du obra, nazioarteko hainbat artistarekin

M.T. | ARRASATE

Ozenki elkarteak antolatuta, urriaren 30ean Mozarten *Don Giovanni* opera eskainiko dute Amaia antzokian, 20:00etan. Hura ikus-

tera joateko asmoa dutenek domekan bertan hasita sarrerak eros- teko aukera izango dute, 30 euroren truke. Guztira, 770 lagunek gozatu ahal izango dute Mozarten

opera ezagunenaz ia hiru ordu iraungo duen emanaldian.

Eserlekua ziurtatuta izateko, Kutzabanken webgunean edota kutxazainetan, Udalaren webgu-

nean, Amaia antzokiko leihatilan edo Ozenki elkartearen helbide elektronikora (ozenkielkatea@hotmail.es) idatzita eskuratu ahal izango dira sarrerak.

Opera 2001 konpainiak taularatuko du Mozarten obra, bertako zein nazioarteko artisten kolaborazioarekin. Besteak beste, Bulgariako Plevengo Orkestra Sinfonikoa arduratuko da istorioari musika jartzeaz, Martin Mazik zuzendariaren gidaritzapean. Oholtza gaineko zuzendaritza, berriz, Riccardo Canessaren esku izango da.

Maitasuna eta mendekua

Mozarten operak XVII. mendeko Espainiara eramango du ikuslea; Sevillara, hain zuzen ere. Bertan, Don Giovanni gazte harro eta gonazalearen bizitza kontatzen du operak. Haren zerbitzari Leopoldok lagunduta, herriko emakumeak limurtuko ditu Giovanni gazteak, zerrenda luze bat osatu arte.

Dena den, maitasun kontuek mendeku gosea ere piztuko dute han eta hemen, eta jauntxo gaztearen azpijokoez zigorraren itzala ekarriko dute eszenara.

Aktoreen zerrenda

Giulio Boschetti baritono erromatarrek emango dio bizia Don Giovanni pertsonaia nagusiari. Haren morroi lanak, berriz, Alberto Bianchi baxuak egingo ditu. Jauntxo gaztearen maitaleak, berriz, bi soprano antzeztuko dituzte. Linda Campanella Donna Anna izango da, istorioan Don Giovanni limurtzen duen lehen emakumea. Donna Elvira, berriz, Heloise Koempfen Brannynk antzeztuko du eta koruak egiteaz Opera 2001 konpainia arduratuko da emanaldi osoan.



Don Giovanni operaren eszena bat, Ópera 2001 taldeak antzeztuta. | ÓPERA2001

ASTEAGOIENAN



SANSEBASTIANFESTIVAL.COM

Zinemaldian jasotakoak, ikusgai

Martitzenean aurkeztuko da *Loreak* filma Donostiako Zinemaldian eta bertan jasotakoak ikusi ahal izango dira eguazteneko *Debagoiena zuzenean* saioan. Izan ere, Imanol Gallego kazetaria Donostian bertan egongo da protagonistekin. **'Debagoiena zuzenean'** Eguaztena, 20:00



GOIENA

Eskoziari begira jarriko da 'Tertulia'

Eskoziaren erabakitzeko esku-bidearen kontuak askorako eman du egunotan eta egoera gertutik aztertuko da eguazteneko *Tertulia* saioan bailarako hainbat ordezkari politikorekin batera. Larraitz Zeberio aurkezleak gidatuko du solasaldia. **'Tertulia'** Eguaztena, 22:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 19	ZAPATUA, 20	DOMEKA, 21	ASTELEHENA, 22	MARTITZENA, 23	EGUAZTENA, 24	EGUENA, 25
12:00 Debagoiena zuzenean	10:00 Amaia DJ	10:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Amaia DJ	10:30 Motokrosa	10:55 Astea iruditan	13:00 Motokrosa	12:30 Harmailatik	12:30 Ertzak	12:30 Tertulia
13:00 Ikusten	11:00 Debagoiena zuzenean	11:00 Ur eta lur	13:25 Zorion Agurrak	13:00 Motokrosa	13:30 Harmailatik	13:30 Ur eta lur
13:30 Jaiak: Debagoieneko jaiak	11:55 Astea iruditan	11:30 Amaia DJ	13:30 Debagoiena zuzenean	13:25 Zorion Agurrak	13:55 Zorion Agurrak	13:55 Zorion Agurrak
13:55 Zorion Agurrak	12:00 Antzerkia	12:00 Antzerkia	14:30 Berriak	14:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean
14:00 Debagoiena zuzenean	13:00 Onein	13:00 Debagoiena zuzenean	15:00 Kontzertua	14:30 Berriak	14:30 Berriak	14:30 Berriak
14:30 Berriak	13:30 Ur eta lur	13:55 Astea iruditan	15:30 Onein	15:00 Harmailatik	14:30 Berriak	15:00 Tertulia
15:00 Amaia DJ	14:00 Amaia DJ	14:00 Idemtitateak	16:00 Debagoiena zuzenean	15:30 Onein	15:00 Idemtitateak	16:00 Debagoiena zuzenean
15:30 Onein	14:30 Idemtitateak	14:30 Onein	16:30 Berriak	15:55 Zorion Agurrak	15:30 Onein	16:30 Berriak
16:00 Debagoiena zuzenean	15:00 Debagoiena zuzenean	15:00 Ertzak	17:00 Ertzak	16:00 Debagoiena zuzenean	16:00 Debagoiena zuzenean	16:30 Berriak
16:30 Berriak	16:00 Astea iruditan	16:00 Amaia DJ	18:00 Motokrosa	16:30 Berriak	16:30 Berriak	17:00 Varsoviako abesbatza
17:00 Ikusi irratia	16:10 Motokrosa	16:30 Debagoiena zuzenean	18:25 Zorion Agurrak	17:00 Amaia DJ	17:00 Harmailatik	18:10 Motokrosa
18:00 Ikusten	16:30 Ikusi irratia	17:25 Astea iruditan	18:30 Berriak	17:30 Ikusi irratia	17:30 Ikusi irratia	18:30 Berriak
18:30 Berriak	17:30 Amaia DJ	17:30 Ikusi irratia	19:00 Idemtitateak	18:25 Zorion Agurrak	18:30 Berriak	19:00 Idemtitateak
19:00 Amaia DJ	18:00 Ertzak	18:15 Idemtitateak	19:30 Harmailatik	18:30 Berriak	19:00 Harmailatik	19:30 Amaia DJ
19:30 Jaiak	19:00 Debagoiena zuzenean	18:45 Motokrosa	20:00 Debagoiena zuzenean	19:30 Idemtitateak	19:00 Antzerkia	20:00 Debagoiena zuzenean
20:00 Debagoiena zuzenean	19:55 Astea iruditan	19:05 Ertzak	20:30 Berriak	20:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak
20:30 Berriak	20:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak	20:30 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak	20:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean
21:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Amaia DJ	21:25 Astea iruditan	21:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak
21:30 Berriak	21:00 Ertzak	21:30 Varsoviako abesbatza	22:00 Harmailatik	21:30 Berriak	21:30 Berriak	22:00 Amaia DJ
22:00 Jaiak	22:00 Debagoiena zuzenean	22:45 Debagoiena zuzenean	22:30 Debagoiena zuzenean	22:00 Ertzak	22:00 Tertulia	22:30 Debagoiena zuzenean
22:30 Debagoiena zuzenean	22:55 Astea iruditan	23:45 Astea iruditan	23:00 Berriak	23:00 Debagoiena zuzenean	23:00 Berriak	23:00 Berriak
23:00 Berriak	23:00 Varsoviako abesbatza	23:55 Kontzertua	23:30 Motokrosa	23:30 Berriak	23:00 Berriak	23:30 Tertulia
23:30 Amaia DJ	00:00 Amaia DJ		23:50 Debagoiena zuzenean	23:30 Harmailatik	23:30 Debagoiena zuzenean	00:30 Debagoiena zuzenean
00:00 Debagoiena zuzenean			00:20 Berriak	00:00 Debagoiena zuzenean	00:00 Berriak	01:00 Berriak
00:30 Berriak						

ARRASATE IRRATIA

Asteko gainbegiratu zapatuan eta domekan, 10:00etan

Astean zehar Arrasate Irratian izan diren elkarrizketak entzun ahal izango dira asteburuan 10:00etan, 107.7an. Besteak beste, Xabier Zubizarretak Gokobaluko erromeriaz hitz egingo du eta udal teknikari Pello Garaik eta Mar- ga Garmendiak, berriz, baseritarren azokaz.

Zinemaldiaren azken ordukoak datorren astean 107.7an

Donostiako Zinemaldiari begira jarriko da datorren astelehenerdik aurrera Arrasate Irratia. Bertan gertatzen diren azken ordukoen eta bitxikerien berri eman- go du 107.7ko uhinetan Donostian izango den Imanol Gallego kazetariak. Beraz, gertutik jarraitu ahal izango da Zinemaldia.


GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 19	IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
Zapatua, 20	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Domeka, 21	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Astelehena, 22	RUIZ	Nafarroa Etorbidea 1	943 79 14 09
Martitzena, 23	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea 38	943 77 16 30
Eguaztena, 24	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea 1	943 79 15 15
Eguena, 25	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
BERGARA			
Egubakoitza, 19	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Zapatua, 20	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Domeka, 21	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Astelehena, 22	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Martitzena, 23	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguaztena, 24	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguena, 25	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
OÑATI			
Egubakoitza, 19	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Zapatua, 20	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Domeka, 21	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Astelehena, 22	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Martitzena, 23	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguaztena, 24	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguena, 25	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28


Farmazien eskuko telefonoetarako 2014 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altria TICek kudeatuta (www.altria.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



Max. 27°
Min. 14°




Max. 26°
Min. 13°

ZAPATUA, 20
Giro eguzkitsua izango da, bereziki goizean. Hego haizea dela eta, temperatura beroak izango dira egunean zehar.

DOMEKA, 21
Temperaturak behera egingo du orokorrean zertxobait. Zeruera, berriz, oskarbi mantenduko da domekan.

EUSKAL HERRIA



Kostaldean brisa ahul bat sartuko da eta zapatuan eguna amaitzeaz trumoi-ekaitzak bota ditzake.

GAZTE INFORMAZIOA

BEGIRALE IKASTAROA

Begirale. Oñatiko Udalak antolatuta, urrian hasi eta maiatzera arte, zapatuetan 9.00-14.00 eta 15.00-18.00. Baldintzak: 18 urtetik gora izatea. Epea: irailak 26.

BEKAK

Unibertsitateko beka orokorrak. Eusko Jaurlaritzak. Bekak unibertsitateko edo goi-mailako ikasketak egiten dituzten ikasleentzat, Euskal Autonomia Erkidegoan edo Estatuko beste lurralde batean. EPEA: irailak 30. Nobela sorkuntza. Ondarroako Udala eta Elkar argitaletxea. Nobelak sortzeko 6.000 euroko beka. Azken eguna izango da: irailak 30.

LANA

Administrazio orokorreko teknikaria. Azkoitiko Udala. Administrazio Orkorrako Tek-

nikari lanpostua behin-behineko izaeraz hautatzeko deialdia. Baldintzak: Zuzenbidean, Zientzia Politikoetan, Ekonomikoean edo Enpresaritzakoean, Intendenentzia Komertzialean lizentziatua izatea edo Aktuarioa edo baliokidea, 4. hizkuntza-eskakizuna. Azken eguna ondorengo izango da: irailak 20.

Udaltzainak. Errenteriako Udala. 10 udaltzain plaza bete gura dira. Azken eguna izango da: irailak 23.

Begiraleak eta euskara irakasleak. Bergarako Jardun Euskara Elkarteak. Ikasturtean sor daitezkeen lan beharrei erantzuteko lan poltsa osatu gura du, euskara irakasle edo aisialdiko begiraleei zuzenduta. Azken eguna izango da: irailak 21.



